




LHHA 0-3 jasangarri eta kulturarteko baten oinarri teorikoei buruzko gida



Co-funded by
the European Union

Gida hau “**SUSIEE: Jasangarritasuna eta kulturartekotasuna 0-3 urteko lehen haurtzaroaren hezkuntzan eta arretan**” (Proiektu zk.: 2023-1-ES01-KA220-SCH-000153355) proiektuaren eremuan egin da. Argitalpen honek egileen iritziak baino ez ditu islatzen, eta Batzordeak ez du bere gain hartzen bertan jasotako informazioa erabiltzearen erantzukizuna.

SUSIEE projektuko kide diren antolakundeak

- Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU): www.ehu.eus
- Haurreskolak Partzuergoa: www.haurreskolak.eus
- La Xixa: www.laxixa.org
- CESIE ETS: www.cesie.org
- Associazione di promozione sociale Naturalmente: www.facebook.com/people/La-Piccola-Casa-nel-Bosco-crescere-in-natura
- Partners Hungary Foundation: www.partnershungary.hu
- United Nurseries of Józsefváros: www.bolcsode-bp08.hu

Argitalpen hau Creative Commons lizentziapean dago.



EDUKIEN TAULA



Hitzaurrea

1. Kapitulua

LHHaren praktika jasagarria eta kulturartekoak 0-3 urte bitarteko haurrentzat 7

Sarrera	8
Italia	9
<i>Bertako Praktikak</i>	10
Hezkuntza emozionala	10
Birziklapena eta natura	12
5 zentzumenak	14
<i>Kide ez den herrialde europar bateko praktikak</i>	16
Basoko haurtzaindegia Ikuspegi multikulturala (Danimarka)	16
Hasiera ona denontzat Good Start for All (Txekiako Errepublika)	18
La Traversine (Frantzia)	20
<i>Europaz kanpoko praktikak</i>	22
Pasaportedun bidaiariak (Estatu Batuak)	22
Kultura arteko RAISED eredua (Kanada)	24
Ingurumenaren jasagarritasun estrategia (Australia)	28
Hungaria	31
<i>Bertako Praktikak</i>	32
“Biztos Kezdet Gyermekház” (Sure Start Haur Zentroa) Hungarian	32
Txakurrekin lagundutako jarduera haurtzaindegian	36
Pertsona pampina metodologia Hungarian	40
<i>Kide ez den herrialde europar bateko praktikak</i>	42
OMAMA - Eslovakia	42
Sure Start. Haur-pobreziaren aurka borrokatzeko programa ingelesa - Erresuma Batua	46
Madre Naturaleza - (Erasmus + proiektua): Erresuma Batua, Italia,	48
<i>Europaz kanpoko praktikak</i> Eslovenia, Hungaria	52
Kulturalki arduratsua den pedagogia - Zeelanda Berria	52
Head Start programa- Ameriketako Estatu Batuak	56
Suzuki metodoa- Japonia	58
Espainia	61
<i>Bertako Praktikak</i>	62
EIEL (Escuela Infantil de Entidades Locales) - Ses Païsses: “Sembrando semillas en un ambiente ecosostenible con todas las fortalezas de la comunidad educativa” 64 Escuelas hacia la sostenibilidad en RED (ESenRED)	66
Euskara eta kulturartekotasuna gure hirian	68
<i>Kide ez den herrialde europar bateko praktikak</i>	70
“KOALA” proiektua: Polonia, Zipre, Grezia, Belgika eta Ipar Mazedoniako Errepublika	70
Proiektua: Nire eskola ideala; nahiko nukeen eskola - Italia	72
“A GOOD START” - Eslovakia, Hungaria, Mazedonia, Errumania, Espainia	74
<i>Europaz kanpoko praktikak</i>	78
Buenos Aires probintziako Mercedes hiriko	76
Estatuko kudeaketa publikoko haurtzaindegia	76

EDUKIEN TAULA



Te Whāriki/He whāriki mātauranga mō ngā mokopuna o Aotearoa	78
Lehen haurtzaroko curriculum- Zeelanda Berria	78
Lehen haurtzaroko esku-hartzeen funtsezko alderdiak. Jasagarritasuneko prozesuak. Lehen Haurtzaroaren Arreta-Programa REEA (Peru)	80

2. Kapitulua

LHHaren legegintza-testuingurua eta curriculum-egiturak 0-3 urteko haurrentzat eta gomendio politikoak.

Sarrera	84
Italia	85
<i>Lehen atala: Legegintza-testuinguruaren analisisa</i>	86
Sarbidea	86
Langileak	90
Gobernantza eta finantzaketa	94
<i>Bigarren atala: Curriculum-egituren eta programen analisisa</i>	96
Curriculum	96
Ebaluazioa eta jarraipena	100
<i>Hirugarren atala: Gomendio politikoak</i>	102
Hungaria	105
<i>Lehen atala: Legegintza-testuinguruaren analisisa</i>	106
Sarbidea	106
Langileak	110
Gobernantza eta finantzaketa	112
<i>Bigarren atala: Curriculum-egituren eta programen analisisa</i>	114
Curriculum	114
Ebaluazioa eta jarraipena	116
<i>Hirugarren atala: Gomendio politikoak</i>	117
Espainia	119
<i>Lehen atala: Legegintza-testuinguruaren analisisa</i>	120
Sarbidea	120
Langileak	122
Gobernantza eta finantzaketa	126
<i>Bigarren atala: Curriculum-egituren eta programen analisisa</i>	130
Curriculum	130
Ebaluazioa eta jarraipena	136
<i>Hirugarren atala: Gomendio politikoak</i>	142
Ondorioa	144
Bibliografia	145
Kide diren entitateei buruzko informazioa	151

Hitzaurrea



Etengabe aldatzen ari den mundu batean bizi gara, non mugikortasun soziala eta geografikoa gero eta handiagoa den. **Kulturartekotasuna eta jasangarritasuna** bezalako kontzeptuak askotan aipatzen dira komunikabideetan eta hezkuntza-erakundeen dokumentu ofizialetan, baina gai zabal horiek ez dira beti erabat ulertzen. Etniari eta kulturari dagokionez askotarikoak diren gizarteek kulturarteko hezkuntza behar dute **jasangarritasuna, parekotasuna, bakea eta gizarte-kohesioa** lortzeko baliabide estrategiko gisa.

Lehen Haurtzaroaren Hezkuntza eta Arretaren (LHHA) ikerketa gero eta gehiago oinarritzen da jasangarritasunaren definizioa zabaltzean eta haren aplikazio praktikoak arakatzean. Praktika horiek eskola-curriculumetan txertatzen egindako aurrerapenak gorabehera, **Italiako, Hungariako eta Espainiako hezkuntza-testuinguru azterketek** agerian utzi dute LHHAk oraindik ez duela baliabide askorik kulturartekotasunari eta jasangarritasunari dagokienez.

LHHAren premia komun horiei heltzeko, **"SUSIEE: Jasangarritasuna eta kulturartekotasuna 0-3 urteko lehen haurtzaroaren hezkuntzan eta arretan"** (Proiektu zk.: 2023-1-ES01-KA220-SCH-000153355) proiektuak **EBren egungo kalitate-esparrua berrikusi nahi du 0-3 urte bitarteko LHHAra, jasangarritasunaren (GreenComp) eta kulturartekotasunaren ikuspegitik**. Hori dela eta, **gure Partzuergoak gida zehatz bat prestatu du, barne hartzen dituen 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako LHHAren kontzeptualizazioak eta praktika jasangarri eta kulturartekoen aukeraketa**. Gidak, era berean, 0 eta 3 urte bitarteko LHHAren legegintza-testuinguruaren eta curriculum-egituren/programen edukiaren azterketa xehatua jasoko du, herrialde kide bakoitzeko jasangarritasuneko eta kulturarteko ikuspegi batetik. Gainera, **EBko Kalitate Esparruarekin bat etorritik kide diren herrialdeetan LHHA jasangarri eta kulturartekoa aplikatzeko gomendio politikoak adierazi** dira, sarbidea, langileak eta curriculumak bezalako alderdiak jorratuz.

Terminologia kontzeptualizatzean eta lehen haurtzaroko (0-3 urte) praktika jasangarri eta kulturartekoen azterketa teorikoa egitean, **etorkizuneko praktika egokietarako esparru bat ezarri nahi dugu egungo gizartearen eskaerei erantzuteko**. Herrialde kideetako testuinguru juridikoaren eta hezkuntzakoaren lege-analisiak **gure lana errealitate zehatzetara egokitzeko aukera emango digu, eta, horrela, kalitatezko gomendioak egingo ditugu hezkuntza jasangarritasunean eta kulturartekotasunean oinarritutako hezkuntza bihurtzeko**.

Gure ahaleginen emaitzak, gida eta gomendio politikoak barne, **zabal hedatuko dira LHHAko profesionalen, arduradun politikoaren eta komunitate akademikoaren artean**. Horrek zuzeneko eragina bermatuko du LHHAren egungo eta etorkizuneko eskaintzan, Europa osoan lehen haurtzarorako hezkuntza-ingurune inklusiboa eta jasangarria sustatuz.



1. Kapitulua

LHHAren praktika jasangarri eta kulturartekoak 0-3 urte bitarteko haurrentzat

Sarrera

Atal honetan, SUSIEE Partzuergoak mundu mailako ikerketa zabala egin du **lehen haurtzaroaren hezkuntzako eta arretako praktika jasangarri eta kulturartekoen egungo egoerari buruz**. Horretarako, hainbat praktika egoki bildu dira, LHHAren etorkizuna berregituratu eta eraikitzeko moduari dagokionez, muga berriak probatzen ari diren **ariketak, metodologiak, finantzaketa-aukerak eta proiektuak** ikertzeko.


Horretarako, ikerketa honela egituratu zen:

Herrialde kide bakoitzak praktika egokien hiru talde identifikatu eta hautatu zituen:

- Bertako 3 praktika
- Kide ez den herrialde bateko 3 praktika
- Europaz kanpoko 3 praktika

Ikerketa horren ondorioz, **guztira 27 praktika** hautatu ziren. Maila kualitatiboan, **proiektuko lantaldeak, oro har, bere aurrekariak eta ikuspuntuak erabili zituen identifikazio-prozesuan**. Hori funtsezko elementutzat hartu zen gure hezkuntza-erakundeek jarraitu ditzaketen adibideen kontakizun desberdina eta osatuagoa izateko, edo gure lurraldeetan dagoeneko presente dauden ekimenen garrantzia azpimarratzeko. Gainera, deskribatutako praktika batzuekin batera, aholkuak eta material-zerrendak gehitu ditugu haiekin esperimentatu nahi duten hezitzaileentzat.

Italia





Bertako Praktiak

Izenburua	Hezkuntza emozionala
Egilea/Iturria	APS NATURALMENTE
Aipua / URL	- Atlas of Emotions [webgunea]: https://atlasofemotions.org/ - Progetto Asilo Nido. <i>Emozioni. Idee per attività</i> (Emotions. Ideas for Activities). https://www.progettoasilonido.org/index.php/teoria-e-pratica-al-nido/progetto-educativo/programma-didattico/183-emozioni-idee-per-attivita - Save The Children (2023). Educare alle emozioni e ai sentimenti: 3 attività da fare a scuola (Emotional education: 3 activities to carry out in schools). Hemendik aterata: https://www.savethechildren.it/blog-notizie/educare-alle-emozioni-ai-sentimenti-3-attivita-da-fare-a-scuola

Data	2024
------	------

Sarrera Laburra

Emozioei buruz gauza asko jakin ez arren, gure hautuak eta bizi-kalitatea baldintzatzen dute. Paul Ekmanen **teoria neurokulturalen** oinarrituta, APS Naturalmente-k 0-3 urte bitarteko haurren emozioetan zeharreko bidaia bat garatu du, non, aldizka, emozio nagusiei (hala nola haserrea, poza, tristura, beldurra, nazka, gorrotoa eta harridura) lotutako irudiak eta aurpegi-adierazpenak ikertzen, bistaratzen eta erreproduzitzen diren.

Jarduera honen bidez, ez-hitzezko emozioen eraginpean jar daitezke haurrak bizitzako lehen urteetan. Besteon egoera emozionala maila unibertsalean eta hizkuntza-oztopoen gainetik ezagutzeko metodoa ere bada.

Bere teoria neurokulturalaren bidez, Paul Ekmanek emozio unibertsalen kontzeptua barneratzen du. Sentimendu batzuetatik datozen aurpegi-adierazpen batzuk unibertsalki antzeman daitezkeela baieztatzen du. Hala ere, teoria neurokulturalaren arabera, emozio unibertsalez gain, "erakuste-arauak" ere badaude. Erakuste-arauak emozioak adierazteko moduen arau sozialak dira eta faktore kulturalen ondorioz, aurpegi-adierazpenen aldaketak zehazten dituzte, testuinguru edo egoera jakin batean onargarria denaren arabera.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Nola egiten da 0-3 urte bitarteko haurrentzat emozioen hezkuntza-proiektu bat?

Aurreikusitako jarduerak ibilbide introspektiboa bultzatzen dute, 7 emozio primarioak ezagutzeko helburuarekin.

Ariketak emozioaren aurkezpenarekin hasten dira beti, liburu ilustratuaren laguntzarekin.

Ondoren, hezitzaileak ozen irakurriko du, haurrek emozioekin lotutako informazio teorikoa jaso dezaten, une horretan nahiaez sentitzen ari ez badira ere.

Iraupena: Aste 1

Ondoren, liburuaren bidez aurkeztutako emozioa aurpegi-adierazpenen bidez erreproduzitu behar da. Horretarako, hainbat etniatako pertsonen irudiak bilatu beharko dira aurpegi-adierazpen hori dutelarik, era horretan, haurrei emozioen unibertsaltasuna erakusteko.

Iraupena: Aste 1

Ondoren, liburuaren bidez aurkeztutako emozioa aurpegi-adierazpenen bidez erreproduzitu behar da. Horretarako, hainbat etniatako pertsonen irudiak bilatu beharko dira aurpegi-adierazpen hori dutelarik, era horretan, haurrei emozioen unibertsaltasuna erakusteko.

Iraupena: Aste 1

Ziklo hau emozio primario bakoitzarekin errepikatuko da, ziklo bakoitzeko hilabete oso bat erabiliz.

Beharrezko materiala	Jarduerak egiteko material hauek beharko dira: - Kamera digitala - Proiektorea - Emozioei buruzko liburu ilustratuak 0-3 urte bitarteko haurrentzat - Koloretako kartoia - Paper-gauzak (kola, papera, arkatzak, guraizeak)
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	Hezitzaileei iradokitzen zaie poliki-poliki jardun dezatela, haur bakoitzak bere puntu fokala autonomoki aurki dezan. Jarduerak aire zabalean egitea ere zinez gomendatzen da.

Izenburua	Birziklapena eta natura
Egilea/Iturria	APS NATURALMENTE
Aipua / URL	- Naturarte (2017). Naturarte 1: <i>un percorso alla scoperta dei colori naturali (NatureArt 1: kolore naturalen aurkikuntzarako bidea)</i>. Hemendik aterata: https://percorsiformativi06.it/naturarte-un-percorso-alla-scoperta-dei-colori-naturali/ - Zerosei Planet (2020). <i>Colori Naturali da frutta e verdura (Fruta eta barazkien kolore naturalak)</i>. Hemendik aterata: https://www.zeroseiplanet.it/colori-naturali-di-frutta-e-verdura/
Data	2024

Sarrera Laburra

Jarduera honek birziklatzearen garrantzia erakutsi nahi die haurrei, ingurumena errespetatzen duten tresna jasangarriak eginez, hala nola irinarekin egindako kola, pintzelak eta kolore naturalak. 0 eta 3 urte bitarteko haurrak naturarekin harremanetan jartzeko eta mundua esperientzia praktikoen bidez esploratzeko modu emankorra izan daiteke.

Jardueren izateko arrazoia honako hauetan topatzen da: eskuzko abilezia garatzea, trebetasunak naturan, hainbat material mota manipulatzeko gaitasuna, baita haiek eta haien osaera eta tenperaturak ezagutzeko gaitasuna ere. Kontaktu mota horrek prozesu neuronalak aktibatzen ditu, haurrek beren burua, gainerako pertsonak eta ingurunea ezagutzeko aukera emanez.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Deskribatutako jarduerak kola organikoa, koloreak eta pintzelak sortzea eskatzen dute. Esperientzia honek haurren autonomia eta sormena garatzen laguntzen du naturan. Hainbat material manipulatzek eta oratzeak haurren tentsioa askatzen lagun dezake, baita materialaren konposizioarekin ohitzen ere, pisuari, koloreari eta testurari dagokienez. Funtsezko elementuak dira birziklatzearen eta elementu naturalak balorizatzearen kontzeptua sartzeko.

Gainera, materialak egin ondoren, sormen-jardueretarako ere erabili ahal izango dira, hala nola ilustraziorako, gorputz-pinturarako, collageetarako eta abarretarako.

Beharrezko materiala	Pintzel naturalak egiteko beharrezkoa da: Parke edo baso batera irten eta adar txikiak, loreak eta hostoak hartzea. Adarrek pintzelaren heldulekua osatzen duten bitartean, adarrari lotutako hosto eta loreak zurdak izango dira. Kola naturala egiteko beharrezkoa da izatea: - Irina - Ura - Kaiku bat - Zartailu bat Osagai guztiak dituzunean, ontza bat irin eta bi baso ur isuri beharko dituzu kaikura. Ziurtatu pikorrik utzi gabe nahasten dituzula.
----------------------	---

Beharrezko materiala	Kola naturala 3-4 egunez kontserba daiteke tapadun ontzietan. Kolore naturalak egiteko, frutak, barazkiak edo espeziak irakiten hasi behar da. Adibidez: - Marroia kafearekin edo kakao-hautsarekin egin daiteke - Laranja azenarioekin - Horia kurkumarekin eta azafraiarekin - Berdea espinakekin eta aza berdearekin - Morea baiekin - Gorria arbiekin edo tipulekin (gainera, limoi tanta batzuekin kolore arrosa bizia lor daiteke, eta legami-hautsa gehituz gero, berriz, urdina).
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	Kola naturala eta pintzelak haurren laguntzarekin bakarrik fabrikatu daitezke. Kolore naturalek, ordea, hezitzaileen prestakuntza eskatzen dute (batez ere materialak irakitean).

Izenburua	5 zentzumenak
Egilea/Iturria	APS NATURALMENTE
Aipua / URL	Método Montessori (2020). <i>Attività musicali per bambini: come il metodo Montessori insegna la musica ai bambini</i> (Haurrentzako musika-jarduerak: Montessori metodoak nola irakasten dien musika hurrei). Hemendik aterata: https://www.metodomontessori.it/attivita-montessori/principi-alleducazione/attivita-musicali-per-bambini
Data	2024

Sarrera Laburra

Jarduera honetan ibilbide sentsozialak eta laborategiak sortzen dira, 5 zentzumenak ezagutu, erabili eta ulertzeko. Proposatutako jarduerak elementu naturalak dituzten esperientziak izango dira eta 5 ikaskuntza-ziklotan banatuko dira, bakoitza zentzumen bati lotutakoa (ukimena, usaimena, ikusmena, dastamena, entzumenena).

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

- UKIMENA:** Ziklo honetarako, aire zabaleko ukimen-esperientziak baloratuko dira. Helburua da "ukimenaren" garrantzia ezagutzea, hari lotutako sentazioak (beroa, hotza, gogorra, biguna, leuna, zakarra, etab.) ere bai, forma eta material ezberdinak bereizteko gaitasuna, lurrarekiko lotura eratzen den bitartean taldean lan egiteko gai izatea eta begia/eskua koordinazioa garatzea.
- USAIMENA:** Ziklo honetarako, bizipenezko ibiltokiak eta laborategiak egongo dira, non, naturaren usainak erabiliz, haurrak zentzumen hori garatu eta ezagutu ahal izango duen. Jarduerak aire zabalean egiteko pentsatuta daude, elementu naturalak eta landare usaintsuak erabiliz. Hauek dira helburuak: usainak bereizteko eta deskribatzeko gaitasuna izatea, lurrinei buruzko ezagutzak sistematizatzea, usaimena zorroztea eta landareak zentzumen hori bakarrik erabiltzea antzematea.
- IKUSMENA:** Ziklo honetarako, aire zabaleko bizipenezko ibiltokiak eta laborategiak egongo dira, non, ispiluak, kolore-paletak eta argi-trikimailuak erabiliz, gara daitezkeen gaitasuna ikusmen-sakonerari ikusi eta hari ohitzeko, desberdintasun kromatikoak antzemateko eta abar.
- DASTAMENA:** Ziklo honetan ibilbideak eta laborategiak egongo dira eta, horien bidez, hurrek lau zapora nagusiak (gozoa, gazia, mikatza, garratza) ezagutuko dituzte, munduko hainbat tokitako elikagaiak probatuz. Helburuak dira dastamena garatzea, tokiko eta hainbat herrialdeetako janaria ezagutzea, eta dastamenari lotutako emozioak ere kontzeptualizatzea.
- ENTZUMENA:** Ziklo honetarako, aire zabaleko bizipenezko ibiltokiak eta laborategiak egongo dira, entzumenak garatzeko eta soinuak ezagutzeko. Kasu honetan, entzumen-ibiltoki sentsozialak sortzen dira, oineko kanpai txikiak erabiliz, soinu terapiaren lehen hurbilketa bat izateko. Horri esker, haurrak erlaxatuta egon daitezke naturan, soinua, bibrazioa eta sortzen diren sentazioak ezagutzen hasten diren bitartean. Hauek dira helburuak: entzuteko gaitasuna indartzea, zarata eta soinua bereiztea, entzumenak zorroztea eta soinuen kalitatea errekonozitzea.

Beharrezko materiala	Ukimenerako: leun edo zimur sentitzen diren oholak, bero, hotz, gogor edo bigun sentitzen diren objektuak. Halaber, erabili hostoak, lurra, errautsa eta belarra oinazpiarekin elementu horiek senti daitezkeen bideak sortzeko.
----------------------	--

Beharrezko materiala	- Usaimenarentzat: Landare usaintsuak, loreak, belarra. - Ikusmenarentzat: Ispiluak, koloretako taulak, argi-trikimailuak. - Dastamenarentzat: Bertako eta nazioarteko janaria (betiere kontuan hartuz egon litezkeen alergia edo intolerantziak). - Entzumenarentzat: Oineko kanpaiak, musika-tresnak (hobe hari- edo perkusio-instrumentuak badira).
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	5 zentzumenen garapen-prozesuak jardueren etengabeko errepikapena barne hartzen du. Komeni da beti hasieran azalpen bat ematea, ondoren hezitzaile batek erakustaldi bat egitea eta, jarraian, haurrari jarduera egiten laguntzea.



Kide ez den herrialde europar bateko praktikak

Izenburua	Basoko haurtzaindegia Ikuspegi multikulturala (Danimarka)
Egilea/Iturria	Samantha Leder, Natural Start Alliance
Aipua / URL	Leder S.(2018). <i>Basoko haurtzaindegia Ikuspegi Multikulturala</i>. Hasiera naturalerako aliantza. Hemendik aterata: https://naturalstart.org/feature-stories/forest-kindergartens-multicultural-perspective
Data	2018

Sarrera Laburra

Praktika hau Danimarkako hezkuntza-sistemearekin izandako esperientziaren kontakizuna da, Samantha Leder Kopenhagen haurren garapena aztertu zuen irakasle estatubatuarrak egina. Zehazki, basoko haurtzaindegi batean egin zituen praktika batzuen bidez, Danimarkako kultura eta pedagogia nola garatzen diren ikusi ahal izan zuen, eta ulertu zuen, halaber, Danimarkako eskolek nola errespetatzen duten desberdintasuna, nola sustatzen duten autonomia eta fidatzen diren haurrek berek zuzenduko dutela beren ikaskuntza, bereziki arrisku-jokoaren bidez.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Eskandinaviako herrialdeetan, haur-hezkuntza sakon errotuta dago "haurraren zentratzearen" kontzeptuan. Filosofia horrek haur bakoitzaren nortasuna, izaera eta garapen-ibilbidea aintzatestea eta balioestea azpimarratzen du. Irakasleek desberdintasun indibidual horietara egokituko den ingurune bat sortzeko zeregina dute, bi eta bost urte bitarteko haurrak elkarrekin nahastu, elkarrekin eta batera jolastu ahal dezaten, batez ere aire zabalean. Hezitzaileek kontuan hartzen dituzte haur bakoitzaren garapen emozional, sozial eta kognitiboaren etapak, sentikorrak dira desberdintasun horiekiko, haur bakoitzaren potentziala onartzen dute eta gidatu egiten dituzte erronkei aire zabalean jolastuz aurre egiteko.

Ikuspegi horren adibide ona da basoko haurtzaindegietan ikusten den kontrol-puntuaren sistema. Naturan zeharreko ibilaldietan, pedagogoez aurretik zehaztutako kontrol-puntuak finkatzen dituzte ibiltokian zehar, "X" bat duten zuhaitzek, banku batek edo erreferentzia-puntu natural batek markatuta. Haurrek askatasuna dute kontrol-puntu bakoitzera doazenean esprintatzeko, ibiltzeko edo jauzi egiteko, baina talde osoari itxaron behar diote hurrengora igaro aurretik. Sistema horri esker, haur bakoitzak bere bidaiaz goza dezake eta ingurunea bere erritmoan beha dezake, ingurune inklusiboa sortzeko dituen abiadura, behar eta gaitasun desberdinak kontuan hartuta.

Haur-garapeneko eskoletan maiz eztabaidatzen da "**Haurtzaro Onaren**" ideia. Kontzeptu horrek azpimarratzen du haurtzaroa garapen-fase bat dela, eta bertan, haur bakoitza bere erritmoan heltzera animatzen da. Filosofia horren arabera, Danimarkako haurrei helduengandik independizatzeko eta haien autonomia garatzeko denbora, espazioa eta aukera eskaintzen zaie. Basoko haurtzaindegietan, independentzia hori sustatzeko, haurrak animatzen dituzte aire zabaleran ateratzeko bakarrik janztera, beren jolasak eraikitzea eta zuhaitzetara igotzea helduen laguntzarik gabe. Independentzia hori funtsezkoa da norberarengan konfiantza eta autoestimua garatzeko.

Eskandinaviako herrialdeek haurtzaroa denboraldi beneratutzat eta nostalgikotzat dute, zeina ez den presaka ibiltzekoa, besarkatzekoa baizik. Horregatik, haurrak beren gaztetasunaz gozatzera animatzen dira eta jolasa eta jakin-min naturala ikasteko modu gisa balioestera. Ebaluazio estandarizatuaren presiorik gabe, Danimarkako haurrek beren erritmoan ikasten dute hezkuntza-ingurune erlaxatu eta ez oso egituratueta. Danimarkako basoko haurtzaindegietan, egituratu gabeko jolasa azpimarratzen da, baita jolas sortaile eta interaktiboaren bidez ikaskideekin sozializatzea ere. Elkarrekintza sozial horiek haurrei gainerako pertsonekin komunikatzen eta harremanak izaten ikasten laguntzen diete.

Danimarkako haurrek beren askatasuna eta irudimena erabiltzen dituzte espazioak eraldatzeko eta ikuspegi ezberdinekin esperimentatzeko. Beren buruak animalia gisa irudika ditzakete beren habitata esploratzen, krokodilo gisa ehizan, tximino gisa adarretan zabuka edo maitagarri gisa buztinezko edabe magikoak prestatzen. Curriculumeko malgutasun hori eta ikaskuntza etengabe aldatzen ari den aire zabaleko testuinguru batera egokitzeko askatasuna Danimarkako eskolaurreko basoko ikastetxeen ezaugarri bereizgarriak dira. Norberak zuzendutako jolasaren bidez, haurrek beren jolas eta irudimenezko munduak diseinatzen dituzte, eraikitzeko, ikertzeko eta irudikatzen berezko senari jarraituz. Ezagutzak eraiki, zalantza jarri eta adierazten dituzte ideia esanguratsuak barneratu arte, eta gero berriz hasten dira. Aire zabaleko espazioek eta aukera naturalek jolasteko eta ikasteko aukera mugagabeak eskaintzen dituzte.

Arrisku-jokoetan parte hartzea esplorazio-modu naturala da haurtzarotzat, eta haien ingurunea esperimentatzea eta ulertzea ahalbidetzen die. Jolas mota hau, aldi berean, zirrargarria eta balioezina da haien garapenerako; izan ere, haurrek arrisku potentzialak onartzen dituzte, baina beren buruari desafio egitea, beren senean konfiantza izatea eta beren gaitasunez jabetzea aukeratzen dute. Danimarkako pedagogoez arrisku-jokorako aukera zabalak eskaintzen dituzte, hala nola eroritako zuhaitzen gainean orekan ibiltzea, muino aldapatsuetan korrika egitea edo aizto txikiekin adartxoak zizelkatzea. Konpromiso horrek aukera ematen die haurrei beren buruarengan konfiantza, adorea eta erresilientzia garatzeko, beren konfort-zonatik kanpo segurtasunez ausartzen diren heinean.

Beharrezko materiala	Ez da aparteko materialik behar
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	-

Izenburua	Hasiera ona denontzat (Good Start)(Txekiako Errepublika)
Egilea/Iturria	Schola Empirica, Txekiako Errepublika
Aipua / URL	- BE-CHILD proiektua (eskolaurreko hezkuntzari buruzko proiektu europarra), "Ejemplos de buenas prácticas de cada país" - BE-CHILD proiektua [webgunea]: https://bechild.hi.is/ - Schola Empirica [webgunea]: https://www.scholaempirica.org/en/methodologies/good-start/
Data	2011

Sarrera Laburra

"*Hasiera ona denontzat*" ekimenak hezkuntza informaleko inguruneen, eskolaurreko ikastetxeen eta gizarte-zerbitzuetako antolakundeen arteko lankidetzara sustatu nahi du, ingurune sozial behartsuetako edo kulturalki desberdinetako haurren inklusioa bultzatzeko. Ekimen honek haurren garapen soziala eta emozionala hobetzeko metodoak eta estrategiak eskaintzen dizkie hezitzaileei. Estrategia horiek ingurune sozial guztietan aplikatzea da helburua, entitate garrantzitsuen sare bat sortuz. Txekiako Errepublikan, Good Start metodologiak erakutsi du eraginkorra dela haurren autoestimua indartzeko, haien autonomia sustatzeko eta ikaskideekin harremanak sortzen laguntzeko.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

"*Hasiera ona: Eskolaurreko adinean dauden haurren garapen sozial eta emozionalerako laguntza*" irakasleen prestakuntza-programa Estatu Batuetan garatutako Incredible Years programaren egokitzapen txekiarra da. Ekimen honen helburua da eskolaurreko ikastetxeetako hezitzaileei metodologia eraginkorrak ematea egoera babesgabeen dauden haurrei gaitasun sozial eta emozionalak garatzen laguntzeko. Programaren estrategiek honako hauek biltzen dituzte: irakasleen, familien eta haurren arteko harreman positiboak eraikitzea, haurrei banakako arreta eta iruzkin positiboak ematea, familiak inplikatzeko iruzkinen eta parte-hartzearen bidez, eta komunikazioa oro har erraztea.

Azken helburua haurrak prestatzea da beren buruarengan konfiantza handiarekin, emozioak erregulatzeko estrategiekin, arazoak konpontzeko gaitasunarekin eta etorkizuneko hezkuntzarako funtsezko beste ezaugarri batzuekin. Gainera, programak babes-sare integral bat sortu nahi du, dagozkion gizarte-entitate guztiak konektatuko dituen, hala nola eskolaurreko ikastetxeak eta familiak, haurrentzat garapen osasungarriko ingurune bat ezartzeko. Sare horrek hezkuntza-erakunde formalak eta informalak hartzen ditu barne, eskolaurretik lehen hezkuntzarako trantsizio arina bermatzeko. Schola Empirica-k Hasiera Ona metodologia barneratu zuen Txekiako eskolaurreko ikastetxeetan 2011n. Ordutik, 2000 irakasle baino gehiago trebatu dira, eta metodoak Txekiako Errepublika osoko eskolaurreko 250 ikastetxetan baino gehiagotan aplikatzen dira. Barneratze orokor honek programak haur txikien garapen sozial eta emozionala sustatzeko duen arrakasta azpimarratzen du.

Hasiera ona denontzat programak (GSA ingelesez) hainbat jardunbide egoki ditu haurrei oinarritzko trebetasun sozio-emozionalak garatzen laguntzeko. **Estrategia giltzarriek honako hauek biltzen dituzte:**

- **Autokudeaketaren irakaskuntza:** Haurrek beren emozioak teknika sinpleen bidez kudeatzen ikasten dute, besteak beste hiru aldiz sakon arnastuz eta tentsio-egoeran eta erlaxatuta egotearen arteko aldea ulertuz.

- **Indargarri positiboa:** Ekintza positiboak goraipatzeak eta negatiboak entzungor egiteak erakutsi du eraginkorra dela jokabide ez desiragarriak birbideratzeko orduan.
- **Sari-sistema:** Feedback positiboak eta pegatina bidezko sariak portaera ona errepikatzea sustatzen dute.
- **Irakaskuntza-metodo berritzaileak:** Irakaskuntza-metodo berriak sartzeak jatorri desberdinetako haurren arteko desberdintasun kulturalak salbatzen laguntzen du.

Programaren abantailak

- **Haurrentzat:** Goi-mailako hezkuntzara erraz igarotzeko eta etorkizuneko erronkei arrakastaz aurre egiteko beharrezkoak diren gaitasun sozio-emozionalak eskuratzen dituzte.
- **Irakasleentzat:** Haurren garapen sozio-emozionalari laguntzeko metodo eta estrategia eraginkorrak eskuratzen dituzte, gaitasun profesionalak hobetuz.
- **Hezkuntza-erakundeentzat:** Proiektu honek sustatzen du askotariko erakunde, kultura eta herrialdetan ikaskuntza-ingurune eraginkorrak sortzea, hezkuntzaren ikuspegi kohesiboa bultzatuz.

Praktika horiek aplikatzearen bidez, GSA programak bermatzen du haurrentzat, irakasleentzat eta ikastetxeentzat onuragarria izango dela, eta ikaskuntza-komunitate inklusiboagoak eta solidarioagoak sortuko direla.

Beharrezko materiala	"Materialak eta tresna metodologikoak" atalean, praktikaren sortzaileak erabil litezkeen materialen berri ematen du: https://www.scholaempirica.org/en/methodologies/good-start/main-principles/
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	Arreta ipini: Irakasleek ikuspegi indibidualizatua eduki behar dute haur bakoitzarentzat, portaera desiragarriari erreparatuz eta horiek sarituz, eta, aldi berean, arbuigarriak alde batera utziz berariaz. Metodo honek ekintza positiboak indartzea bermatzen du, eta haurrak ekintza horiek egiten jarraitzea animatzen ditu. Egoeraren arabera ikaskuntza: Irakasleek aktiboki erantzun behar diote ikasgelako dinamikari eta haurrei lagundu behar diete beren ekintzen kausak eta ondorioak ulertzen, txotxongiloekin dramatizazioak eginez. Metodo interaktibo horrek haurren interesa bereganatzen du, eta galderak eginez eta txotxongiloekin-lagunekin elkarriketarako izaten gozatzen dute, ikasteko prozesua dibertigarria eta esanguratsua bihurtuz. Ikaskuntza sozial espontaneo - Imitazio naturalaren printzipioa: Irakasleek portaera eta ekintza desiragarriak modelatzen dituzte, bai beren jokabide propioaren bidez, bai beste haur batzuek erakutsitako portaera positiboak nabarmenduz. Printzipio horrek haurrek berez duten ingurukoak imitatze joera aprobetxatzen du, eta ingurune bat sustatzen du, non portaera positiboak etengabe indartzen diren.

Izenburua	La Traversine (Frantzia)
Egilea/Iturria	Transgardens
Aipua / URL	Transgardens [webgunea]: https://transjardins.org/la-traversine-garden-paris-france/
Data	2017 - aribidean
Sarrera Laburra	

La Traversine 2017an Parisko 12. arrondizamenduko Bercy ikastetxeko zabaltzan sortutako **hezkuntza-baratze** berritzaile bat da. Hasieran ebakuazio-pasabide gisa pentsatuta, terraza lore-baratze esperimental bihurtu du Designing Hope-ek, eta nekazaritza jasangarriko hainbat metodo integratu ditu, besteak beste, agroekologia eta permakultura. Proiektu hau "Parisculteurs" ekimenaren parte da, hiriko berdeguneak sustatzeko Parisko Udalak bultzatutako proiektu ekologikoen deialdia.

2020an, La Traversine lehen hezkuntzako jolastokira zabaldu zen eta, era horretan, La Traversine # 2 sortu zen. Handitze horrek are gehiago indartu ditu baratzearen hezkuntza- eta komunitate-alderdiak.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Traversine lore-baratzea ikaskuntza-jarduerak bertan egin daitezkeen hainbat espazio motaz osatuta dago:

Sarrailaren begiaren lore-baratzea: Lore-baratze biribil garai bat erdian konposta tontor batekin. Konpostaren mantenugaiak inguruko landareetara banatzen dira. Lore-baratzearen formak sarraila baten begiaren antza du eta hortik datorkio izena.

Mandalaren lore-baratzea: Zortzi parterre trapezoidal ditu eta mandaletan oinarritutako lore-patroi bat osatzen dute, permakulturako lore-baratzeetako elementu nagusia. Laboreak sasoiko barazkiak dira.

Maila anitzeko fruta-baratzea: Zurezko 11 elementu ditu, bakoitza 2 metro luze da eta baiak hazteko bi mailatan antolatuta daude.

Pergola: Haurrak elkartzeko gunea, landarez inguratua.

Intsektuentzako babeslekuak: Intsektuentzako hiru babeslekuak, terrazan, haurtzaindegiko jolastokian eta lehen hezkuntzako jolastokian.

La Traversineko espazio eta jarduera guztiak haurrak praktika jasangarrietan eta kulturarteko hartu-emanen hezteko eta partaide izateko pentsatuta daude. "Klase komunikatzaileak" programaren bidez, lore-baratzeak Parisko eta Burkina Fasoko, Hegoafrikako, Swazilandiako eta Senegalgo ikasleen arteko nazioarteko trukeak sustatzen ditu.

Jarduera giltzarriak:

Gaikako ikaskuntza: Gaien artean daude lurzorua osasuna, hazien ernetzea, landareen bizi-zikloak, konpostatzea, intsektu onuragarriak eta hazkuntza-metodoak.

Baliabideak erabiltzea: Haurrei hostoak, adarrak eta eskolako jantokiko janari-hondarrak konpostatzen irakastea, lore-baratzea ongarritzeko.

Etxeko lorezaintza: Haurrak etxean landatzera animatzea, emandako haziak edo landareak erabiliz, birziklatzea eta konpostatzea sustatuz.

Curriculumetik kanpoko konpromisoa:

Jolas-ikaskuntza: Eskolaz kanpoko orduetan ekintzak talde txikietan, hezkuntza-taldearekin lankidetzan.

Altxorren bila: Ikaskuntza dibertigarri bihurtzeko elkarteak diseinatu dituen jolas interaktiboak.

Duela gutxiko gertaerak:

2020ko irailean, baratzea lehen hezkuntzako eskolako jolastokira lekualdatu zen aldi baterako, teilatua iragazgaiztu ahal izateko. Lekualdatze horrek eskolaz kanpoko taldearen eta Designing Hopeko gizarte zerbitzuetako taldearen arteko lankidetzari indartu du. Jarduera hauen bitartez, La Traversinek ikasle gazteen artean jasangarritasuna eta kulturartekotasuna hobeto ulertzea sustatu nahi du, ingurumenaren administratzaile kontziente eta jakitun izateko prestatuz.

Beharrezko materiala	-
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	La Traversinaren beste jarduerak: Haurrek lore-baratzearen mantentze-lanak egitea: https://transjardins.org/maintenance-of-tomato-plants-in-the-traversine-bercy-garden-with-a-pupil-from-the-bercy-school/ Tresna pedagogikoak erabiltzea: https://transjardins.org/pedagogi-cal-tools-at-the-traversine-garden/



Europaz kanpoko praktikak

Izenburua	Pasaportedun bidaiariak (Estatu Batuak)
Egilea/Iturria	Diana Lee Santamaría, "Dleeren mundua" izeneko hezkuntza-liburuen egilea, zeinak alfabetatze elebiduna eta goiztiarra eta aniztasuna sustatzen dituen.
Aipua / URL	Dleeren mundua [webgunea]: https://www.dleesworld.com/about-dlees-world
Data	2017
Sarrera Laburra	

Jarduera honi esker, haurrak munduan zehar dabiltzan bidaiari bihurtzeko eta ikaskideen askotariko jatorriak ezagutu ditzakete. Beste kulturak eta bizimoduak ezagutzeko beti fisikoki bidaiatzea beharrezkoa ez dela dioen kontzeptuari buruzkoa da.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

1. Aurrekari kulturalen bilduma

Hasi zure gelako familiekin eta hurrekin hitz egiten, haien jatorriari eta haien garrantzitsuak diren tradizio kulturei buruzko informazioa biltzeko. Diana Lee Santamaría eskolaurreko irakaslea eta haurrentzako liburuen egileak gomendatzen du pauso hau, eta ikasgelan irudikatutako kulturak ulertzeko eta errespetatzeko oinarriak finkatzen laguntzen du.

2. Pasaporte kulturalak sortzea

Bultzatu haurrak beren pasaporteak sortzera hurrengo mundu birarako. Urtean zehar, ikasleak txandakatu egingo dira beren jatorrizko herrialdeari buruzko informazioa partekatzeke. Animatu haurrak osagarriak ekartzera, hala nola argazkiak, beren aperitibo gogokenak edo beren herrialdeko bandera. Klaseak herrialde berri bat "bisitatzen" duen bakoitzean, mundu guztiak pasaporte-zigilu berri bat irabaziko du.

3. Nola irakatsi aniztasuna

Jarduera honek laguntzen die ulertzen hurrei, ingurune desberdinetatik etorri arren, gauza komunak partekatzen dituztela eta aniztasunak haien bizitzak aberasten dituela. Santamariaren arabera, ondorengo ideia indartzen du: aniztasuna beren inguruan dagoela, baita beren ikasgela barruan ere.

4. Tradizio kulturalak janariaren bidez sartzeara

Janaria kultura askotako komunitatearen alderdi nagusia da, eta modu erakargarria izan daiteke haur txikiak hainbat tradizioetan sartzeko. Alison Kim Walker hezkuntza-aholkulariak eta Hummingbird Learning Group-en jabeak iradokitzen du gelako familiei eskatzea beren plater tradizional gogokenak partekatzeke. Gehitu haurrentzat ezezagunak izan daitezkeen herrialde ezberdinetako plater osasungarriak, hala nola guakamole freskoa, Bánh mì-a, etxeko hummusa pita-txipsekin edo naan-a curry suabearekin.

5. Nola irakatsi aniztasuna

Elikagai berriak probatzea kultura ezezagunetan sartzeko modu atsegina izan daiteke. Jarduera honi esker, hurrek sukaldaritza berriak dastatzen dituzte ingurune seguru eta lagungarri batean eta, aldi berean, aukera ematen die familiei beren elikadura-kultura pertsonala partekatzeke. Hurrei esperientzia berrien beldurra gaitzen laguntzen die, janariarena barne.

6. Agurrak hainbat hizkuntzatan ikastea

Gehitu ikasteko aukerak eguneroko errutinan, korroaren orduan hitzak eta esaldiak beste hizkuntza batzuetan esanez. Animatu haurrak lagunak beren hiztegi berriko hitzak erabiliz agurtzera. Praktika honek, elkar agurtzea dibertigarria bihurtzeaz gain, hizkuntzen ulermena eta balioespena aberasten ditu.

Jarduera horiek ikasgelan txertatzean, aniztasuna goraiatzeko duen, ulermena sustatzen duen eta ikasleen artean elkarrekikotasun globalaren sentimendua sortzen duen ingurune inklusiboa sortuko duzu.

7. Ahots ozenez irakurtzeko liburu elebidunak

Sartu ozen irakurtzeko liburu elebidunak gelako jardueretan. Liburu hauek haurrak hizkuntza berrietan modu dibertigarri eta erakargarrian sartzeko aukera eskaintzen dute.

Nola irakatsi aniztasuna: "Desberdintasun kulturalak ulertzeko lehen urratsetako bat da onartzea mundu guztiak ez duela hizkuntza bera hitz egiten", dio Carverrek. "Ariketa honen bidez, haurrak ulertzen hasten dira mundu osoko jendeak dituen modu desberdinak komunikatzeko, eta hizkuntza beste kultura batzuk ulertzeko zubi bat dela, ez hesi bat".

8. Kultura- eta erlijio-ospakizunak

Hurrei festa onak asko gustatzen zaie, eta mundu osoko kultura- eta erlijio-ospakizunak erakustea aniztasuna maitatzeko modu zoragarria da. Urtean zehar, ospakizun multikulturalak gehitu ditzakezu ikasgelan, hilabetero ospatzeko ekitaldi bat aukeratuz.

9. Liburuak eta online baliabideak gehitzea

Erabili liburuak eta online baliabideak hurrei ospakizun bakoitzaren garrantzia erakusteko. Gehitu musika eta artelan esanguratsuak ikaskuntza-esperientzian, erakargarriagoa izan dadin.

10. Ospakizunetarako sormen-proiektuak

Nahasi haurrak ospakizun horiekin lotutako sormen-proiektuetan. Adibidez, Hildakoen Egunerako beren paperezko burezurak apaindu ditzakete, linterna txinatarak eta txintxirrin-danborrak sortu Txinatar Urte Berrirako eta artaburu bat aletu Kwanzaa-rako.

Nola irakatsi aniztasuna: Kultura baten ospakizunek bere balio eta tradizioen errotuenak ezagutarazten dituzte. Hileroko ospakizun multikulturek ilusioz itxaroteko zerbait eskaintzen diete hurrei, eta, aldi berean, mundu osoko pertsonen familiarekin eta lagunekin nola ospatzen duten hobeto ulertzen laguntzen diete.

Beharrezko materiala	Egileak nazioarteko liburuak probatzea iradokitzen du, esaterako, Pam Muñoz Ryan-en <i>Hello Ocean / Hola Mar</i> (gaztelania), Linda Sue Park-en <i>Bee-bim Bop!</i> (koreera) eta <i>Am I Small?</i> Philipp Winterberg-ena (swahili).
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	Ikasgeletan ez badago era askotako ikasle-taldea, Santamariak Latrecia Brown-Johnsonen " <i>Aniztasun-zopa</i> " liburu moduko bat irakurtzea aholkatzen du.

Izenburua	Kulturen arteko RAISED eredu (Kanada)
Egilea/Iturria	Albertako Unibertsitatea
Aipua / URL	Albertako Unibertsitatea (2017). RAISED Between Cultures - Lehen urteetan kulturarteko praktikarako ezagutza- eta hausnarketa-gida. Edmonton, Alberta: Albertako Unibertsitatea. Hemendik aterata: https://www.ualberta.ca/community-university-partnership/media-library/community-university-partnership/resources/publications/finalraised-guidebook-08single-pages-2.pdf
Data	2017

Sarrera Laburra

Metodologia oinarritzen da Lehen haurtzaroaren ebaluazio eta ikaskuntza multikulturala (MECAL) izeneko proiektuaren bidez jasotako ideia giltzarrietan. Ekimen hau Albertako Unibertsitatearen eta lehen haurtzaroan interesa zuten hainbat alderdiren arteko lankidetzaren emaitza izan zen, hala nola komunitate-antolakundeak, etorkinei arreta emateko agentziak, gobernu-organismoak eta eskola-kontseiluak.

MECAL proiektuaren helburuak:

- Testuingurua eta garapenaren emaitzak ulertzea.
- Haur, familia etorkin eta errefuxiatuekin lan egiteko orduan faktore erabakigarriak identifikatzea, haien garapen-testuingurua eta emaitzak hobeto ulertzeko.
- Kulturarteko praktika bultzatzea.

Haur-hezkuntzan kulturarteko praktikak bultzatuko dituzten baliabideak garatzea. Ikuspegi honek bermatzen du haur guztiek partaide izatearen sentimendua izatea, gainerakoen kulturak ezagutzea eta bizitzan aurrerago gune multikulturaletan moldatzeko trebetasun goiztiarrak eskuratzea.

Kulturartekotasunetik lan eginez, MECAL proiektuak nabarmendu zuen hurrek aurrera egin ahal izateko ingurune inklusiboak sortzeak duen garrantzia. Lankidetzak kulturen arteko RAISED eredu garatzea ekarri zuen, printzipio horiek haur-hezkuntzako inguruneetan integratzeko diseinatutako esparrua. Eredu honek kultura-aniztasuna errespetatu eta ospatuko den ingurunea sustatzen laguntzen die hezitzaileei, azken batean haurren garapen sozial eta emozionalari mesede eginez.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Kulturen eta hizkuntzen artean haztea esperientzia komuna da haur etorkin eta errefuxiatu askorentzat.

Kulturen arteko RAISED ereduak hezitzaileak eta profesionalak animatzen ditu haurren jolasa, portaera, ikaskuntza eta garapena holistikoki ulertzera, haien gizarte-, kultura- eta migrazio-esperientzietan oinarrituta. Eredu honek sei maila ditu, eta horietako bakoitzak kontuan hartu beharreko faktore giltzarri bat nabarmentzen du hurrekin eta familia etorkin edo errefuxiatuekin lan egitean.

RAISED akronimoa koloreen bidez kodetuta dago ereduaren maila bakoitzarekin bat etortzeko, eta faktore horiek haurren emaitzetan kolektiboki eta banaka nola eragiten duten erakusten du.

Kultura ezagutaraztea: Kontzienteki edo ez, pertsona guztiak gara izaki kulturalak. Kulturak bizi-esperientzia komunean askotariko adierazpenak biltzen ditu, hala nola elkar agurtzea, haurrak hezte, heriotzak deitoratzea eta jaiotzak ospatzea. Haurren kulturaren alderdi batzuk agerikoak badira ere, esaterako, hizkuntza, arropa eta janaria, beste asko ez dira hain bistakoak. Horien artean daude haurren jolasa, haien elikadura-ohiturak, portaera sozialak, familiek lehen haurtzaroko garapenari, ebaluazioari eta osasunari buruz dituzten usteak, genero-espektatibak eta familiarekin eta lagunekin harremanak izateko moduak.

Migratu baino lehenagoko esperientziak ezagutzea: Familia etorkin eta errefuxiatu bakoitzak beren emigrazioaren aurretiko historia eta bidaia bakarra ditu. Familia batzuek gerragatik ihes egin behar izan zuten beren herrialdetik, eta bizirauteko modu latzean alde egin behar izan zuten; beste batzuek, berriz, zailtasun ekonomikoengatik edo hezkuntza-aukera hobeen bila alde egin zuten. Diferentzia horiek gorabehera, familia guztiek partekatzen dute hurrek etorkizun hobea izateko amets komuna.

Migratu osteko oztopo sistemikoak identifikatzea: Herrialde berri batean kokatzea prozesu luze eta estresagarria da, eta lehen urteak bereziki zailak dira iritsi berri diren familia askorentzat. Zailtasun hauei egin diezaiekete aurre: isolamendu soziala, diskriminazioa, pobrezia, hizkuntza-oztopoak eta bestelako oztopo sistemikoak. Oztopo sistemikoak sortzen dira sistemek (adibidez: osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak) familia guztien errealitate sozial, kultural eta linguistikoak kontuan hartzen ez dituzten praktikak, politikak eta prozedurak dituztenean, eta horrek eragotzi egiten du parte-hartze esanguratsua egotea eta programetarako eta zerbitzuetarako sarbide ekitatiboa.

Familiaren eta komunitatearen indarguneak babestea: Familia etorkinek eta errefuxiatuek haurren garapenean eragin positiboa izan dezaketen indargune ugari gehitzen dituzte. Indargune horiek, batzuetan "ezagutza-funts" deiturikoak, barnean hartzen dituzte erresilientzia, belaunaldiarteko sare sendoak, familia-harreman zabalak, itxaropena, hezkuntza-aspirazioak, komunitate etnokulturalaren babesa, kultura-aberastasuna eta elebitasuna/eleaniztasuna.

Inguruen arteko loturak ezartzea: Haur txiki etorkinak eta errefuxiatuak hainbat ingurunetan sozializatzen dira: etxean, ikasteko eta arreta goiztiarreko zentroetan, beren komunitate etnokulturean eta komunitatean oro har. Etxean eta ingurune etnokulturetan, hurrek beren familien herentzia kulturala sentitzen dute, eta nortasun kulturalaren sentimendua garatzen hasten dira. Ikaskuntza- eta arreta goiztiarreko inguruneetan eta komunitatean, oro har, Kanadako kultura esperientzatzen dute eta identitate bikulturala garatzen hasten dira.

Haurren emaitzak zehaztea familiekin: Etxean eta ikaskuntza- eta arreta-goiztiarreko inguruneetan dituzten esperientziek eragina dute haurren ikaskuntzaren eta garapenaren emaitzetan. Kultura anitzen artean hazten diren hurrentzat, lehen hizkuntza menderatzea, nortasun kulturala eta gaitasun sozial-kulturala esaterako ezinbestekoak dira beren garapen optimorako, eta laguntza behar dute. Kulturaren konplexutasuna eta familien errealitate desberdinak kontuan hartuta, haiekiko lankidetzak funtsezkoa da hurrentzat ikaskuntza- eta garapen-emaitzarik onenak eta laguntza emateko modurik eraginkorrenak zehazteko.

Sei maila horiek ulertu eta integratzean, hezitzaileek eta profesionalak hobeto erantzun diezaiekete haurren eta familia etorkin eta errefuxiatuen behar espezifikoak, haien garapenaren eta ongizatearen ikuspegi inklusiboagoa eta eraginkorragoa bermatuz.

Beharrezko materiala

-

**Hezitzaileentzat
oharrak eta
iradokizunak**

Atal honetan, RAISED eredia egoki erabiltzeko moduari buruzko iradokizunak eta gogoetak eskaintzen dira:

Testuinguru batean ezohikoak edo problematikoak diruditen eta kulturalki eragina jasaten duten portaerak eta ekintzak preziatuak, beharrezkoak eta esanguratsuak izan daitezke beste testuinguru batean. Jokabide horien azpian dauden eragin kulturalak sakonago ulertu gabe, suposizio okerrak egin daitezke. Kultura indibidualistek eta kolektibistek, adibidez, espektatiba desberdinak dituzte haurrek jarraitutasun batean zehar duten portaerari buruz. Kultura indibidualistetan, hala nola Kanadan, oso txikitatik irakasten zaizkie haur txikiei independentzia-trebetasunak (adibidez, koilara bat erabiltzen, zapatak edo berokia janzten). Beste kultura batzuetan, aldiz, lehen haurtzaroan interdependentzia eta trebetasun sozialak azpimarratzen dira, hala nola obediencia edo adinekoak agurtzea eta haiekiko errespetua, eta independentzia-trebetasunak geroago barneratzen dira.

Familiak herrialde berri batera joaten direnean, konfiantza dute emigratu baino lehenagoko ezagutzetan eta esperientzietan beren burua orientatzeko ikaskuntza eta arreta-goiztiarreko programetan edo lehen haurtzarorako beste zerbitzu batzuetan. Litekeena da herrialde berriko sistemak eta jatorrikoak desberdinak izatea. Adibidez, kultura batzuetan, irakasleen eta hezkuntza-sistemaren zeregina alfabetizazio- eta oinarritzko aritmetika-jarduerak sartzea da. Jatorri horietako familientzat nahasgarria izan daiteke jolasean oinarritutako ikaskuntza; izan ere, tradizionalki aisialdiko jardueratzat hartzen da, ikaskuntza-metodotzat baino gehiago.

Familiak eta haien haurrek ezbeharrei aurre egin ahal izan diete emigratu aurretik, batez ere gerraren ondorioz alde egin behar izan bazuten. Traumen eraginpean egondako haur txikiek portaeraren erantzun jakin batzuk erakutsi ditzakete, hala nola antsietatea zarata gogorrek entzutean. Gerragatik, familia-banantzeagatik edo emigratu aurretiko beste esperientzia batzuegatik traumak jasan dituzten haurrek zein familiek laguntza psikologiko gehigarria behar izan dezakete beren herrialde berrian.

Emigrazioaren ondorengo familia-testuingurua identifikatzeak erraztu egin dezake familiek aurre egin behar dieten eguneroko estres-faktoreak hobeto ulertzea, zeintzuk eragina duten familien nahiz haurren osasun mentalean eta ongizatean. Estres-faktore horiek eragina izan dezakete, halaber, familiek ikaskuntza goiztiarreko programetan parte hartzeari dagokionez eta haurrak etxetik arreta-zentroetara igartzeko orduan. Adibidez, sozialki isolatuta dauden familiek haien parekoekin oso gutxitan elkarreragiten duten haurrak izan ditzakete; hori dela eta, ikaskuntza-goiztiarren programak izaten dira parekoen artean duten lehen jolas-esperientzia egituratua.

Beren kultura-esperientziak aintzat hartzen ez dituzten sistema berrietan nabigatzeak eragin dezake familiak gainezka eta zalantzati sentitzea beren kezkak adierazterakoan. Ingelese apur bat hitz egiten duten familiek ere senti dezakete beren hizkuntza-ezagutza ez dela nahikoa, eta, horregatik, batzuetan ez dute nahi izaten hurrekin programako jardueretan parte hartu.

**Hezitzaileentzat
oharrak eta
iradokizunak**

Haurrek bi hizkuntza edo gehiago ikasteko gaitasuna dute laguntza eta estimulu egokiekin. Haur etorkin eta errefuxiatu asko ingelesa ez den beste hizkuntza bat edo hizkuntza gehigarri bat hitz egiten hazten dira. Hainbat hizkuntza hitz egiteak munduko ikuspegi desberdinak ematen dizkie haurrei. Arrakasta akademikorako eta gizarteratzeko ingelesa ikastea funtsezkoa den arren, lehen hizkuntzari eusteak ere onurak dakartza kulturen artean hazten diren haurren garapenerako.

Sozializazioaren bidez, haurrek mintzaira, trebetasun sozio-emozionalak eta nortasuna garatzen dituzte beren ingurune sozialean moldatzeko. Haur guztiek denbora behar dute pertsona, espektatiba eta errutina berrietara egokitzeko etxetik ikaskuntza- eta zaintza-goiztiarreko ingurunera igarotzen direnean. Haur etorkin eta errefuxiatuen kasuan, trantsizio horrek hizkuntza eta kultura berri bat ikastea ere ekar dezake. Haur horiek beren kultura eta jatorrizko hizkuntza ikaskuntza goiztiarreko inguruneetan islatuta eta baloratuta ikusten ez dituztenean, desberdinak sentitzen has daitezke, eta senti dezakete jatorrizko kulturak kultura nagusiak baino balio gutxiago duela.

Familia bakoitza bakarra da, eta beren kultura eta hizkuntza praktikatzan duten maila faktore ugariaren arabera alda daiteke. Kultura aldakorra da eta eboluzionatu egiten du familiak leku berrietara joan eta haurrak hazteko modu berriak hartzen dituzten heinean. Familien espektatibei eta esperientziei buruzko suposizioak egiteak, haien jatorrian edo hizkuntzan soilik oinarrituta, konklusio okerretara garamatza. Familiek, hezitzaileek eta zaintzaileek haur txikientzako ahalik eta etorkizun onena lortzea dute helburu nagusia. Jomuga hori lortzeak helburu komun alde lankidetzan aritzea eskatzen du. Abegikorra eta kulturalki harkorra izateko, familiek beren itxaropenak, ametsak eta kezkak partekatzeko aukerak sortu behar dira. Aukera horiek aintzat hartu behar dituzte emigrazioaren aurretik eta ondoren familiek dituzten errealitateak, eta esanguratsuak izan behar dira bai familientzat bai hezitzaileentzat. Konfiantza pixkanaka eraikitzen da familiarekin konektatuz eta babestuz, eta horrek haurren garapen optimorako laguntza-sare sendoago bat dakar.

Hausnartu zure ardurapean edo ikasgelan haur batekin lan egiteko edo ulertzeko zailtasunak izan dituzun uneren baten inguruan. Zer suposizio egin zenuen? Kontuan hartu al zenuen familiaren aurrekari kulturalen eragina edo emigrazioaren aurretiko esperientziak? Bazegoen ohartzen ez zinen oztopo sistemikorik edo zure kabuz ezabatzeko gai sentitzen ez zinenik? Nori galdetu diezaiokezu laguntzeko oztopo horietako batzuk ulertzen eta familia komunitatearen baliabideekin harremanetan jartzen (adibidez, familia-loturak, kulturarteko aholkulariak, finkapen-agentziak, kultura-eragileak)?

Izenburua	Ingurumenaren jasangarritasun estrategia (Australia)
Egilea/Iturria	Acacia Kindergarten / Hego Australiako Gobernua - Hezkuntza eta Haur Garapeneko Departamentua
Aipua / URL	Hego Australiako Gobernua - Hezkuntza eta Haur Garapeneko Departamentua (2014). Ingurumenaren jasangarritasun estrategia. 2016an berrikusia. Hemendik aterata: https://www.preschools.sa.gov.au/acacia-kindergarten/our-centre/things-to-know/acacia_environmental-sustainability.pdf
Data	2016

Sarrera Laburra

Acacia haurtzaindegia Mount Gambier iparraldeko muinoan dago. Natura eta ikaskuntza uztartzen dira bertan eta gela bizidun gisa baliatzen den leku paregabekoa da. Haurtzaindegiak guztiz bereganatu du kultura bat lehenesten dituen naturan jolastea, ingurumenaren heziketa eta haurren eta, oro har, komunitateko paisaiaren arteko lotura sakona sustatzea.

Ikuspegi holistikoa horren helburu nagusia ingurune bat sortzea da, non praktika jasangarriak irakasteaz gain, bizi egingo diren. Haurrak naturan murgiltzean, bizitza osorako ingurumena errespetatzen eta ulertzen irakatsi nahi zaie. Konpromiso hori haurrak baino haratago hedatzen da, hezitzaileak eta familiak barne hartuz, jasangarritasuna mundu guztiaren eguneroko errutinen eta, oro har, bizimoduaren zati bereizezin bihurtzen dela bermatuz.

Aire zabaleko hainbat jardueraren eta ingurumen-proiektuen bidez, haurrek kontserbazioaren garrantzia eta beren ekintzek inguratzen dituen munduan duten eragina ikasten dute. Hezitzaileek praktika jasangarriak moldatzen dituzte, konpostatzea eta birziklapena esaterako, baita kontsumo kontzientea eta energiaren erabilera ere. Familiak bidaia honetan parte hartzera animatzen dira, etxeko eta komunitateko ingurumen-kudeaketaren balioak indartuz.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Acacia haurtzaindegia parke baten antzeko ingurune batean dago, hurrei ikaskuntza natural, malgu eta estimulatzaileko ingurune bat eskaintzeko diseinatua. Ikuspegiak jasangarritasuna eta naturarekiko lotura sakona azpimarratzen ditu. Hona hemen nola txertatzen diren printzipio horiek eskolako eguneroko errutinan:

Aire zabalean ikastea eta jolastea

- Material naturalak eta birziklatuak:** Ahal den guztietan pieza birziklatuak eta deslaidak erabiltzen ditugu.
- Erantzukizuna haurtzaindegian:** Haurrek haurtzaindegia zaintzen dute eta aire zabalean egon daitezke denboraldi luzez egunero, edozein dela eguraldia.
- Praktika adimendunak eguzkiaren aurka:** Itzala ematen duten zuhaitz handiek, itzal-oihalek, itzalkinek, kapelek eta eguzkitarako arropa egokiek aire zabalean segurtasunez jolasteko aukera ematen dute udako hilabeteetan.

Barne-ikaskuntzako ingurunea

- Ikastea eragiten duten eremuak** Haurren pentsamendua handitzeko diseinatuak, material natural, ireki eta birziklatuekin.
- Eremu malguak:** Ikaskuntza kolaboratiboa eta esplorazioa babesten dute.
- Argi adimendunak:** Barnean instalatuta "Planetaren Ordua" izenekoarekin arratsaldero argiak itzaltzeko.

Airearen kalitatea: Barruko landareekin eta leiho irekiekin hobetzen da.

- Material berrerabilgarriak:** Beira eta toska erabiltzen dira plastikoaren eta poliestirenoaren ordez.

Komunitatearen parte hartzea

- Bertakoekin lankidetzak:** Udalarekin lankidetzan aritzea, jasangarritasunari buruzko laguntza eta informazioa lortzeko.
- Ekitaldiak eta ekimenak:** Komunitateko ekitaldietan parte hartzea, hala nola Australiako Garbiketaren Egunean, Zuhaitzaren Eguna Nazionalean, Harmoniaren Egunean eta Lokatzaren Nazioarteko Egunean.
- Tokiko erosketak:** Ondasunak tokiko enpresei erostea aztarna ekologikoa murrizteko.
- Ibilaldiak komunitatean:** Bizimodu aktiboa eta zerbaiten partaide izatearen sentsazioa sustatzea.
- Txangoak:** Aldizkako txangoak tokiko naturaguneetara, ingurumenarekiko errespetua eta jakin-mina sustatzeko

Praktika jasangarriak

- Lorezaintza:** Fruta-arbolak, belar eta barazkien baratzeak, oiloak, zizaretgi bat, iraulketa bidezko konpostaje-sistema bat eta ureztatze-beharrak murrizteko ongarria.
- Uraren kontserbazioa:** euri-uren hiru andel instalatuta; euri-ura aire zabaleko jolasetarako erabiltzen da, eta soberako ura barruko landareetarako.
- Energiaren kontserbazioa:** Argi adimendunak eta "Planetaren Ordua"-ren praktikak.
- Sukaldea:** Sukaldaritza esperientzia erregularrak baratze produktuarekin, elikadura osasuntsua sustatzeko.
- Garbiketa-produktu naturalak:** Hezitzaileek eginak eta erabiliak.
- Ura aurrezten duten komunak:** Haurrak deskarga osoko eta ertaineko sistemen erabilera irakastea.


Hondakinak murriztea eta birziklatzea

- Material berrerabilgarriak:** Familiak sormenezko proiektuetarako materialak eta jolasetarako pieza solteak ekartzen dituzte.
- Janari-hondarrak:** Oiloei eta zizareei ematen zaizkie
- Material birziklagarriak:** Birziklatzeko edukiontzietan jasotzen dira.
- Paper birziklatua:** Tokiko enpresa batek dohaintzan emana haurrentzako proiektuetarako.
- Janariarentzako ontziak:** Familiak janaria ontzi berrerabilgarrietan eramatera animatzen dira.

Praktika jasangarri horiek integratzean, Acacia haurtzaindegiak ingurumen-hezkuntzaren ikuspegi holistikoa babesten du, haurrak eta haien familiak beren komunitatearentzat zein planetarentzat onuragarriak diren ohitura jasangarriak hartzera animatuz.

Materiala	-
Hezitzaileentzat oharra eta iradokizunak	Jasangarriak izaten jarraitzeko, Acacia Haurtzaindegiko hezitzaileek beren metodoen etengabeko bilakaera proposatzen dute. Puntu hauek erabilgarriak izan daitezke denboraren poderioz hobetu daitekeen sistema bat ezarri nahi dutenentzat: - Papera asko erabiltzen duten komunikazio- eta dokumentazio-metodoak berrikustea. - Hezitzaileek gogoeta kritikoa egin behar dute lanean duten jardunbideari buruz eta murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko moduak garatu. - Fruta-arbola gehiago landatzeko gune bat sortzea. - Antolakunde komunitarioekin elkartzeko, tokiko landaketa autoktonoetan eta beste kontserbazio-proiektu batzuetan parte hartzeko.

Hungaria





Bertako Praktikak

Izenburua	“Biztos Kezdet Gyermekház” (Sure Start Haur Zentroa) Hungarian
Egilea/Iturria	Hungaria
Aipua / URL	Eurochild (2021). Lehen haurtzaroaren garapena Hungarian. Hemendik aterata: https://eurochild.org/uploads/2021/09/Hungary-Country-Profile.pdf
Data	Programak 2004tik funtzionatzen du eta martxan jarraitzen du.

Sarrera Laburra

Hungarian erregimena aldatu ostean, pobrezia areagotu egin zen, eta izugarrizko eragina izan zuen haurrengan. Hungariako gobernuak pobrezia desagerrarazi nahi izan zuen, eta, horrenbestez, 2003an, Erresuma Batuko enbaxadak eta Osasun eta Gizarte eta Familia Gaietarako Ministerioak Sure Start programa ingelesaren aurkezpena antolatu zuten; eta horrela, programa esperimentalak hasi zen 2004an hainbat kokaleku-motatan. Programaren metodologia garatzeko talde profesional bat sortu zen, izen handiko soziologoak, gizarte-hezitzaileak eta lehen haurtzaroko adituak barne hartzen zituen. Programa ez zen zerbitzu independente gisa hasi, baizik eta erakundearen gizarte-, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuetan integratuta.

Gaur egun, 175 Sure Start haur-zentro daude Hungarian, haurrentzako prebentzio-zerbitzu gisa. Programaren leloa "zuretzat, zurekin, ez zure orde" da, eta familien parte-hartze aktiboan oinarritzen den programaren helburu nagusia islatzen du. Baldintza operatiboak legez definituta daude, eta familien beharren arabera xede horretarako Dokumentazio Sistemak dokumentatu behar da (eguneroko bertaratzeko, haurren behaketa, garapenaren jarraipena, dokumentazioa, familientzako galdetegiak, kasuen eztabaidak, talde profesionalen erregistroa, programa komunitarioak, eztabaida-taldeak, eta abar). Proiektu pilotuan parte hartu zutenek honako helburu hauek zituzten: garapen emozionala eta soziala babestea, haurren osasun-egoera hobetzea, ikaskuntza eta hezkuntza-trebetasunak garatzea eta familiaren eta komunitatearen kohesioa indartzea, inklusio-printzipioan oinarrituta. Garrantzitsua zen programan bertan egoera babesgabea dauden familiak modu berezian ez tratatzea; hori dela eta, inguruan bizi ziren haur txikiak zituzten familia guztiei iragarri zitzaizkien zerbitzua eta haien eskura jarri. Horrela, inklusioa, elkar ulertzea eta onarpena sustatzen ziren, eta segregazioa saihesten zen. Familiak hainbat eratan eskura zitzaizkien erakundeek emandako zerbitzu osagarriak.

Budapesteko VIII. barrutian, Józsefváros-eko Haurtzaindegia Bateratuek programa egokitzeari ekin zioten eta haurtzaindegiko profileen txertatu zuten. Ondorioz, arreta goiztiarreko programa gisa funtzionatzen zuen urbanizazio baten inguruan, non, haurren garapen-maila neurtu, haurrak aztertu eta, jarraian, banakako edo taldeko garapena eskaintzen zitzaizkien, plan indibidual baten laguntzarekin. Familien parte-hartze aktiboan arreta handia jartzen zuten, eta, horregatik, asteburuetan jolas-etxeak antolatzen zituzten, familiak modu libre eta informalean hitz egin ahal izateko bertan, eta, hala, familia barruko edozein zailtasunez jabetzen ziren. Abagune horiek familiei eta haurrei jardueretan elkarrekin parte hartzeko ematen zieten aukerari esker, sorkuntzaren poza eta komunitate bateko partaide izatea sentiarazten zieten. Programak arrakasta izan zuen, eta horrenbestez, handik gutxira familiekin lanean jarraitu zen, haurtzaindegitik aparte leku batean. Horrela sortu zen Sure Start Kluba, zeinak familia behartsu gehiagorengana iristeko aukera eskaini zuen.

Haur-pobrezia ezabatzeko helburuz, "Egin dezagun hobeto haurrentzat" (2007-2032) Estrategia Nazionala ezarri zen. Horri esker, proiektu pilotuan parte hartzen zuten programa eta klubek Sure Start Haur Zentroak sortu zituzten finantzaketarekin. Józsefvárosen eskaera arrakastatsuen ondoren, 2009an Sure Start Haur Zentroak sortu ziren, non Sure Start Programa aplikatzen den, 2004tik martxan dagoena. Haur Zentroen helburua 0 eta 3 urte bitarteko haurren garapen integrala da, batez ere ingurune soziokultural behartsuetan, gurasoen, familien eta ingurunearen parte-hartze aktiboarekin, bizitzako lehen etapatik aukera-berdintasuna bermatuz.

Haur Zentroak Estatuak finantzatzen ditu, eta zerbitzuak doan ematen zaizkie 0 eta 3 urte bitarteko haurrei eta haien familiei. Haur Zentroak lanegun guztietan irekitzen dira 08:00etatik 14:00etara, eta bazkari bakarra eskaintzen diete haurrei goizeko orduetan.

Praktikako jarduerak eta/edo metodo nagusien deskribapena

Haur Zentroko zerbitzuak funtsezko lau oinarriren inguruan egituratzen dira, zeinak Haur Zentro guztietan diren baliozkoak:

- **Haurrei zuzendutako zerbitzuak:**
 - » Ebaluazioa, baheketa, garapen-gomendioak.
 - » Eguneroko banakako janariak ematea.
 - » Gaitasunak sortzea, garapen-jarduerak (motrizitate xehea, motrizitate larria, komunikazioa, arlo kognitiboak).
 - » Asteko plan tematiko batean oinarritutako konpromisoa (erregulartasuna eta koherentzia ezartzeko).
 - » Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrentzako, eboluzio-ibilbide desberdinak dituzten haurrentzako zerbitzuak eskuratzeko laguntza.
- **Familiei zuzendutako zerbitzuak:**
 - » Gurasoen gaitasunak indartzea.
 - » Aholkularitza, familien foroak, eztabaida-taldeak (hezitzaile berezien, psikologoaren, gizarte-langileen, emaginen eta abarren parte-hartzearekin).
 - » Nortasuna indartzea, beste kultura batzuk ulertzea eta onartzea, estereotiporik gabeko jarrerak (kulturarteko hezkuntza).
 - » Sukaldaritza-kluba (janari etnikoak batera prestatzea).
 - » Etxeko abileziak (jostea, lorezaintza).
 - » Izapideak egiten laguntzea, zerbitzuetara heltzen laguntzea (telefonoa, Interneten erabilera).
 - » Arropa garbitu eta lehortzeko garbategia.
 - » Familia-bisitak
- **Profesionalekin lankidetzak**
 - » Profesional laguntzaileek parte hartzen duten talde profesional erregularrak.
 - » Hezitzaile bereziak, psikologoak, haurtzaindegia, tokiko zentro komunitarioak, emaginen zerbitzuak, familiari laguntzeko zerbitzuak.
 - » Beharrezkoa balitz, kasuak eztabaidatzea, haurrei eta familiei eragiten dieten erabakiei buruzko kontsultak egitea.
- **Komunitateari zuzendutako zerbitzuak:**
 - » Helburua kulturen arteko ulermena, elkarrekiko onarpena eta komunitateen sorkuntza sustatzea da.

>>>

- » Urtean gutxienez 12 programa komunitario antolatzea, 3 urtetik beherako haurrentzat eta haien familientzat, bai eta tokiko komunitatearentzat ere, erabiltzaileen beharretara egokituta: adibidez, Inauteriak, Aste Santua, Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna, Oporrak Familian, Agurra, Arratsaldea Familian (barrutiko biztanle guztientzat zabalik dagoen aire zabaleko programa, adina edozein dela ere), Doako Arropa-trukea, Gabonak, benetako ijito-taldearen emanaldiak, dantzarekin eta taldeko kantuarekin nahasita, etab.

Praktika onak

Familia-bisitak

Hiri-ingurunean zailtasunak daude familiak kokatzeko. Hainbat solairuko apartamentu-eraikinetan bizitzea, batzuetan 10-15 pisuko altuerakoak, ia ezinezkoa da. VIII. barrutiko bizitegi-eraikinak ezagunak dira haien erosotasun-maila txikiagatik eta azalera eskasagatik; familia ugariak eta belaualdi anitzekoak bizi dira bertan. Komunitatearen egonkortasuna oso txikia da leku askotan, eta txandakatze handia dago, landa-eremutik lekualdatzen diren familien artean diru-sarrera txikiak daudelako. Ondorioz, jendea ez da ondo ezagutzen, eta gutxi sor ditzakete auzoko harreman onak. Urteetan zehar, Haur Zentroko langileak metodo egokia erabiltzen saiatu dira familiengana iristeko eta Haur Zentroko zerbitzuen erabileran inplikatzeko. Ondorengo urrats hauek dira:

- Auzoan bizi diren eta haur txikiak dituzten familiei buruzko informazioa biltzea.
Hainbat iturritatik parte hartuko duten familiei buruzko informazioa jasotzen dugu. Zerbitzua erabiltzen duten familien gomendioak, auzoko ezagunak, bideratzeak, tokiko obstetrizia-zerbitzuekiko eta haurren ongizate-zerbitzuekiko lankidetzak. Gainera, Haur Zentroak elkarlan estuan dihardu Tokiko Familiari Laguntzeko Bulegoarekin, zeinak diru-sarrera txikiak dituzten familiei laguntza bilatzeko aukera eskaintzen dien.
- Familia bisitariak. Familiari buruzko informazioa dugunean, bisitatu egiten dugu. Adingabeen Zentroko bi langilek txirrina jotzen dute. Familia langileak hartzeko prest badago, etxean sartzen gara.
- Zerbitzuak eskaintzea. Familiarekin hitz egiten dugunean, haientzat zerbitzurik erakargarrienak aurkeztuko dizkiegu labor-labor: gela zabala jostailu askorekin, merienda partekatua, irteerak, programa komunitarioak. Eskuorriak erabiliz, argazkiak ere erakutsiko ditugu. Ahal izanez gero, Haur Zentroko beste laguntza-aukera batzuei buruz hitz egingo dugu senideekin.
- Haurrak geureganatzea. Beti eramaten dugu haurrari ongietorria egiteko opari txiki bat. Haren adinerako egokiak diren jostailuak edo poteko janaria izan daitezke. Familiak zoriontsu jartzen dira haurra pozik ikusten dutenean, harengana maitasunez hurbiltzen direnean. Egoera zailetan dauden familiek gauza gutxi edukitzeko aukera dute, eta, beraz, gauza txikiek garrantzi handia dute.
- Geure burua eskaintzea familiari laguntzeko edo familia-bisita berriak eskaintzea. Lehenengo bisitak ez du beti arrakasta izaten, eta, hortaz, familiaren beharrak eta lehentasunak kontuan hartuta, geure burua eskaintzen dugu Haur Zentrorako ordu egoki batean iristen laguntzeko edo beste batean berriro bisitatzeko. Familia-bisita bakoitzaren helburua familiari arreta Haur Zentroan ematea da. Hori lortzeko, beharrezkoa bada, familia hainbat aldiz bisitatzen dugu, bisiten maiztasuna eta erregularitasuna intrusiboak edo asaldatzaileak ez direla ziurtatuz.

Oporrak familian

Gazteentzako Józsefvárosek Haur Zentroan sustraitutako praktika bat udako familia-kanpaldia da, astebeteko iraupena du eta ia hasieratik funtzionatzen du. Haur Zentroa erregulariki bisitatzen duten familiek, batez ere diru-sarrera txikiak dituztenek eta laguntza-premiak dituztenek, udako familia-programan parte hartzeko aukera dute. Anai-arreba nagusiek eta familiek ere parte hartzen dute programan. Egun gutxi horietan, harreman intentsiboan gaude familiekin. Laguntzaileak Haur Zentroko langileak eta kanpaldi osoan zehar dauden boluntarioak dira, eta alde zuzenetik planifikatutako jarduerak egiten dituzte egunero.

Kanpaldia tokiko gobernuaren jabetzako opor-zentro batean egiten da, landa-eremuan. Kanpaldiak irauten duen bitartean, bai familiek bai laguntzaileek bainugela pribatua duten apartamentuetan hartzen dute ostatu. Asteazkenean, txangoak eta familia-jolasak eta komunitarioak egiten dira, elkarrekin kozinatzen da, eskulan tailerrak antolatzen dira eta kanpoko profesionalen ardurapeko programak ematen dira (adibidez, musika tailerrak). Aukera honek familientzako esperientzia-terapia gisa balio du, astebete inguru zoragarri batean igarotzen baitute, aire zabalean, zaratatik eta hiriko arazoetatik urrun. Kanpaldiak esperientzia partekatua eskaintzen dio familiari, eta urte batzuk geroago ere familia askok maitasunez gogoratzen dute. Langileentzat, familien bizitza eta funtzionamendua hobeto ezagutzeko eta konfiantza sakontzeko aukera bat da. Gure esperientziaren arabera, kanpaldian parte hartzen duten familiek maizago bisitatzen dute Haur Zentroa oporren ostean, harremanak estutzen dituzte langileekin, eta askok jarraitzen dute berriro joaten, haurra haurtzaindegira edo haurtegira joaten hasi ondoren ere.

Beharrezko materialak	Zerbitzuak aurkezteko eta jendeari informazioa emateko materialak: eskuorriak, Facebookeko taldeak, webgune instituzionala (Józsefvárosek Haurtzaindegi Bateratuak), barrutian ezarritako informazio-guneak, tokiko antolakundearen gomendioak (emaginen zerbitzua, haurren ongizate-zentroa, haurtzaindegiak, haurtegiak), Haur Zentroa erabili zuten garai bateko familien gomendioak. Zerbitzuak emateko lege defintutako espazio egokiak (harrera-gunea, jolas-gela, bainugela, garbategia, sukaldeak). Adinerako egokiak eta kalitate handikoak diren jostailuak, haurrentzako erraz iristeko apalategi irekietan. Haurren otorduetarako eta arreta-prozesuetarako beharrezkoak diren altzariak eta ekipamendua (aldatzekoa, haurrentzako komuna, konketa, mahaia, aulkia, haurtxoentzako baskula, etab.). Antolatutako jarduerak eta programetan kultura jakin bati dagozkion abestiak, errimak, ipuinak eta errezetak erabiltzen dira. Jostailuetan eta ekipamenduan kultura ezberdinen presentzia islatzen da, hala nola etnia ezberdinetako panpinak, erromani hizkuntza eta ipuin-liburu tematikoak.
Hezitzaileentzat oharra eta iradokizunak	Alderdi garrantzitsuenetako bat Haur Zentroan lan egiten duten profesionalen nortasuna da. Familiekiko konfiantza sortzeko oinarria haiengana nola zuzenduko garen da, haiekin eta haien hurrekin zeinen ondo inplikatu gaitezkeen. Funtsezko ezaugarrien artean daude zintzotasuna, besteen onarpena, ezagutza profesional egokiak eta egoera desberdinetara egokitzeko malgutasuna. Beharrezkoa da profesionala ondo informatuta egotea tokiko zerbitzuak eskuratzeko aukerei buruz, horiei buruzko informazio egokia eman ahal izateko. Ahal den guztietan, etengabeko garapen profesionala gomendatzen da, eta, nekea saihesteko, gomendagarria da langileek osasun mentala zaintzeko zerbitzuak erabiltzea.

Izenburua	Txakurrez lagundutako jarduera hartzaindegian
Egilea/Iturria	Lakos Judit
Aipua / URL	- Chandler, C. K. (2012). <i>Animal Assisted Therapy in Counseling</i>. 2. edizioa. New York: Routledge. - Ernst, L. (2014). <i>Animal-assisted therapy: an exploration of its history, healing benefits, and how skilled nursing facilities can set up programs</i>. Annals of long-term care, 22(10), Hemendik aterata: https://www.hmpgloblearningnetwork.com/site/altc/articles/animal-assisted-therapy-exploration-its-history-healing-benefits-and-how-skilled-nursing - Fine, A. H., Beck, A. (2010). <i>Understanding our kinship with animals: input for healthcare care professionals interested in the human\animal bond</i>. In Fine, A. (ed.) 2010: Handbook on Animal-Assisted Therapy. 2. edizioa. Elsevier Inc. - Kruger, K. A., Serpell, J. A. (2010). <i>Animal-assisted interventions in mental health: definitions and theoretical foundations</i>. In Fine, A. (ed.) 2010: Handbook on Animal-Assisted Therapy. 2. edizioa. Elsevier Inc. - Levinson, B. M. (1969). <i>The pet and mental hygiene</i>. Boris, M. Levinson (szerk.). Pet oriented child psychotherapy. Springfield, IL: Charles C. Thomas. - Wells, D. L. (2009). <i>The Effects of Animals on Human Health and Well-Being</i>. Journal of Social Issues, 65. 523–543.
Data	2021
Sarrera Laburra	

Motibazio- eta garapen-helburuetarako animalien erabilera XVIII. mendekoa da (Ernst, 2014; Lakos, 2023), baina zentzu modernoan animaliez lagundutako terapia Levinsoni egozten zaio (Levinson, 1969), psikiatra gisa lehena izan baitzen txakur bat erabiltzen haur batekiko lotura errazteko. Horren ostean, metodoa zabaltzen hasi zen eta mundu osoan antolakundeak sortu ziren txakurrak trebatzeko (Ernst, 2014). Gaur egun, animaliez lagundutako terapiak/jarduerak erreferentzia egiten diete parte-hartzaileen funtzio emozionalak, sozialak, kognitiboak eta fisikoak hobetzeko animalia terapeutikoeekin egiten diren programei (Chandler, 2012; Kruger & Serpell, 2010). Hungarian, Hungariako Terapia eta Laguntza Txakurren Elkartek (MATESZE) laguntza-txakurren antolakundeak biltzen ditu 2006tik, eta haien zeregin nagusia arau bateratuak garatzea eta laguntza profesionala ematea da. Hungarian, oinarritzko hiru baldintza bete behar dira txakurrekin terapiak edo jarduerak egiteko. Lehenengoa terapia-animalia bera da, azterketa terapeutikoa izan behar baitu, baita terapia-ziurtagiria eta haren osasuna egiaztatzen duen albaitaritza-dokumentazioa ere. Bigarren baldintza txakurraren trebatzaileari dagokio (ez du zertan jabea izan), zeinak txakurrarekin terapia-azterketa egin duen eta jarraibideak ematen dizkion jardueretan. Hirugarren baldintza da jardueran behinena; talde edo gizabanako espezifikoarentzako jarduera-plana pertsonalizatzen du eta zereginak eta jolasak gidatzen ditu (Lakos, 2021).

2021az geroztik, Judit Lakos hezkuntza bereziko irakasleak animaliez lagundutako jardueretako liderrak prestatzeko ikastaro akreditatuak antolatzen ditu, pertsonekin lan egiten duten profesional guztientzat irekiak. Terapia-txakurrak bitartekari lana egiten du saioetan, parte-hartzaileak motibatzen ditu eta hainbat zeregin egiten laguntzen die. Garrantzitsua da txakurraren nortasuna taldearen ezaugarrietara egokitzea. Terapia-txakurrak portaera lasaia eta orekatua du edozein egoeratan, oldarkortasunik gabe. Sozialki sentiberak dira, gizakiokin egoteaz gozatzen dute eta gogoz hartzen dute parte haiekiko elkarreraginean.

Besarkadak eta estimulu gogorrak jasaten dituzte, besteak beste zarata, usain eta mugimendu bortitzak. Ondo entrenatuta daude, edonorentzat gustura egiten dituzten trikimailu ugari dakizkite (Lakos, 2021).Ingurumenaren jasangarritasunera bideratutako ikaskuntzaren barruan dago natura eta hura osatzen duten beste espezie batzuk zuzenean esploratzea eta esperimentatzea. Animalien beharrak eta eskubideak ulertzea eta errespetatzea txakurrekin jolasteari eta elkarrekintza ludikoari esker gertatzen da. Gainera, txakurrez lagundutako jarduerak hainbat arlotan aplika daitezke: garapen goiztiarra, hezkuntza berezia, taldeak sortzea, hezkuntza, esperientzia-jarduerak, terapia psikologikoa, etab. (Babos, 2013). Txakur bat ezagutzeak eta jolasetan elkarrekin parte hartzeak ondorio onuragarri ugari ditu. Animaliaaren presentzia hutsak antsietatea murrizten du, eta haren berehalako izaera atseginak lankidetzat sustatzen du eta motibazioa mantentzen du saioetan (Wells, 2009; Babos, 2013). Harreman sozialetan aldaketa positiboak gerta daitezke; animaliarekin elkarreragitean adimen emozionala, enpatia-gaitasuna eta kontzentrazioa garatzen ditu eta, aldi berean, helduei nahiz hurrei laguntza emozionala ematen die.

Txakurrak ez du epaitzen; den bezala onartzen du mundu guztia eta, beraz, edonork senti dezake baldintza gabeko onarpena eta maitasuna animaliez lagundutako saioetan (Fine & Beck, 2010). Gainera, txakurraren hizkuntza unibertsala da; ez da beharrezkoa hitzezko hizkuntza haiekin elkarreragiteko, eskuzko keinuetan oinarritutako trikimailuak egin ditzakete eta.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

2023ko urtariletik, txakurrekin lagunduriko saioen zerbitzua eskuragarri dago Józsefvároseko Hartzaindegi Bateratuetan eta Sure Start Haur Zentroan. Józsefvároseko Hartzaindegi Bateratuetako psikologoak zuzentzen ditu saioak jardueraren arduradun gisa, terapiako labrador-txakurrarekin eta haren trebatzailearekin batera. Saioak Judit Lakos hezkuntza bereziko irakasleak garatutako metodologiaren arabera antolatzen dira. Sure Start Haur Zentroan, 3 urtetik beherako haurrek eta haien familiek elkarrekin parte har dezakete saioetan, idealena saio bakoitzeko 7-8 haur izatea litzateke. Hartzaindegietan, haur txikien taldeek parte hartzen dute, taldeko gehienez 10 haurrekin eta haien zaintzaileekin, baita erizainekin ere. Taldeen tamaina mugatzea beharrezkoa da, terapia-txakurraren gaitasuna dela eta. Saio bakoitzaren aurretik, talde bakoitzaren osaera ebaluatzen da, banakako ezaugarriei eta haurren garapen-mailei arreta berezia eskainiz. Jarduera ludikoak esperientzia-terapiaren ikuspegitik antolatzen dira, eta horrek aukera ematen die hurrei eta familiei txakurrarekin esperientziak izateko. Familiek aldeztu aurretik betetzen dute baimen-inprimaki bat. 2-3 urteko adin-taldearen ahalmena kontuan hartuta, saio bakoitzak 20-25 minutu inguru irauten du.

Saioak goizez egiten dira eta aurkezpenekin hasten dira; horrek aukera ematen du galderak egiteko, txakurra ezagutzeko, laztantzeko eta erosoago sentitzeko. Haurrek beren energia askatzeko tartea uzten dugu; horregatik, lehen bi jarduerak beti aktiboak dira, eta pixkanaka intentsitate gutxiago eskatzen duten zereginetara pasatzen da. Oinarritzko trebetasunak garatzeari ere erreparatzen diogu; adibidez, mugimendu-jarduerak errimekin eta abestiekin konbinatzen ditugu. Trebetasun sozialak hobetzeko, txakurrarekin taldean nahiz banaka elkarreragiteko aukerak ematen ditugu (hala nola lokarriarekin eramatea edo bostekoa emateko eskatzea). Saioaren amaieran, mugimendu gutxi eskatzen duten jolas lasaietan jolasten dugu, taldearen asaldura murrizteko helburuarekin. Eskolaurreko adinean dauden haurrentzat 4-5 jarduera erakargarrik osatzen dute saioa.

Saioaren adibidea:
(hurrengo orrialdean)

1) Ongietorri-saioa	Ongietorri-saioa. Aurkezpena, txakurra ezagutzea, galderak egitea.
2) Ispiluen jolasa	Txakurra basoan paseatzera eramango dugu. Biribilean oinez gabiltzala, txakurra erdian geratzen da. Errimaren amaieran, txakurrak keinu bat egiten du eta guk imitatu egiten dugu. <i>"Oinez, oinez, gabiltza noraezean (biribilean ibiltzen gara), Baso itxira iristean (zutik jarri).</i> <i>Katagorriak salto egiten du zuhaitzen artean (bi oinekin salto egiten du), Zer egiten du orain Daisy? (txakurra imitatzen du)"</i>
3) Oztopo-lasterketa	Oztopo lasterketa bat eraikiko dugu Wesco elementuekin, basotik etxerako bidea gidatuz. Galdu den txakurrari lagundu behar diogu. Haurrak txandaka ibiltzen dira oztopo-pistan zehar, eta horietako batek lokarri batekin gidatzen du txakurra ibilbidean zehar. Azkenean, denak sar daitezke txakurraren azpian
4) Ausardiaren froga	Txakurra oso gose da, eman diezaiogun jaten! Haur bakoitzak gozoki bat jasotzen du gorputzeko edozein tokitan jartzeko (adibidez, oinean, sabelean). Gero, agindua ematean, txakurra haien inguruan ibiliko da eta gozokiak jango ditu.
5) Zer egiten du eskutxoak?	Txakurra nekatuta dago, lokartu dezagun! Inguruan eseriko gara eta txakurra laztanduko dugu errimaren bertsoak jarraituz. <i>"Zer egiten du eskutxoak?</i> <i>Leun-leun laztanduz,</i> <i>Hatzekin jo du indartsu,</i> <i>Kilima jostariak,</i> <i>Zakarki atximurkatuz,</i> <i>Trebetasunez dantzatzuz.</i> <i>Eta zer egiten du eskutxoak?</i> <i>Zuk ere badakizu, esan nirekin!"</i>
6) Agur-biribila	Denak oso ausart eta trebeak izan direnez, txakurrak bostekoa ematen saritzen ditu denak. Amaitzeko, batera agurtzen dugu badoan txakurra.

Gure esperientziaren arabera, txakurrez lagundutako saioek antsietatea murrizten dute, eta horrek erraztu egiten du txakurra dagoenean haurrak motibatzea, baita lotsatienak ere. Jolas partekatuak familiei aukera ematen die ikuspegi berri batetik beren haurra eta beren burua ezagutzeko. Gainera, beste familia batzuekin konektatzeko puntu gisa funtzionatu dezake, laguntza-komunitate baten garapena erraztuz. Saio hauek ingurumen-hezkuntzako zati garrantzitsu bat dira; izan ere, haur asko lehen aldiz topatzen dira txakur batekin bertatik bertara. Ingurune seguru batean, animalia batengana gerturatzen eta hura laztantzen ikasten dute, eta beren portaerarekiko haren erreakzioak sentitzen dituzte. Esperientzia honek etorkizunean ondorio positibo garrantzitsuak izan ditzake, animaliekiko maitasuna eta ingurumenaren kontserbazioarekiko interesa bultzatuz.

Beharrezko materiala

- Terapia-txakurra eta haren trebatzailea
- Jardueraren liderra
- Eremu zabala
- Mugimendua laguntzeko tresnak, adibidez, Wesco elementuak, alfonbra sensorialak
- Beste jostailu batzuk, sormenezko tresnak

Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak

Saioetako gaiak taldearen behar espezifikoetara egokitu behar dira beti; jarduerak, ordea, modu sortzailean diseina daitezke, urtaroak, egun bereziak, oporrak edo garapen-helburu espezifikoak kontuan hartuta; esaterako, trebetasun sozialak indartzea. Txakurrarekin elkartzeak sekulako aukera eskaintzen du gero taldean elkarrekin prozesatzeko, izan familiekin edo banaka, esperientzia partekatua guztiontzako konexio-puntu bihur daiteke eta.

Izenburua	Pertsona panpina metodologia Hungarian
Egilea/Iturria	Nazioartekoa: https://personadoll.uk/ Hungariakoa: Zsuzsa Laszlo, Partners Hungary: https://partnershungary.hu/
Aipua / URL	• https://reyn.hu/hatteranyag/personadoll/
Data	2007tik
Sarrera Laburra	

Pertsona panpina metodoa 2 eta 8 urte bitarteko haurrak emozioez eta sentimenduez hitz egiten laguntzeko, eta beldurra eta kezka aztertu eta haiei aurre egiteko metodo eraginkorra da. Metodo honek, halaber, berdintasun-auziak planteatzeko modu indartsu, ez-mehatxatzaile eta dibertigarria ematen du, baita haur txikien artean pentsamendu estereotipatu eta diskriminatzailea indargabetzekoa ere. Panpinek haurrei beren sentimenduak eta kezka adierazten laguntzen diete, modu kritikoan pentsatzen, enpatia garatzen eta jokaera bidegabea zalantzan jartzen.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Metodoa lehen haurtzaroan lan egiten duten profesionalentzat diseinatuta dago zehazki. Pertsona panpina metodoa, jatorriz Erresuma Batukoa eta mundu osoan arrakasta handiz erabilia, lehen haurtzaro inguruan emozioak eta sentimenduak lantzeko tresna berritzailea da. Metodoaren erdi-erdian panpina errealista bat dago nortasun ezaugarriekin: familia-aurrekariak, bereizgarriak, objektu gustukoenak, bizi-baldintzak, etab. Panpinak noizbehinka bisitatzen ditu haurrak eta irakasleei aukera ematen die lehen planteatu nahi ez zituzten gai korapilatsuen inguruan hitz egiteko. Metodo honi esker, haurrak gai dira beldurra eta bazterketa errespetua bihurtzeko, baita kezka eta sentimendu txarrak arazoen konponbidea bihurtzeko ere.

Pertsona panpina metodoaren erabilerako elementu giltzarri bat haurrak “bakarrik ez daudela” sentitzea da. Haietako askorentzat panpina ezagutzear lehen aldia da inork haien antzeko sentimenduak, esperientziak eta kezka dituela sentitzen dutela. Horrek konfiantza ikur indartsu bat eskaintzen du eta sentimenduei eta enpatiari buruzko komunikazioa garatzen du. Bestalde, haurrei norbere buruarekiko eta besteekiko errukia adierazten ere erakusten die.

Pertsona panpinaren erabilerak eragina du ez soilik haurrengan, baita lehen haurtzaroko profesionalen jarrera eta portaeran ere. Metodo hau erabili ostean, haur-hezkuntzako profesional askok baieztatu zuten gehiago entzuten zutela eta gutxiago hitz egin, eta baita enpatikoagoak sentitzen zirela eta erruki gehiago adierazteko gai zirela ere, ez hezkuntza-inguruan bakarrik, beren bizitza pribatuan ere bai.

- » Panpinek haurrei beren sentimenduak eta ideiak adierazten laguntzen diete, modu kritikoan pentsatzen, jokaera bidegabea zalantzan jartzen eta haiekiko desberdinak diren pertsonetako enpatia garatzen. Beti azpimarratu behar dira desberdintasunak barneratzea eta tolerantzia handitzea.
- » Panpinak eta beren istorioak tresna boteretsua dira aurreiritziak esploratzeko, haietaz jabetzeko eta haiei aurre egiteko.
- » Pertsona panpina lehen urteetako profesionalentzako metodologia bat da eta klaseetan 60 cm luze diren oihalezko panpinak erabiltzen ditu.
- » Panpinek beren nortasunak eta bizi-istorioak, gustuak eta ezinikusia sortzen dieten gauzak dituzte.
- » Haurrek berehala onartzen dituzte lagun gisa; poztasunak partekatzen dituzte eta triste daudenean haietaz errukitzen dira.

Hungarian, 2007tik erabiltzen dugu metodoa eta, gaur egun, trebakuntza amaitu duten CE-ko 300 profesional baino gehiago ditugu, trebaturik egonda metodoa erabil dezaketenak. Partners Hungary Foundation-ek 1 edo 3 eguneko iraupena duen formakuntza eskaintzen du, eta bertan parte-hartzaileek:

- Pertsona panpina metodoaren inguruan ikasten dute, zeina aurreiritzien eta diskriminazioaren gaiari, beldur eta arriskurik gabe, modu eraginkorrean heltzeko erabil daitekeen eta gorantz doazen gatazken inguruan mintzatzeko tresna efikaza den.
- Beren aurreiritziei buruz ikasten dute eta haiek gutxitzen lan egiteko tresnak ematen zaizkie.
- Aurreiritziek haurrengan dituzten ondorioak nabaritzen eta interpretatzen dituzte eta haien prebentzioa beren eguneroko jardueretan erantsi dezakete.
- Aurreiritziek eta estereotipoek sortzen dituzten beldur eta kezkekin amaitzen laguntzeko tresna eta estrategiak ikasten dituzte.
- Pertsona panpina formakuntza urratsez urrats irakasten ikasten dute.

Beharrezko materiala

Orokorrean, ez da egoten ezaugarri fisiko eta azal-kolore gama bat zehazki irudikatzen dituzten oihalezko panpinarik; litekeena da haiek egin behar izatea. Nolanahi ere, jende askok nahiago ditu oihalezko panpinak litekeena baita bakarrak eta bereziak izatea, etxeko txokoetako besteengandik desberdinak. Beste abantaila bat kuttunagoak eta besarkagarriagoak direla da. Panpinak edozein garaieratakoak izan daitezke, baina 30 hazbete (76,2 cm) tamaina egokia da haurrak haiekin identifikatzeko, eta arropa erraza da eskuratzen. Arropa egin edo ongintzazko denda eta azoka txikietan eros daiteke, edo familiek dohaintzan eman: gaur egun bakero, kamiseta, kirol-jertse, soineko eta beroki ñimiñoak egiten dira haurtxo txikientzat, eta 60 cm-ko panpinentzat balio dute. Hautatu panpinen eta taldeko haurren ezaugarri pertsonalak islatzen dituzten arropa eta osagarriak. Izan eskura aldatzeko arropa panpinek ez dezaten beti bera eraman beren istorioak kontatzera datozenean.



Pertsona panpinak - Eskuz egindako 60 cm-ko oihalezko panpinak

Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak

- 1 edo 3 eguneko formakuntza osatu ostean soilik gomendatzen dugu hasiera metodologiarekin.
- 3 eguneko entrenamendua bada, saioen artean panpinekin praktikatzea gomendatzen dugu.
- Parte-hartzaileen tutoretza oso mesedegarria da.
- Profesionalekin jarraipen bat egitea gomendatzen dugu.
- Metodoa erabiltzen duten nitxoan adibideak ematen ditugu, non profesionalak pertsona panpinaren saioetara joan daitezkeen.



Kide ez den herrialde europar bateko praktikak

Izenburua	OMAMA - Eslovakia
Egilea/Iturria	Cesta von
Aipua / URL	• Cesta von. Omama programari [webgunea]: https://cestavon.sk/program-omama
Data	Programa 2018an hasi zen
Sarrera Laburra	

Belaunaldien arteko pobrezian bizi diren milaka haurri bizitzako irteera-lerroa aldatzen zaie jaiotzen direnetik. Baldintza zailak eta estres kronikoak ondorio negatiboak dakartza haien garapen osasuntsuan.

Pobrezian bizi diren pertsonak ez dute erdiko klasekoek bezainbeste baloratzen hezkuntza. Adibide gutxi dituzte haien inguruan hezkuntzari esker arrakasta izan dutenak. Hezkuntzaren onurak abstraktuak, ezezagunak eta epe luzerakoak dira, eta haien premia beharra gaur bizirautea da. Hau nabarmenagoa da jaramonik egiten ez zaien komunitateetan. Garatuago dauden eta bereizketa gutxiago duten eremuetan interes handiagoa dago hezkuntzarekiko. Hala ere, eskola baino askoz lehenago ezarri behar dira oinarriak.

Honek guztiak CESTA von Eslovaquia antolakundearen helburuak babesten ditu aldaketa sozialaren defentsan: belaunaldien arteko pobrezian bizi diren eta haur txikiak dituzten familiei laguntza sistemikoa eskaintzea, eta haien haurren garapenean laguntzea eskolan hasiera ona, eskola-eremua hobea eta hezkuntzarekiko jarrera positiboa bermatzeko. Gainera, oso garrantzitsuak dira gizarte-inklusiak, gizarte majoritarioarekin lankidetzak, eslovakiar eta ijito kulturen baterako existentzia eta kulturarteko harremanen garapena. Hemen aurkezten den programak eragina du zuzenean edo zeharka faktore guzti horietan. OMAMA programaren helburu nagusia belaunaldien arteko pobrezian jaiotako haurrek beren lehen urteetan oinarri hobea eraikitzeak aukera bermatzea da, geroago oinarri horren gainean bizitza arrakastatsu bat eraikitzeak. Programaren ikuspegi parte-hartzaile bakarra esku-hartze bat da eta talde hartzailearen parte-hartze zuzena dakar berekin; izan ere, programaren eragile giltzarriak heldu nahi den komunitateko kide dira.

2024 hasieran 40 Omama eta 21 mentore zeuden 30 komunitatetan lanean 906 haurrekin. 2030erako helburua 100 Omamarekin lan egitea zen.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

0 eta 4 urte bitarteko haurren asteko estimulazioa eta familien errefortzua

Omama bakoitzak astean behin ematen dizkio eskolak haur bakoitzari bere familiarekin. Ordu beteko eskolak dira eta bi zati dituzte: lehenak arreta haurraren jartzen du eta hazkunde osasuntsurako beharrezko estimulazioa eskaintzen dio; gainera, barne hartzen ditu garapen kognitiboan, motrizitate larri eta xehean eta irakurketan laguntzeko jarduerak. Bigarrenak gurasoen trebetasunak eta familien erantzuteko gaitasuna garatzean jartzen du arreta handiagoa, familiaren estres faktoreak eta Omamek horiek desagerrarazten nola lagundu dezaketen identifikatuz. Irakaspenek ama ijitoen (batez ere) ikasteko boterea hobetzen dute, irakurtzeko eta idazteko gaitasuna handituz, funtzio kognitibo espezifikoak indartuz eta barne-motibazioa sustatuz. 0 eta 4 urte bitarteko haurren asteko estimulazioa eta familien indartzea.

Haurrekin burutzen den elkarrekintza eslovakieraz egiten da haur erromaniak eslovakierari ohitu daitezen, eskolara joan arte ez baitute ikasten.

Jolas ikasgai bakoitzak bere adinerako liburu egoki baten “irakurketarako tarte” du. Irakurketa materialetara heltzea zaila den komunitateetan liburu eta irakurketarekin harreman positiboa eraikitzeak eragin positiboa du etorkizuneko hezkuntzan.

Play Wisely etxeko jolas txartelak ere erabiltzen dituzte Omamek garapen kognitiborako.

Omamak ikasgai bakoitza ebaluatzen du eta mentoreak jarduera bakoitzaren jarraipena egin. Omamak animatzen dira amek ikasgaiaren zehar erantzuteko gaitasuna nola erakutsi duten identifikatzera. Ikasgai bakoitzaren erregistroa burutzen da.

Familien klubak. Hilean behin, Omamek, beren mentoreekin batera, haur txikiak dituzten familiekin aldizkako bilerak antolatzen dituzte hainbat gai komun joratzeko, esaterako, elikadura, amagandiko edoskitzea, zaintza harkorra, etab. Emakume ijito oso gazte bihurtzen dira ama, familiako norbaiten haurren hazkuntzari buruz ikasteko aukerarik izan gabe. Komunitate bakoitzak bere beharrei eta interes espezifikoari erantzuten die, eta hautatutako gaiak interes partikular horiek islatzen dituzte.

Omamen formakuntza. Hiru hilez behin, Omamak eta beren mentoreak ECDC metodoetan oinarritutako formakuntza ikastaroetara joaten dira. Psikologoek, pediatrek eta fisioterapeutek prozesuan zehar laguntzen dute. Gaien artean daude atxikimendu osasuntsua, zaintza harkorra, haurren garapenean alerta seinale goiztiarrak, lotura afektiboa eta hizkuntzaren garapena, baina baita pertsonarteko trebetasunak ere, hala nola komunikatzeko gaitasuna, talde-lana, antolatze gaitasuna eta denboraren kudeaketa.

Tutoretza. Langabezia-tasa altuko eskualde pobreetako emakume ijitoek lan-merkatuko zailtasunei aurre egin behar diete maiz. Omama programak lanpostu finkoa, diru-sartze erregularrak eta heziketa eskaintzen die. Omama izateko gai eta arduratsuak diren emakumeak aukeratzen dira, lanerako jarrera positiboa dutenak eta haien komunitateetan errespetatuak direnak. Haietako gehienek lehen mailako irakaskuntza soilik amaitu dute (8 ikasturte). Hala eta guztiz ere, proiektura batzuek ez dituzte soilik ahalduz, baita haien familiak ere. Omama bakoitzak bere mentora propioa du eta lagundu eta aholkatu egiten dio, aliatu gisa jokatzeko. Omamari laguntzen dio denbora kudeatzen, lana familiako betebeharrekin bateratzen eta lan-ohiturak eskuratzen, baina baita familia-bisitekin lotutako lanean ere. Mentoreak independenteagoa izaten eta autoestimua irabazten trebatzen du.

Gizarte majoritarioaren hizkuntza. Eslovakiarraren maila baxua (edo nulua) oztopo itzela da erromania hitz egiten duen haur batentzat hezkuntza-sistema formalera sartzeko orduan; zaildu egiten ditu ikasketa formal/informal gehigarriak, enplegurako edo diskurtso publikoan parte hartzeko aukerak. Iritzi publikoak ez du erromaniaren elebitasuna balioesten eta oztopotzat hartzen da. Omamentzat ezagutza linguistikoak hobetzea erabakigarria da komunitateetan haurrekin dituzten eskolen kalitateko eta egiten dieten ekarpen linguistikorako, baina baita haiek ere profesionalki hazi daitezen, eztabaidetan parte hartu dezaten, etab. Sarri, haurren eta familien beharren defendatzaileak irudikatzen dituzte beren komunitateetan, eta eslovakiarraren hobekuntzak haien ahotsa indartu eta botere handiagoa eman diezaieke.

CLIL metodoan (Atzerriko Hizkuntzen eta Edukien Ikasketa Integratua, ingelesezko akronimoa) oinarritutako hizkuntza ikastaro bat egin zen eta bateragarria da lehen mailako eskolako eslovakiarraren ikasketa-planarekin. Edukia testuinguruaren arabera, topikoa eta kulturalki sentikorra da baztertze-egoeran dauden komunitateen errealitateekin.

Eraginaren ebaluazioa. Urtebeteren ostean Omamen aldaketa nabaritzen da: gai dira alkateekin edo eskolako zuzendareekin komunikatzeko, ekitaldi komunitarioak antolatze, komunikabide batean elkarriketa bat emateko eta, garrantzitsuena, ikasteko gogoia dute (haietako asko eskolara joaten hasi dira goi-mailako ikasketa formalak eskuratzeko), eta etorkizun hobe batekin ere amesteko gai dira. Jarraitu beharreko eredu bihurtzen dira haien komunitateetan.

Beharrezko materiala	- Haurrentzako jostailuak, liburuak (haien adinerako egokiak). - OMAMA eskuliburua (oraingoz ez dago publiko zabal baten eskumenean, plana hori lantzea da, erabiltzaile gehiagorentzako eskuliburuak eskaintzea formakuntzarekin) Eskuliburuak bizileku baten bisita deskribatzen du urratsez urrats, haurrari patroï jakin bat ikasten laguntzeko egitura berari jarraituz. - Bideoak bizileku bateko bisitaren adibideekin. - OMAMA Mobile Phone App (bertan daude familien informazioa, beren heziketa, egoera sozioekonomikoa, amaren haurdunaldia, erditzearen inguruko baldintzak, haurraren garapenaren une garrantzitsuak). - Play Wisely etxearen jolas-txartelak.
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	Programari eta metodoari buruzko bideoak: https://youtu.be/LRjL2kYKrjQ https://youtu.be/MHBbLWDXpgo https://youtu.be/O5oeDwa0fg https://youtu.be/vBZuSusu6tc?si=_u1UfzePaukzaHyG https://youtu.be/BBpuCecAeNc?si=ABI6MZMzJEzZA0FJ https://youtu.be/5qg9P6gSmm4?si=w91or51dmHif11f- https://youtu.be/GdWi6B4IZnI?si=7vxJNZm4AUyv-Fle Omama proiektuan, gizarte eta kultura maioritarioen eta minoritarioen arteko topaketa agerikoagoa egiten da Omamen eta mentoreen arteko harremanean. Haiek dira kulturen arteko zubiak, haiek dira interpreteak. Baina hori elkarriketaren bidez soilik lor daiteke, gainerakoen kulturak entzuten eta ikasten. Eta sortuko den ulermenak eragina izango du eta itxura emango dio kultura maioritarioari nahiz minoritarioari.

Izenburua	Sure Start - Haur-pobreziaren aurka borrokatzeko programa ingelesa - Erresuma Batua
Egilea/Iturria	Ingalaterra
Aipua / URL	Zer da Sure Start haur-zentro bat? • Erresuma Batuko haurtzaindegia: https://www.daynurseries.co.uk/ • Gov.UK. Aurkitu Sure Start haur-zentro bat [webgunea]. https://www.gov.uk/find-sure-start-childrens-centre • HANSARD (1998). Comprehensive Spending Review. Deb 14 July 1998, vol. 316 cc187-211. Hemendik aterata: https://api.parliament.uk/historic-hansard/commons/1998/jul/14/comprehensive-spending-review#S6CV0316P0_19980714_HOC_160 • Osasunerako Fundazioa (1998). Sure Start programa. Hemendik aterata: https://navigator.health.org.uk/theme/sure-start-programme
Data	1999tik gaur egunera arte
Sarrera Laburra	

Europar, emakumeen enpleguak protagonismoa hartu zuen hirurogeita hamarreko hamarkadan. Haurtzaindegien sareak sortzea garrantzia lortzen hasi zen; izan ere, 3 urtetik beherako haurren zaintza ez zegoen antolatuta. Ingalaterran, familiak zaintzaileen eta sektore pribatuak eskaintzen zituen zerbitzuen esku uzten zuten zaintza hori. Gordon Brown Ogasuneko ministro britainiarrak dirua aurreztu nahi zuen "New Labor" programa politikoaren murrizketa sozialekin, osasunean eta hezkuntzan inbertitzeko helburuz. Gobernuak hezkuntzaren garapenean pobrezia desagerrarazteko aukera ikusi zuen. Lehen haurtzaroari arreta eskaintzeko moduak zabaltzeko, 1998an Sure Start programa iragarri zen, zeina 1999an hasi zen martxan, eta haurren pobreziaren kontra borrokatzeko gobernu-programaren zati garrantzitsua bihurtu zen.

Programaren helburua sozioekonomikoki egoera babesgabeen zeuden talde minoritarioak eta etorkinak laguntzea zen. Gabezia-tasa handienak zituzten eremuak identifikatu ziren, batez ere hirugarren herrialdeetatik zetozen eta pobrezia-arrisku handiko auzoetan bizi ziren familietako haurretan ardaztuz. Zentroek espazio eta aukerak eskaintzen zituzten familia etorkinek —hizkuntzarekin eta kulturarekin gutxi edo bat ere ez ohituta zeudenak— inklusiorako laguntza jaso zezaten kulturarteko koordinatzaileen bidez. Hizkuntzak modu ludikoan ikasten ziren, haurrak zein familiak eta profesionalak nahasiz. Programak bere zeregintzat zituen haurren arreta, hezkuntza goiztiarra eta ahalik eta bizitzaren hasiera onena ematea, osasun-zerbitzuen eta familien laguntzaren bidez. Komunitatearen garapena ere alderdi garrantzitsu bat bihurtu zen. Jatorriz haurdunalditik 4 urte bitarteko haurren garapenari zuzenduta zegoen, egun, ordea, 14-16 urte bitartera arte luzatu da.

Erresuma Batuan bada lehen haurtzaroari zuzendutako hainbat zerbitzu martxan. Gales eta Eskozian, programek Flying Start eta Home Start izenekin funtzionatzen dute, eta 0 eta 4 urte bitarteko haurrak hezten dituzten familiei laguntzen diete. Sure Start zentroek Ipar Irlandan eta Ingalaterran funtzionatzen dute. Gaur egun 38 Sure Start proiektu daude Ipar Irlandako 26 hiritan. Tamalez, Ingalaterrako zentro kopuruak behera egiten jarraitzen du, 1.416 zentro itxi ziren 2010 eta 2023 artean; 2023an, 2.204 zentro Sure Start erregistratu ziren.

Programaren funtzionamenduari eta aplikazioari buruzko informazioa tokiko agintariengandik eskuratu daiteke. Zerbitzua doakoa da. Gobernua tokiko agintariekin dabil elkarlanean programa berria barneratzeko. "Start for Life" programaren esparruan, Family Hub programak sartzea aurreikusten dute, haur txikiak dituzten tokiko familien beharretan jarriz arreta.

Helburua honako hau da:

- Adin guztietako haurrei osasunaren garapenean, garapen mentalean eta neurologikoan laguntzea.
- Bizitzako lehen etapetako garapenaren atzerapenei jaramon egitea.
- Osasun-zerbitzuetarako (erizaintzako eta obstetriziako zerbitzuak) sarbidea bermatzea.
- Komunitateko eraikuntzan laguntzea.
- Indarkeria, etxeko indarkeria eta alkoholaren eta drogen kontsumoa murriztea.
- Desgaitasuna duten haur eta gazteentzako programa komunitarioak eskaintzea.

Programak haurtzaindegirako prestakuntza barne hartzen du, zeinak trebetasun sozialak, emozionalak eta kognitiboak garatzea dakarren.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

- Familien arteko elkarlan estua.
- Osasun-bisiten zerbitzua: osasun-langileek egindako familia-bisitak.
- Garapen osasuntsua sustatzea.
- Osasun-langileen parte-hartzearekin osasun-egoeren ebaluazioa, hobekuntza eta aholkularitza.
- Gaitasun linguistikoen eta komunikazio-gaitasunen garapena (espezialisten eta ikasleen fitxen laguntzarekin)
- Gurasoen gaitasunak indartzea.
- Adinerako egokiak eta kalitatezkoak diren jostailuak eskaintzea.
- Hezkuntza-behar bereziak dituzten haurrei eta beren familiei laguntzea.
- Beharren arabera haurtzaindegi zerbitzuak (2 eta 3 urte bitarteko haurrentzat).
- Etxeko abileziak (Sukaldaritza-kluba)

Beharrezko materiala	Langileen nortasuna, komunikatzeko gaitasuna eta jarrera. Osasun-langileekin lankidetzat estua.
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	Ingurune egoki bat sortu eta adinerako egokiak eta kalitatezkoak diren jostailuak eskaini. Inplikaturako profesionalen esperientziaz gain, ezinbestekoa da jarrera enpatikoa eta irekia. Erabakigarria da barne-funtzionamendua eta familiaren kultura ulertzea eta onartzea. Nahitaezkoa da familiaren beharrei egokitutako aukerak bilatu eta eskaintzea.

Izenburua	Madre Naturaleza - (Erasmus + proiektua): Erresuma Batua, Italia, Eslovenia, Hungaria
Egilea/Iturria	Europar elkarten arteko elkarteak: Permaculture association, UK (Erresuma Batua); Preplet (Eslovenia); Paradiso Ritrovato (Italia); Casa del Cuculo (Italia); Pandora Association (Hungaria), eta Color-Space Association (Hungaria)
Aipua / URL	INGELESEZ/NAZIOARTEKOA - Facebook: Mother Nature Project - Instagram: mothernaturejourney - Web-orria: www.mothernatureproject.org/home - Erresuma Batuko Permacultura Elkarteak: www.permaculture.org.uk ITALIANOZ - Facebook: Mother Nature Italia - Instagram: mother.nature.italia - Web-orria: www.mothernatureproject.org/home-italiano - Casa del cuculo: www.casadelcuculo.org - Paradiso Ritrovato: www.paradisoritrovato.org ESLOVENIERAZ - Facebook: Mother Nature Slovenija - Instagram: mothernatureslovenija - Web-orria: www.matinarava.si - Preplet: www.preplet.org
Data	2021-2023 (aurreko proiektua: 2017-2020)

Sarrera Laburra

“Mother Nature - Empowering Mothers as Agents of Change Toward Environmental Sustainability” nazioarteko proiektua (2021-2023) Erasmus + programak finantziatu zuen.

Amatasunean, ama bihurtzean, (beste amen) laguntzaile bihurtzean, ezin konta ahala trebetasun eskuratzen ditugu gure haurrentzat eta komunitateentzat bidea lideratzen laguntzeko, eta ingurumenarekiko modu arduratsuan egitean, baita etorkizunarentzat ere.

“Ama gisa, amak laguntzen dituzten profesional gisa, garrantzitsua da naturaren zikloekin, elementuekin, sendabelarrekin eta gure Lurreko aniztasun ederrearekin konektatzea.

Familia gisa, galdera berriei egin behar diegu aurre: Zer egoeratan utziko diegu planeta gure haurrei eta zer nolako mundutan biziko dira helduak direnean? Gure haurren eta familien bizimoduak eta ohiturak itxuratzeko eta haien bizimoduan zuzenean eragiteko erantzukizunari aurre egin behar diogu. Gainera, gure haurtzaindegietan, eskoletan eta komunitatean, oro har, abagune handiagoa dugu ama gisa gure lidergo-zeregina aztertzeko; beraz, inguratzen gaituen munduarekin arduratsuagoak baldin bagara, eragin positiboa izan dezakegu pertsona askorengan.

Proiektu honen emaitza gisa, amei eta amei laguntzen dieten profesionalei ezagutzak eta tresnak emango dizkiegu honakoari buruz: amatasunaren eta naturaren arteko harremana, amatasunaren eta ekologiaren arteko harremana eta amak lider natural gisa”. “Ama Natura - Ingurumenaren jasangarritasunerantz amak aldaketa-agente gisa gaitzea” proiektuko edukia

- 75 podcast amatasun kontziente bat bultzatzeko eta autolaguntza eta autoesploraziorako tresna kaxa bat sortzeko.

- Bigarren karta-sorta bat eta gida bat amatasunaren loturari eta naturarekiko loturari, bizimodu ekologikoei, antsietate ekologikoari eta lidergoari buruz.
- Ama Naturaren zirkuluak lideratzeko online ikastaro bat.
- Amak lider natural gisa (2023) liburua.

2021-2023 urteko proiektua aurreko proiektu baten (2017-2020) jarduera eta emaitzetan oinarritzen da. Lehen proiektuko emaitzak:

- Ama Naturaren printzipioak eta Bidaiaren karta-sorta ilustratua.
- Ama Naturaren gida liburua - Gure amatasunaren bidaia esploratzen (2019).
- Amaren bidaiaren metodologia eta ikastaroaren markoa.

Lehen proiektua banakoan ardazten da, barneko bidean, bigarrenak kanporantz begiratzen du.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Ama Natura ikuspegi berri bat da, etika berri bat, ikuspuntu konplexu bat. Liburu bat, karta-sorta bat, podcast bat... hainbat modutan iristen da, hainbat zentzumenen bidez, interesaturik daudenentzat, Ama Naturaren bidaiari nahasi nahi dutenentzat.

Ama Natura erantzukizun indibidualari buruz da, lider bihurtzeari buruz, gure inguruan eragiteko moduari buruz. Lidergo femeninoa eta birsortzailea, pertsonak mundu bizira itzultzea helburu duena, irabazi materialak edo boterea lortu ordezt. Moldakorra da, ahalduztailea, lagungarria, entzutekoa, konexio eta konfiantzazkoa, intuitiboa, eta maitasunak, onberatasunak eta gupidak gidatzen dute. Lidergo erradikalaren estila da, arretan eta autozaintzan oinarritutakoa.

Ama Naturaren premisetako bat “naturarekiko loturak gure izaerarekin eta dohaineekin lotu gaitzakeela” da.

Ama Naturaren egileek honela deskribatzen dute beren bidaia: “nola erabil ditzakegu gure gaitasunak ama gisa mundu justuago, bidezkoago, etikoago eta jasangarriago bat sortzeko”.

Liburuaren helburuak dira gu animatzea gure gaitasunak eta lidergoaren istorioak balioestera eta haiez jabetzera; lidergoaren gaitasun gehiago garatzen laguntzea; lidergoaren gure bideak diseinatzea; gure bizitzetara lotura gehiago ekartzea —naturarekin, geure buruekin eta gainerakoekin—; animatzea aktiboki parte-hartzera eta munduarentzat etorkizun birsortzaileago bati ekarpena egitera.

Ama Naturaren filosofia eta balioak erantzukizunean, komunitatean eta pertsonen eta kultura ezberdinen arteko loturan oinarritzen dira. Oinarritzko premisa kontzientzia kulturala da, ulertzea nola eragiten duen kulturak gure pentsatzeko eta jokatzeko moduan, eta aldaketaren bideari ekiten lagun diezaguke. Kultura- sozializatzen dugun bitartekoa, balioak, arauak, tradizioak, hizkuntza, jokamoldea... Ama Natura norbanakoen bizitzan aldi berean dagoen kultura-aniztasunean ardazten da- kulturaren eta identitatearen arteko lotura. Amagandiko kultura, lidergo-kultura, emakumeen kultura, adin-/belaunaldi-kultura, familia-kultura, kultura instituzionala, etab. "Gutariko bakoitza makro eta mikrokultura askoren parte da, bizi garen herrialdeetatik hasi eta gure familia zabaletaraino, gure hezkuntza-aurrekariak, gure erabaki dietetikoak, etab."

Ama Natura ez da jarduera edo metodo bat, ikuspuntu bat baizik, jarrera bat, eduki inspiratzailez betetako, hala nola elkarriketak, irudiak, istorioak, jardura praktikoak eta, egileek iradokitzen duten moduan, era askotan erabil dezakegu, gure beharrei egokitu.

Jarraian, liburutik egokitutako bi jardura laburrek ideiak ematen dizkizute haurrekin ingurumenari eta harekin dugun harremanari buruz hitz egiteko eta pentsatzeko moduaren inguruan:

1. AURKITU MOTIBATZEN ZAITUEN ESPEZIEA Looby Macnamara-ren eskutik

Zu eta zure haurra naturara sarriago irteteko, motibatzen zaituzteten espezieak aurkitzeak askoz errazagoa eta dibertigarriagoa bihurtuko du prozesu guztia. Jada badakizkizunean, bilatu horiek lotzeko moduak naturara irteteko asmoa duzunean edo sinpleki egunero eskolara zoazenean. Zein espezie/elementuk motibatzen zaitu? Zerk mugiarazten eta hunkitzen zaitu? Zein dira zure haurrak motibatzen dituzten espezie/elementuak? Ziur ez bazaude, egin iezazkiezu galderak espezie eta elementu ezberdinen inguruan eta behatu haien erreakzioak.

2. GURE FAMILIAREN LIDERGOA URTEKO ZIKLOAN ZEHAR Ági Berecz-en eskutik

Naturaren zikloekin egunero konektatzea tresna indartsua da Lurraren izenean jarduteko gai garela sentitzeko. Naturan eta gure bizitzetan, ezer ez da lineala, denak zikloetan funtzionatzen du. Esnatzea eta loa, jarduera eta atsedena, arnagora eta arnasbehera, negua eta uda, guztiak dira txandakako erritmoak eta gizakiok haien parte gara. Waldorf (Steiner) pedagogiak Rudolf Steiner lorezaintza biodinamikoaren asmatzailean du jatorria. Waldorf eskolek garrantzi handia ematen diote inguratzen gaituen Naturarekiko lotura sendotzeari, eta haurren eta familien bizitzan erritmoak sartuz egiten dute hori, gure bizitzako zikloekin bat etortzea eragiten duten erritmoak: jardueren eguneroko zikloa, egunen asteko erritmoa eta Naturaren urteko ziklo handia. Hona hemen urteko zikloan zehar zure familiak Naturaren arauei jarraitzeko baliagarriak izan dakizkizukeen adibide batzuk: Errespetatu eguneroko zikloa —sortu egunean zehar zure familiaren erritmoa lagunduko duten erritu txikiak— gosaritik hasita arratsaldeko paseoetara eta oheratze-orduko ohituretara. Ikasi eta kantatu elkarrekin urte-sasoiarekin loturiko kanta. Prestatu “denboraldiko mahaia”, urtaroaren aldare txiki bat zure etxean naturako altxorrekin egina. Jan sasoiko elikagai freskoak, eta askotariko zerealak erabili. Asteko egunei dagokien zereal mota jarrai dezakezu, Rudolf Steinerren sistema jarraituz. Sistema hori Steiner haurtzaindegietan sartu zen, haur txikiak astean zehar orientatzeko: Astelehena, arroza; asteartea, garagarra; asteazkena, artatxikia; osteguna, zekalea; ostirala, oloa; larunbata, artoa; igandea, garia. Irakur iezazkiezu urtaroarekin loturiko lotarako ipuinak. Igaro denbora erregularitasunez aire zabalean, ezagutu inguruko landare autoktonoak. Urtaro bakoitzak bere edertasuna du, eta ama garen aldetik, gure familia Naturaren zikloetara itzultzeko ahalmena dugu, edertasuna urteko zati bakoitzean aurkitzeko.

Karta-sorta, batez ere, amentzako, hezitzaileentzako eta liderrentzako tresna izan daiteke. Txarteletako irudiak eta testuak lan-tresna gisa erabil daitezke (auto)garapen indibidualerako edo coach/laguntzaile profesional baten laguntzarekin, edo talde-saioetan erabil daitezke, baita inspirazio gisa ere. Ez dago arau-libururik, baina interpretazio-liburu erabilgarri batek lagundu egiten dio txartelen erabiltzaileari.



Beharrezko materiala	Hemen zerrendatzen direnak proiektuko produktuak dira eta batzuk inspirazio-iturri izan daitezke edo jarduera jakin bati lotuta egon. • Amak lider natural gisa liburua (5 hizkuntzetan, online) • Ama Naturaren Zirkulua ikastaroa zuzentzea • Ama Naturaren karta-sorta eta gida • Ama Natura podcast multzoa.
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	Materialaren erabilerak malgutasun eta sormen maila handia eskaintzen du, kulturaren testuingurua kontuan hartuz. Proiektuaren materialak, hein batean, sarbide librekoak dira eta beste hein batean erosi egin daitezke, baina sortzaileek antolakunde parte-hartzaileek eskaintzen dituzten ikastaroetara joatea gomendatzen dute, txartelak taldean erabiltzeko, zein amen zirkuluak zuzentzeko. Ama Natura amatasun-ezaugarriak dituzten guztientzat da, izan emakume edo gizon, haurrak eduki edo ez. “Amatasun-ezaugarriak norbait babesten duzunean agertzen dira, edo zerbait sortu eta sustatzen duzunean, horretaz ikasten duzunean eta horrekin erronken bidez hazten zarenean (...) ama zaren heinean bizitzan zehar zure modura”.



Europaz kanpoko praktikak

Izenburua	Kulturalki arduratsua den pedagogia - Zeelanda Berria
Egilea/Iturria	The Education Hub (Zeelanda Berria)
Aipua / URL	Hargraves V. (2022). <i>Culturally responsive pedagogy in early childhood education</i>. In The Education Hub.https://theeducationhub.org.nz/culturally-responsive-pedagogy-in-ece/
Data	2000ko hamarkadaren hasieratik erabiltzen da

Sarrera Laburra

Zeelanda Berriak askotariko biztanleria du, hainbat talde minoritariorekin, hala nola haur maoriak, pasifikak eta asiarrak. Ikasgela hain heterogeneoan haur bakoitzaren premiei eraginkorki arreta emateko, irakasleek ezinbestekoa dute haurren kultura ezberdinei, beren ezagutzei eta aurretiko esperientziei erantzuteko gai den pedagogia bat.

Lehen haurtzaroko hezkuntzaren kultura-harmenak berekin dakar munduko hainbat kultura eta ikuspegirekin konpromiso sakona hartzea, irakaskuntza- eta ikaskuntza-praktikak eraldatzeko. Kultura gutxiak aktiboki babestean eta sostengua ematean datza, desberdintasunak goraipatzetik haratago. Hezkuntza ingurunean haurren jatorrizko kulturaren alderdiak txertatzean, kultura-harmenak aukera ekitatiboak bultzatzen ditu haur guztientzat eta haien familientzat. Haurren nortasunak balioesten ditu, desberdintasun kulturalen erantzun positiboak sustatzen ditu eta familiekin elkartzea eta elkarlanean aritzea babesten ditu.

Kultura-harmena lortzeko, hezitzaileek kulturaren konplexutasunak errekonozitu behar dituzte eta nortasun kulturalen interpretazio sinplistik arbuia. Haurren eta haien familien ezagutza zehatza garatu behar dute, baita haien baliabide kulturalak, indarguneak eta heziketa-helburuak ere. Gainera, hezitzaileek ikasketarekiko eta heziketarekiko jarrerak errespetatu eta ezagutu behar dituzte, familiekin harreman ekitatibo eta emankorrak bermatuz.

Ezinbestekoa da irakaskuntza-praktikak familiekin baliogaitasunak ikasketa-diskurtsoekin lotzekoa, komunikazio esanguratsua ahalbidetuz eta haien aspirazioak errespetatuz. Gainera, hezitzaileak jakitun izan behar dira praktika instituzionalek nola betikotu dezaketen gizarte-desparekotasuna eta arriskuan jarri kultura gutxituetako haurren arrakasta. Haur guztiek aurrera egiteko aukera izan dezaten, hezitzaileek ingurune inklusiboak sor ditzakete kultura-harmena sustatuz haur-hezkuntzan.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

1) Norbere buruari eta kulturari buruzko hausnarketa

Hezitzaileen artean autohausnarketa eta kontzientzia kulturala sustatuz, ikasleen eta familien aniztasuna ohoratuko duten ikaskuntza ingurune inklusiboagoak sor ditzakegu. Prozesu honen elementuak:

- Norbere balio kulturalak ulertzeko beharra onartzea, gainerakoenak balioetsi aurretik. Irakasleek une oro aztertu behar dituzte beren aurrekari eta aurreiritzi kulturalak sentsibiltate kulturalak hobetzeko.
- Norberaren sinesmen kulturek hezkuntza ulertzeko moduan eta praktiketan eragina dutela onartzea eta ebaluatzea nola eragiten duten praktika kultural nagusiek eguneroko errutinetan, hala nola elikaduran, loaldian eta komunikazioan.

- Azpiratzea gaur egungo heziketa-arauak kulturari dagozkionak direla eta ez direla mundu-mailan aplikagarriak
- Familia anitzekiko interakzio desafiatzaileak identifikatzea, balio eta aurreiritzi ezkutuak aurkitzea.
- Praktika pedagogikoak kritikoki aztertzea familia guztientzat inklusibitatea eta ekitatea bermatzeko.

2) Beste kulturen inguruan hausnartzea eta konplexutasun kulturala onartzea

Lehen haurtzaroko hezkuntzan dagoen kultura-aniztasunari buruz hausnartzean eta onartzean, hezitzaileek ikaskuntza-ingurune inklusiboak eta kulturalki harkorrak sor ditzakete, era horretan, haur guztien garapen holistikoa laguntzeko. Prozesu honen elementuak:

- Etnia eta kulturak haurren eta familien nortasunean duen garrantzia errekonozitzea.
- Estereotipoak saihesteko beharra nabarmentzea eta nortasun kulturalen konplexutasuna ulertzea.
- Familien praktika, ikuspuntu eta sinesmen kultural espezifikoak ulertzen saiatzea.
- Familia minoritarioen ikuspuntuak erabiltzea praktika pedagogiko tradizionalak zalantzan jartzeko.

3) Aniztasunarekiko jarrera positiboak garatzea.

Aniztasunarekiko jarrera positiboak landuz, hezitzaileek ingurune inklusiboak sustatu ditzakete haur eta familia guztiak baliogaitasuna, errespetatuta eta babestuta senti daitezen beren ikasketa bidean. Prozesu honen elementuak:

- Jarrera positiboek kulturalki harkorrak diren praktikekiko konpromisoa, justizia soziala, jakin-mina, malgutasuna, enpatia eta sentsibiltatea barne hartzen dituztela onartzea.
- Aniztasuna goraipatu eta onartuko duten ingurune inklusiboak, seguruak eta errespetuzkoak sortzea.
- Haur guztien arrakasta potentzialaren uste osoa partekatzea, arrakastak esan nahi duenaren aniztasuna aitortuz.

4) Familiekin lan egitea baliabide baliotsu gisan

Familiekin lotura sendoak sortzeko esker, hezitzaileek ikaskuntza-ingurune inklusiboak sor ditzakete, non inplikaturako familia guztien jatorri, sinesmen eta balio anitzak ohoratu eta txertatuko dituzten. Prozesu honen elementuak:

- Oinarrizko elementu gisa familiekin harreman puruak eta zintzoak azpiratzea etxeko praktiken eta sinesmenen inguruan ikasteko.
- Hitzezko eta ez-hitzezko komunikazio egokia erabiltzea errespetua, arreta eta zintzotasuna sustatzeko.
- Denboran zehar konfiantza eta ulermena sortzeko estrategiak erabiltzea, hala nola bizilekuetara bisitak eta elkarlanerako gonbitak.
- Arreta familiekin ikuspegiak jasotzean eta onartzean jartzea, norberarenak inposatu ordez.
- Iritziak alde batera utzi eta familiekin elkarpenak informazio baliotsu gisa aintzat hartzea.
- Kultura-trukea bultzatzea eta balioen eta sinesmenen inguruko elkarriketak erraztea, familiekin baliok curriculumean txertatuz.
- Desparekotasun eta desberdintasun kulturalak errespetuz eta modu proaktiboan hitz egitea.
- Familiaren konpromisoa indartzea hezkuntza-ingurunean familiekin parte-hartze aktiboa sustatuz, presiorik gabe.
- Erabakiak elkarlanean hartzearena hobetzea familiak haurren ikaskuntzari eta garapenari buruzko erabakiak hartzean parte-hartze gonbidatuz, zorro elektronikoko elkarriketen edo oharren bidez.

5) Begiratu eta aztertu

Hezitzaileek haurren eta familien jatorri kultural eta esperientzia anitzak ohoratu eta haietan oinarrituko diren ikaskuntza-esperientziak sor ditzakete, eta familiekiko behaketa eta elkarrizketa txertatuko dituzte curriculumaren garapenean. Prozesu honen elementuak:

- Ikuspegi analitikoak erabiltzea, haurren behaketa bateratuz familiekin elkarrizketekin, era horretan curriculumaren garapen kulturala sentikorraren berri emanez.
- Familiako praktikak, elkarrizketak eta haurren jarrera behatu haien interesak, trebetasunak eta balioak ulertzeko.
- Gonbidatu haurrak beren familiei eta interesei buruzko elkarrizketetara, haien ikuspegiak eta komunikazio-estiloak hobeto ezagutzeko.
- Kontziente izan botere-dinamikez eta desparekotasunaz haurrak behatzean, hala nola gizarte-bazterkeriaren ereduak eta material kulturala anitzen erabilera.

6) Erantzuna

Kulturala sentikorrak diren curriculum-praktikak aplikatzearen bidez, hezitzaileek ikaskuntza-ingurune inklusiboak sor ditzakete, non haurren jatorri anitzak errespetatzen dituzten eta akademikoki eta sozialki aurrera egiteko aukera ematen dieten. Prozesu honen elementuak:

- Partekatutako esperientzien erantzun anitzak aitortzea, esperientzia guztiz ezberdinak eskaini ordez.
- Curriculum haurren bizitzan eta aurrekari kulturetan oinarritzea, kulturantzaren esanahia indartzeko.
- Haurren hizkuntza eta ideiak bultzatzeko jolasean oinarritutako ikaskuntza balioestea, haien esperientzia eta testuinguruekin lotuz.
- Ikasteko hainbat aukera eskaintzea, bai behaketa, bai esplorazio independentea, baita talde-jarduerak ere.
- Zaintza-errutinak negoziatzea kulturala ezagunak diren hizkuntza eta arauak erabiliz.
- Curriculumaren alderdi guztiak zabaldu jarri eta berriz lantzea, tokiko kontzeptuetan eta ebaluazio-praktika harkorretan oinarrituta.
- Arrazismoaren eta estereotipoaren inguruko istiluak hurrekin modu irekian hitz eginda eta irtenbideak bilatuta konpontzea.

7) Baliabideak

Baliabideak kulturala harkorrak eta inklusiboak izango direla bermatzean, hezitzaileek haurren eta familien aniztasuna ohoratzen eta goraiatzeko dituzten inguruneak sor ditzakete, eta, aldi berean, guztientzat esanguratsuak diren ikaskuntza-esperientziak sustatzen dituzte. Prozesu honen elementuak:

- Baliabideak langileengan, kudeaketa-batzordeengan, haurrengan eta familiengan egon daitezkeela onartzea.
- Familien kulturarekiko sentikorrak diren baliabide fisikoak eguneroko programetan txertatzea, mural erakusketa edo noizbehinkako ospakizun gisa eduki beharrez.
- Haurren nortasun kulturalak balioesteko eta askotariko nortasun positiboak eskaintzeko liburuak, irudiak eta kartelak erabiltzea.
- Kultura-bazterketari ekitea, zenbait jarduera ez ezagutzeak haurrak bazter ditzakeela onartuz eta hori arintzeko neurriak hartzea.
- Hurrei beren jatorri kulturalak ezagutu eta adierazteko aukera eskaintzea zentroan.
- Familiak inguruan parte-hartzera gonbidatzea eta parte-hartze aukerak neurritan egitea.
- Material irekiak eskaintzea bermatzeko haur guztiek eraiki ditzaketela beren esperientzietan oinarritutako esanahiak.

Beharrezko materiala	Haurren nortasun kulturalak balioesteko eta askotariko nortasun positiboak eskaintzeko liburuak, irudiak eta kartelak. Material irekiak bermatzeko haur guztiek eraiki ditzaketela beren esperientzietan oinarritutako esanahiak. Familien kulturarekiko sentikorrak diren baliabide fisikoak.
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	Aldizkako bilerak planifikatu praktikei buruz hausnartu eta eztabaidatzeko. Txertatu elementu kultural espezifikoak (esaterako, musika, jostailuak, liburuak eta kartelak) eguneroko funtzionamenduaren zati gisa, proiektu edo gertaera gisa erabili ordez, familiei eta hurrei zentroan gustura sentitzen laguntzeko. Gonbidatu beste familiak gaiak eta ekitaldiak iradokitzen laguntzen eransteko. Eskaini aukera eta kanal mota ezberdinak familiek eta hurrek beren iritzia eta iruzkinak adierazteko (eztabaidak, online plataformak, postontzi anonimoak, etab.).

Izenburua	Head Start programa- Ameriketako Estatu Batuak
Egilea/Iturria	Ameriketako Estatu Batuak
Aipua / URL	- Head Start - Lehen Haurtzaroaren Ikasketa eta Ezagutza Zentroa <i>Head Start ikuspegia</i> [webgunea]. https://eclkc.ohs.acf.hhs.gov/programs/article/head-start-approach - ChildCare.gov [webgunea]: https://childcare.gov/
Data	1965etik gaur egunera arte
Sarrera Laburra	

Hirurogeita hamargarren hamarkada hasieran, Estatu Batuetako biztanleriaren zati nabarmen bat pobrezia egoeran bizi zen. Lyndon B. Johnson Estatu Batuetako presidenteak pobreziatik ateratzeko aukera ikusi zuen hezkuntzan. Haren programa politikoan (Gizarte Handia) pobrezia errotik desagerraraztea aldarrikatu zuen “Pobreziaaren aurkako Gerra”-ren bidez. Hasieran, lanean arraza- eta genero-diskriminazioa debekatzeko legeak onartu ziren, hezkuntza segregatua abolitu zen eta Head Start bezalako programa integral bat martxan jartzeko aukera sortu zen. Head Starten helburua egoera babesgabeen zeuden eta diru-sarrera baxuak zituzten familietako haurren gaitasunak hobetzea zen, baita eskolarako prestatzea ere. Head Start hasieran, 8 asteko udaleku programa gisa hasi zen eta 3 eta 5 urte bitarteko haurrak laguntzen zituen Head Start Haurren Garapen Zentroetan. Haurren garapenerako programa integral bat diseinatu zuten, egoera babesgabeen dauden eskolaurreko adineko haurren beharrak asetzeko. Denbora laburrean, eskolarako prestakuntza-programa bat izateraino aldatu zen eta, geroago, familien parte-hartze aktiboarekin, berreskuratze-programa bat izateraino. Haren funtzionamenduaren arrakastari esker, 1967an Parent and Child Centers proiektua sortu zen, zeinak 3 urtetik beherako haurrak zituzten familiei zerbitzuetara heltzeko aukera eskaintzen zien. Hortik sortu zen 1994an Early Head Start programa, zeinak lehen hiru urteen garrantzia azpimarratzen duen. Head Start eta Early Head Start programetan parte-hartzea doan da eta Estatuak finantzatzen du. Programa horiek irabazi-asmorik gabeko tokiko antolakundeek, ekintza komunitarioko agentziek eta eskola-barrutiek kudeatzen dituzte. Programako parte-hartzaile hautagarrien familiako/etxeko diru-sarrerak ez dute gainditzen pobrezia-jarraibideetan (HHS Poverty Guidelines) zehaztutako kopurua, edo diru-sarrerak edozein direla ere, Estatuaren laguntza jasotzen dute, harrera-familiak dira edo etxerik gabeko familiak. Parte-hartzea doakoa da.

Programaren oinarriak honako hauek dira:

- Gizabanako bakoitza haren ingurune kulturalera sakon lotuta dago.
- Komunitatearen osaera kulturala kontuan hartzen da programak antolatzeke orduan.
- Programa eraginkorrak ezberdintasun linguistikoen onarpenean oinarritzen dira.
- Estereotipoak pertsonak ulertuz baliogabetzen dira.
- Inklusioaren printzipioan oinarritutako gizarte plurala defenditzea.
- Ezberdintasun soziokulturalekiko sentikorrak diren profesionalak erabiltzea.
- Kultura ezberdinetako familien jatorriak ulertzea funtsezkoa da.
- Kulturen arteko ulermena babestea eginkizun garrantzitsua da.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

- Haurren garapen osasuntsua babestea (sozial, emozional, kognitibo eta komunikatiboa).
- Osasun-azterketak (entzumena, ikusmena, etab.).
- Jarduera fisikoak eta motrizitate larrikoak eskaintzea barruan eta aire zabalean.
- Otordu osasuntsuak ematea eta elikadura-kultura sustatzea.

- Sormenezko eta gaiari buruzko jolas-jarduerak.
- Familien parte-hartze aktiboa.
- Desgaitasuna duen haurren inklusioa eta haren indarguneak sustatzea.
- Haurdunaldian eta erditu ostean laguntzea.
- Finantza-hezkuntzan eta -formakuntzan familiak laguntzea.
- Bizilekuetako bisiten zerbitzua.

Bizilekuetako bisitatzaileak lan horretarako beharrezko formakuntza osatu duten profesional prestatuak dira. Zerbitzuaren helburua pertsonak eta familiak komunitatean txertatzea da haien kultura ulertuz. Haien zeregina eguneroko jardueretan familiak laguntzea da, hala nola zaintza prozesuetan, eguneroko planifikazioan, denboraren kudeaketan eta adinari egokitutako jolas-jardueretan. Garrantzitsua da jarduerak ez haiek egitea, baizik eta soilik familiak gidatzea. Etxeko bisitatzaileak familia barneko kalitatezko denboraren planifikazioa errazten du, partekatutako jolaserako aukerak eskainiz. Familiekin elkarrizketak hasten ditu eta hitzez orientatzen ditu ekintza egokietara, arretagunea familiengan jarritz eta gai bihurtuz.

Bizilekuetako bisitatzaileak 10 eta 12 familia inguru izan ditzake (posible da aldaketak egotea familiak haur ugari baldin baditu edo familiak urrutiago bizi badira, joan-etorrien denbora luzatzen baitu horrek) Bisitatzaileak mentore-gainbegirale batek gidatzen ditu eta hark esleitzen dizkie familiak profesionalei eta harengana jo dezakete familia berrien parte-hartzeari buruzko kontsultak egitera. Profesionalek astero bisitatzen dituzte familiak, bakoitzari 90 minutu eskainiz gutxienez. Early Head Start programarako, bisitatzaile bakoitzak urtean 46 bisita egin behar ditu gutxienez eta Head Start programarako, urteko 32 bisita behar dira. Galdutako bisitak errekuperatu egin behar dira. Familien bisita indibidualaz gain, harrera-familiek parte-hartzen duten taldeko jarduerak antolatzen dira eta horrek sozializazio prozesuan laguntzen du. Early Head Start programarako horrek 22 saio suposatzen ditu, eta Head Start programarako, urteko 16 saio. Saio hauek harrera-familiekin batera planifikatzen dira eta haien beharretara, lehentasunetara eta haurren adinera egokitzen dira.

Beharrezko materiala	Langileen nortasuna, komunikatzeko gaitasuna eta jarrera erabakigarriak dira. Sinesgarritasuna garrantzitsua da. Iristen diren familientzat laguntzaile sinesgarrienak Head Starten parte hartu duten familiak dira; horrenbestez, jatorri horretako langile kopuru handia egongo da.
Hezitzaileentzat oharra eta iradokizunak	Bisitarien esperientziak gain, ezinbestekoa da jarrera enpatikoa eta irekia. Familiaren funtzionamendua eta kultura onartzea beharrezkoa da, baita haien ikuspuntutik aukerak hauteman eta erakusteko gai izatea ere.

Izenburua	Suzuki metodoa- Japonia
Egilea/Iturria	Japonia
Aipua / URL	- Papp, B. (2016). Útkeresés a Japán zenepedagógiában: A Szuzuki-módszer (Musikaren pedagogia japoniarrean bilaketa: Suzuki metodoa). <i>Parlando</i>, 1. - Rohlen & K. LeTendre. (2012), <i>The Suzuki Method of music instruction</i> (345-368 or.). Cambridge: Cambridge University Press. - Suzuki metodoa [webgunea]: https://www.suzukimethod.or.jp/english/
Data	XX. mende hasieratik erdialdera

Sarrera Laburra

Suzuki metodoa XX. mendeko hezkuntza-erreformako metodo esanguratsuenetakoa da; izan ere, bikain egokitzen da hezkuntza-erreformako mugimenduen eremuan eta, aldi berean, Japoniako elementu bereizgarriak txertatzen ditu.

Metodoa instrumentuetan oinarritzen da eta defendatzen du musika-heziketa fetuaren garapena baino lehen hastea, etorkizuneko emakumeak musika entzunez. Etapa honetan, instrumentuak jotzen ere hasi daitezke etorkizuneko haurrarekin praktikatzeko. Haurrek 2-3 urterekin hasten dute haien heziketa partituras irakurtzeko premiarik gabe ezta irakurtzen eta idazten jakiteko beharrik gabe ere. Klaseetara amekin batera joaten dira. Instrumentua jotzen ikasten dute musika-notazioa irakurtzen edo idazten jakin aurretik. Metodoaren oinarria imitazioan datza, ama-hizkuntza ikasten dugun eraren antzera.

Gau egun, metodo honek hogeita hiru herrialdetan ditu sukurtsalak, 300000 ikaslerekin mundu osoan. Metodoaren ikasle gazteenek arreta handia bereganatu dute biolin eta piano pieza zailak denek batera interpretatzean; izan ere, konposizio horiek lehen musikari profesionalek eta aldizkako prodijioek soilik zekizkiten. Metodoak, berez, hezkuntzaren ikuspuntu japoniar bereizgarria mantentzen badu ere, sakon sustraitutako suposizio kultural japoniarrak irudikatuz, atzerriko herrialde ugaritan arrakastaz ezarri izanak frogatzen du zein erakargarria den eta nolako gaitasuna duen kultura desberdinetara egokitzeko. Beste herrialdeek ezarri ostean, metodoaren alderdi batzuk aldatu egin dira, harrera-kulturetako tokiko jarreretara eta hezkuntza-praktiketara egokitzeko. Hau bereziki agerikoa da Estatu Batuetan, non metodoa bere homologo japoniarretik nabarmen ezberdintzen den (adibidez: ezberdintasunak abestien erabileran edo haurren autonomia handiagoa). Suzuki elkarte estatubatuarrez eta japoniarrez gain, Europako, Asiako eta Pazifikoko elkarteak ere badaude. Europako herrialdeen erdiek baino gehiagok Suzuki eskola edo fundazio bat dute gutxienez. Asian, antolakundeak daude Malaysian, Indonesian, Korean, Taiwanen eta Filipinetan. Pazifikoko eskualdean, Suzuki elkarteak daude Zeelanda Berrian eta bost Australian. Afrikan, fundazio bat dago Hegoafrikan.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Nazioarteko Suzuki Elkarteak definitutako funtsezko oinarriak honakoak dira:

- Musika entzutearen garrantzia.
- Hasiera goiztiarra (normalean 3-4 urteekin herrialde gehienetan).
- Instrumentuak jotzen irakastea musika irakurtzen ikasi baino lehen.
- Ikasteko ingurune txeratsu eta positiboa eskaintzea.
- Mundu osoko Suzuki ikasle guztiek ezagutzen duten abestien errepertorio bat (Papp, 2016).

Suzukik Alemanian ikasi zuen biolina jotzen, eta errepertorioaren zati handi bat mendebaldeko konpositoreen obrak dira.

Gainera, errepertorioan kanta herrikoiak eta Suzukik berak idatzitako konposizioak gehitu ziren. Errepertorio osoa Talent Education-en webgunean aurki daiteke. Suzuki ikasle guztiek errepertorioko abestiak ezagutzeak beste haurrekin elkarreragitea errazten du: musikaren hizkuntzaren bidez, munduko Suzuki ikasle guztiak elkarrekin komunikatu daitezke. Horrek zubi bat sortzen du, kultura ezberdinen artean loturak eskainiz, metodoaren ezaugarri bakarrei eta musikaren unibertsaltasunari esker.

Metodoaren beste oinarri garrantzitsu bat familien parte-hartzea da. Haurra ez doa bakarrik klasera, gurasoek ere instrumentu bat hartzen dute. Era honetan, haurrak etxean praktikatu dezake gurasoek gainbegiratuta. Familien inplikazioak haurra motibatzen du.

Beharrezko materiala


Suzuki metodoaren arabera, irakasleen egiaztapenerako bost maila daude, baxuenetik altuenera. Instrumentu nagusiak hauek dira:

- Biolina, biola, biolontxelo, pianoa eta txirula. Suzuki eskoletan, irakasleek instrumentu horien formakuntza jasotzen dute. Horiez gain, Europan, banakako irakasleek ondorengo instrumentuak ere irakasten dituzte:
- Kontrabaxua, txirula, mandolina, gitarra, tronpeta, harpa eta organoa.

Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak

Kasu guztietan, familieek beren haurraren musika saioetan parte hartzen dute. Saioa haurraren aldartera moldatzen da beti.

Espainia





Bertako Praktiak

Izenburua	EIEL (Escuela Infantil de Entidades Locales) - Ses Païsses: “Sembrando semillas en un ambiente ecosostenible con todas las fortalezas de la comunidad educativa”
Egilea/Iturria	Reyes, M.I., Casau, R., Hidalgo, C., Benítez, M.C., Tur, M.A., Marí, C. eta Díaz, E. (2023). Buenas prácticas de educación para el desarrollo sostenible. Sembrando semillas en un ambiente ecosostenible con todas las fortalezas de la comunidad educativa. Secretaría General Técnica.
Aipua / URL	Gidaliburua: <i>Buenas prácticas de educación para el desarrollo sostenible. Sembrando semillas en un ambiente ecosostenible con todas las fortalezas de la comunidad educativa</i>. Secretaría General Técnica. https://www.libreria.educacion.gob.es/libro/coleccion-de-buenas-practicas-de-educacion-para-el-desarrollo-sostenible-no-9-sembrando-semillas-en-un-ambiente-ecosostenible-con-todas-las-fortalezas-de-la-comunidad-educativa_184056/
Data	2021-gaur egun

Sarrera Laburra

“Hezkuntza komunitateko indar guztiekin ingurune ekoiraunkor batean ereitea” praktika ona “Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzako Jardunbide Egokien Bilduma” gidaliburuan jasotako 13 praktiketako bat da. Praktika horretan, Ses Païsseseko Udal Haur-eskolak ikuspegi ekologiko eta holistiko batean barneratzen ditu txikienak, naturarekin harremanetan heziz, bertan behatu, ikasi eta elkarlanean aritu daitezen errespetuzko harremanean eta elkarren menpekotasuna onartzen. Praktika honek garapen jasangarrirako hezkuntzan ikastetxeak eta beren ingurune soziala hobetzen laguntzeko ikuspuntuak eskaini nahi ditu.

Ekimena arazo honetatik sortu zen: Ikastetxeetako jolastokiak eta kanpoko espazioak ez ziren oso gustukoak eta erabiltzaileentzat ez ziren espazio lagunkoiak. Horregatik, bai familiek bai hezitzaileek espazio horiek itxuraldatzeko beharra ikusi zuten, baita eskolako gainerako instalazioekin batera ikasteko espazio bat bihurtzekoa ere. Helburua espazioari ikusgarritasuna ematea zen eta ikasleek motrizitate gaitasunak garatu, naturarekin elkarreragin, kideekin sozializatu eta beren sormena garatu zezaketen leku bat bihurtzea. Aldaketa horrekin, proiektuak honako helburu hauek lortu nahi zituen:

- Aire zabaleko espazioen erabilera hobetzea eta ikasleentzat ikasteko leku bihurtzea.
- Elkarlana eta hezkuntza-sarea osatzen duten eragile guztien parte-hartzea bultzatzea: ikasleak, senideak, hezkuntzako langileak, pedagogiako profesionalak, haurtzaindegietako profesionalak, etab.
- Jolas askearen garrantzia azpimarratzea eta esperimendazioa, ikasketa eta sormena sustatzea askotariko jolas moduak eta jarduera anitzak eskainiz.
- Garapen ekologikorako hezkuntza integrala bultzatzea. Jolas eremura elementu naturalak gerturatzea material naturalen eta birziklatuen erabilera txertatzearekin batera.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Ekimen hau berritzailea da prozesuan zeharkako ikuspegia aplikatzen duelako, hasieratik bukaerara.

Hau da, hezkuntza komunitate osoa eta hura osatzen duten eragile guztiak (familiak, ikasleak, irakasleak, erakundeak, teknikariak, etab.) prozesuan inplikatzeko lortzen du eta haien arteko elkarlana sustatzen du. Proiektuak ikasleak ere ulertzen ditu ez soilik ikusle moduan, baizik eta indar eta autonomia handia duten eta irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren erdian dauden pertsona gisa. Haiek dira azken finean parte-hartuko eta sortuko dutenak, eta etengabeko ikaskuntza prozesua izango da.

Elkarlan hau zati guztien koordinazioaren bidez lortzen da, batez ere, inplikaturako eragile bakoitzarekin bilerak antolatzen. **Jarduerei** dagokienez, lehenik eta behin, bilerak antolatu ziren eskolako pedagogia-langileekin planteamendua definitzeko; ondoren, familiekin, proposamena azaltzeko. Jarraian, materiala biltzeko, altzariak fabrikatzeko eta bestelako logistikarako lantaldeak antolatu ziren. Azkenik, lana bat programatu zen eta martxan jartzearen zatirik handiena egin ahal izan zen. Azken xehetasunak ikastetxeak emango dizkio.

Ekimen honek barne hartu nahi dituen edukiak 3 **alorretan** antolatzen dira: 1) Hazkuntza Harmonian; 2) Inguruaren Aurkikuntza eta Esplorazioa; 3) Komunikazioa eta Errealitatearen Errepresentazioa. Alor horiek bat datoz haurren esperientziaren eta garapenaren eremuekin, eta ikasleentzat interesgarriak eta esanguratsuak diren ikaskuntza-proposamenen bidez landu behar dira. Proposamen horiek zeharka garatu behar dira, hau da, osatzen duten elementu guztiekin (ikasleak, jolas-eremuak, ingurunea, etab.) elkarreragiten eta harremanak eratzen.

Alor horien bidez, ikasleen garapenera zuzendutako ekintzak eta zereginak integratu nahi dira. Hau da, haien ezagutza eta ikaskuntza prozesuak indartu nahi dira. **Metodologikoki**, pertsona bakoitzaren erritmo indibidualetikiko errespetuaren funtsezko printzipioak gidatzen du hori guztia, baita konfiantza, ongizatea eta segurtasuna emango dituen ingurune eraginkor, parte-hartzaile eta berdintasunezkoaren ezinbesteko arretak ere.

Praktika honek, ikastetxeak dituen baliabide eta espazioen arabera, hainbat eskalatan kopiatzeko aukera eskaintzen du. **Ekimena kopiatzeko jarraitu beharreko urratsak:**

- Espazio erabilgarria probatzea: Sortu taldeak eta aztertu jolastokiak eskaintzen dituen aukera guztiak esperientziei, jolasei, elkarreragiteei, eta abar dagokienez. Era honetan, inspirazio eta aukera berriak sor daitezke.
- Elkarlaneko proiektu kolektiboa izanik, gauzatzea bideratzeko hainbat proposamen eta ikuspuntu sortu ziren. Adibidez, ingurumenarekiko errespetuzko baloreak transmititu nahi badira, kontuan hartu zen eraikuntzako materialen erabilera, hala nola egurra, harriak, sokak eta beste material birziklagarri batzuk. Materialak sormenez, modu atsegina eta pedagogikoan kokatu behar ziren.
- Behin proposamenak amaituta, hezkuntza komunitate osoan jakinarazi ziren eta praktikan jarri.
- Proiektua gauzatu zuten profesionalen eta inplikaturako eragileen artean autoebaluazio-sistema bat praktikan jartzea; prozesu horrek proposamen eta ekimen berriei ateak irekiko dizkie.

Ebaluazioari dagokionez, proiektuak analisi-prozesu bat aplikatu zuen, zeinak dokumentazio-material gisa erabiliko ziren irudi eta bideoak bildu zituen. Material hori ebaluazio-prozesuko atal gisa erabiliko zen eta materialetarako, altzarietarako, dekoraziorako eta espazioen erabilera optimorako ideia berriak ekartzen lagundu zuen.

Azkenik, ebaluazio-prozesu bat gauzatu zuen proiektuak, elkarrizketak, galdetegiak edo autoebaluazio inprimakiak eta gisa horretako praktikak barne hartzen zituen.

Beharrezko materiala	BALIABIDE EKONOMIKOAK: Proiektu hau burutzeko erronkarik handiena finantza-aurrekontua izan zen. GIZA BALIABIDEAK: Halaber, proiektua ekonomikoki ahalik eta independenteena izan zedin, erabakigarria izan zen hezkuntza-sarearen lankidetzatza (ikasleak, familiak, auzokoak, irakasleak, Balearretako Natura Institutuko haurtzaindegiko langileak, etab.). Horretarako, ordea, beharrezkoa da kudeaketa eta koordinazio lan handi bat inplikaturako zati guztien artean (bilerak, batzarrak, proposamenak sortzea, planifikazioa, etab.). BALIABIDE MATERIALAK: Proposamenaren arabera, kontuan hartu behar da proiektua burutzeko beharrezko materiala. Material batzuk besteak baino merkeagoak dira, edo eskuragarriagoak, baina ez dituzte hain ondo jasaten baldintza meteorologikoak, hala nola euria edo eguzkia. Material naturalak eta birziklatuak. BALIABIDE BEREZIAK: Eskola bera; jolastoki berde, jasangarri eta dinamiko bat.
Hezitzaileentzat oharra eta iradokizunak	Proiektu irekia eta inklusiboa da eta ikuspegi ekosozialetik jorratzen da, GJHak (Garapen Jasangarriko Helburuak) eta haurren eskubideak ardatz egituratzaileentzat hartuta. Praktika on hau Agenda 2030en esparruan barneratzen da eta proiektuan zehazki islatzen diren GJHak honakoak dira: GJH 3, GJH 4, GJH 5, GJH 7, GJH 11, GJH 13. Zergatik deitu praktika ona: • Hezkuntza komunitate guztia eta hura osatzen duten eragile guztiak inplikatzeko dira (familiak, ikasleak, hezitzaileak, erakundeak, teknikariak, etab.). • Hezkuntza komunitate guztia ezagutzen eta onartzen dituen bizikidetzatza arauak: Eskola publikoa; Eskola eivissarra; Aniztasunerako eskola: Ekoingurumen eskola (holistiko-sistemikoa); Eskola kontziente; Eskola inklusiboa. • Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko protagonista da ikaslea. • Modu transbertsalean landutako proposamenak. • Ikaskuntzako erritmo pertsonalak errespetatzea. • Inguru eraginkor, parte-hartzaile eta berdintasunezkoa sortzea, zeinak konfiantza, ongizatea eta segurtasuna ematen duen. Informazio gehiago: » http://aulesconscientsaeivissa.blogspot.com/2018/06/ei-ses-paisses-una-es-coleta-conscient.html (Ikastetxearen bloga) » https://twitter.com/jacampomar/status/1520050902610100226 (Twitter 0-3 urteetako jasangarritasuna eta kulturartekotasuna) » http://centresecoambientals.blogspot.com/2020/ (Ikastetxeen bloga Balearretako ekoingurune programan) » https://www.periodicodeibiza.es/fotogaleria/escuela-infantil-eip-ses-paisses-es-imagenes.html (berriak: Ikastetxea iruditan) » https://www.periodicodeibiza.es/pitiusas/ibiza/2023/11/16/2051485/distinguidos-centros-educativos-ibiza-formentera-como-centros-ecoambientales.html (berria: errekonozimendu instituzionala ekoingurune-ikastetxe gisa) » https://www.periodicodeibiza.es/pitiusas/aldia/2023/02/02/1875185/escoleta-ses-paisses-elegida-como-segunda-mejor-espana.html (berria: estatuko bigarren ikastetxerik onena ikastetxeen bilatzaile online batean)

Izenburua	Iraunkortasunerako eskolak SAREAn (ESenRED)
Egilea/Iturria	Gutiérrez, J.M. (2021). <i>Buenas prácticas de educación para el desarrollo sostenible hacia la sostenibilidad en Red – ESenRED</i> .
Aipua / URL	GIDALIBURUA: <i>Escuelas hacia la sostenibilidad en Red (ESenRED)</i> Secretaría General Técnica. https://www.libreria.educacion.gob.es/libro/coleccion-de-buenas-practicas-de-educacion-para-el-desarrollo-sostenible-no-1-escuelas-hacia-la-sostenibilidad-en-red-esenred_171536/
Data	2011-gaur egun

Sarrera Laburra

ESenRED, 2011n sortua, administrazio publikoek (Autonomia-Erkidegoek, Diputazio Probintziales, udalek eta abarrek) sustatutako (unibertsitateaz kanpoko) ikastetxe iraunkorren sareen estatuko sarea da.

“Iraunkortasunerako eskolak SAREAn (ESenRED)” praktika ona “Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzako Jardunbide Egokien Bilduma”-n jasotako 13 praktiketako bat da. Haren helburua jasangarritasunerako ingurumen hezkuntza garatzea da, planetak jasaten duen krisi ekosozialaren aurrean ikasleak ahalduntzeko.

ESenRED sarearen helburu nagusiak honakoak dira:

- Ekintza-sareen, baliabideen, materialen eta ideien arteko topaketa, trukea, lankidetzeta eta hedapena erraztea.
- Haren praktikari buruzko hausnarketa, ebaluazioa eta berrikuntza bultzatzea, jakintza erreferentzia-ereduetan kolektiboki eraikitzeak.
- Proiektu komunak edo sareek partekatzen dituztenak garatzea, ikasleen konpetentzia-ikaskuntza etengabe hobetzeko, parte hartzeko beren protagonismoaren bidez, baita irakasleen konpetentzia profesionala etengabe hobetzeko ere.
- Jasangarritasunerantz doazen eskolen nazioarteko beste sareekin kontaktu, harreman eta proiektu komunak bilatzea.

Sareen sarea hartu-emanerako, ikaskuntza kolektiborako eta jasangarritasunean konpetentzia-maila hazteko espazioa da.

Sarean egindako lana baloratzen da, ideiak, egiteko moduak eta esparru horretan egon daitezkeen proiektu komunak ikuspegi ekosozialetik partekatzeak.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

ESenREDen lanaren oinarri diren **eduki** nagusiak honako hauek dira:

- Partekatutako lidergoa: sareetako teknikariek demokratikoki erabakitzen dituzte ikastaroko zereginak eta denen artean ebaluatzen da;
- Garapen jasangarriko eta herritartasun globalerako heziketa: Balioak eta giza-eskubideekiko errespetua.
- Erantzukizuna: bai indibiduala bai kolektiboa, tokiko eta mundu osoko bizi-kalitatea hobetzeko, jasangarritasunaren ikuspegitik;
- Ikasleen protagonismoa eta ahalduntzea: kontzientzia ekosoziala sustatuz;
- Ekintza eraldatzailea: ekintzarako hezkuntza sustatzen da proposamen eraldatzaileekin.

ESenREDen jarduera nagusiak honako hauek dira

- Mintegia: Ingurumen Hezkuntzako Zentro Nazionalean (CENEAM) egiten diren urteroko sareen ardura duten teknikarientzat elkartzeko eta hartu-emanerako espazioa.
- Planeta Zaindu Gazteen Konferentzia (CONFINT): Bi urtez behingo prozesu pedagogikoa, non nazionalitate eta adin desberdinetako gazteek kontzeptu eta baloreetan sakontzen duten, hala nola
- ekoherritartasunean, iraunkortasunean, demokrazian, erantzukizunean eta parte-hartzean. Sareko autonomia-erkidego batean egiten da.
- ESenREDeko irakasleen sinposioa: Sare ezberdinetako irakasleen urteroko topaketa
- praktika arrakastatsuak, formakuntza eta proiektu komunak garapena trukatzeko.
- ESenRED ekintza, ekainaren 5ean, Ingurumenaren Munduko Eguna dela eta: urtero, ikastetxeei eskatzen zaie hezkuntza- eta komunikazio-ekintza komun bat egin dezatela, gaurkotasuneko gai bati, GJHei eta abarri lotutakoa.
- Metodologiari dagokionez, azpimarragarria da proposamen honen izaera parte-hartzailea eta elkarriketatzaila, eta horri esker egin daiteke lana sarean.
- Burututako ekintza guztiak ebaluatzea ezinbestekoa da antolakuntzan eta sareen sarearen funtzionamenduan, eta hainbat tresnaren eta dinamikaren bidez gauzatzen da. Beharrezkoa da sareetako teknikarien konpromisoa eta sare berriak hartzeko protokolo baten sorrera hobetzea.
- Emaizta batzuk nabarmentzearen, teknikarien hamabi mintegi egin dira CENEAMen; ehunka eskoletako CONFINT Espainia osotik, dozenaka CONFINT autonomiko eta estatu-mailako 5 CONFINT, baita Europako 4 CONFINTetan eta 6 ESenRED irakasleen jardunalditan parte-hartu ere. ESenRED 2021ean honela osatuta zegoen: Espainiar Estatutuko 15 Autonomia-Erkidegoetan 16 sare
- ; 4225 ikastetxe ez unibertsitario (Haur Hezkuntzako batzuk barne hartuta); 1.500.000 ikasle baino gehiago eta 100.000 irakasle baino gehiago. ESenREDek elkarlan akordioak ditu CENEAMekin.

Beharrezko materiala	BALIABIDE MATERIALAK: Proiektu komunak garatzeko beharrezko materiala. BALIABIDE BEREZIAK: Espainiako Autonomia-Erkidego ezberdinetan topalekuak; Ingurumen Hezkuntzako Zentro Nazionala (CENEAM). GIZA BALIABIDEAK: Hezkuntza komunitatea, oro har; inplikaturako irakasleak, ikasleak.
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	ESenRED sareetako ingurumen-hezkuntzako proiektuak GJHei lotuta daude, agertoki erreal eta zehatzetatik, ekologikoki jasangarriagoa eta sozialki bidezkoagoa den mundu baten alde. Eskola bakoitzak testuinguruaren arabera bere proiektua du eta ikuspegi partekatua eta jokaera-ildo komunak ditu. Ordezkariek aldaketa eta aurrerapena bultzatzeko erantzukizun partekatua dute, sareko lana modu horizontalean sustatuz. Era horretan, eragin handia lortzen da ikasleengan eta irakasleengan inguru gertuenean aldaketa ekosozialak sortzen dituzten proiektu komunekin. Zergatik deitu praktika ona? 1) Eskoletan jasangarritasun-kultura bat sortzeko helburuarekin lan kooperatiboa sortzen duen praktika-komunitate bat da. 2) Sareen sare bat da. 3) Lidergo partekatuan oinarritzen da; giza-eskubideen errespetua; erantzukizuna; ikasleen protagonismoa eta gaikuntza; eta ekintza ekosozial eraldatzailea. 4) Sozialki gizarte justuago eta ekologikoki orekatuago bat sortzen da. Informazio gehiago: @esenred21 (X -Twitter-)

Izenburua	Euskara eta kulturartekotasuna gure hirian
Egilea/Iturria	Amelia Barquín eta Karmele Pérez (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea - Mondragon Unibertsitatea) Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) lankidetzarekin.
Aipua / URL	/
Data	2021-Gaur egun
Sarrera Laburra	

Azken urteotan, gero eta familia etorkin gehiago bizi da Euskal Autonomia Erkidegoan. Hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira, baina euskarak jarraitzen du hizkuntza gutxitu bat izaten. Testuinguru honetan, proiektu honek kulturartekotasuna landu nahi du, eta horretarako euskarazko komunikazioa indartu eta euskara ez dakiten familiei hobetzeko tresnak eskaintzen dizkie, eta, era horretan, haien parte-hartzea hobetzen dute.

“Euskara eta kulturartekotasuna gure herrian” izeneko proiektua hainbat udalerritan burutzen ari da, ikastetxeekin elkarlanean, bizikidetzat, kulturartekotasuna eta familien arteko komunikazioa bultzatzeko. Ondoren, udalerri gehiago inplikatu dira, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin. Zehazki, Azpeitian, 0 eta 3 urte bitarteko haur-eskola dago inplikaturik (0 eta 3 urte bitarteko haurrei arreta eskaintzen dien hezkuntza-gunea).

Proiektuaren helburu nagusiak honakoak dira:

- Euskaraz bizitzea. (Euskal kultura, historia, hizkuntza, ohiturak, eta abar baloratuz bizitzea da)
- Familia guztiekin errespetuzko komunikazioa eta ingurua bermatzea, euskara ez dakitenekin ere bai.
- Kulturartekotasuna euskaratik eraikitzea.

Helburu operatibo nagusiak honakoak dira:

- Euskara eta kulturartekotasuna nahastea inplikaturik ikastetxeetan eta hirian.
- Udalerri euskaldun txikietako esperientzia udalerri handiago eta konplexuagoetara eramatea.
- Herri bateko eskola batekin baino gehiagorekin lan egitea eta, beraz, proiektu honetako helburuei dagokienez elkarlanean aritzea.
- Tokiko talde-bultzatzaile bat sortzea, eta elkarrekin lan eginez, tokiko estrategia bat sortzea.
- Herriko aukerak eta beharrak identifikatzea eta estrategiak elkarrekin sortu eta aplikatzea.
- Eskolako eta tokiko praktiketan eragitea: Hizkuntza-harreman eta -estrategia batzuk garatzea; Estrategia horiek komunikatzea, partekatzea, aplikatzea eta aztertzea; Ekintza hauek hezkuntza komunitatearekin kontrastatuta eta adostuta egitea.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena
Proiektuak izaera komunitarioa du eta udalerraren beharrekin eta aukerekin kokatzen da testuinguruan. Testuinguru horretan, adibidez, haur-ekolek funtsezko paper bat dute familien, ikasleen eta hezitzaileen inplikazioan. Ondorengo urratsak proiektuaren fasetzat hartu behar dira: Gaiari eta udalerri bakoitzaren egoerari buruzko arazoak partekatzea; Komunikazio-formatuen prozesua eta aurkezpena adostea; Hezkuntza komunitatearekiko komunikazio-formatuak lantzea; Tokiko eragileekin estrategiak lantzea; Implementazioaren azterketa egitea eta partekatzea; Sistematizazio-irizpideak adostea.

Erabiltzen diren **estrategietako** batzuk ondorengoak dira: bileretan eta jardueretan aldibereko itzulpena; familiekin eta irakasleekin bilerak; whatsapp edo telegram taldeak; familientzat idatzitako oharak.

Metodologikoki, proiektuak izaera elkarriketatzailerik du, eta ingurune seguru bat sortu nahi du, korapilatsuak izan ohi diren gaiak lantzeko. Gakoetako bat prozesua eta martxan jartzea adostuko duen talde-eragile bat sortzea da. Zehazki, zeregin ezberdinak esleituta dituzten hiru lantalde identifikatu dira:

- Talde-eragilearen zereginak: Arazoaren problematizazioa lantzea; Prozesua, estrategia eta esparrua adostea; Ikastetxeko bilerak dinamizatzea, proiektuan parte hartzea eta partekatzea; Udalerriaren beharrak eta aukerak identifikatzea eta estrategia komunak sortzea eta dinamizatzea.
- Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) teknikarien zereginak: Antolatzea, dinamizatzea, gainbegiratzea eta dokumentatzea (akta idaztea); Ikastetxeko irakasleekin eta familiekin formakuntza egitea eta feedbacka jasotzea; Unibertsitateko aholkulariekin lotura eta koordinazioa izatea.
- Unibertsitateko (HUHEZI – Mondragon Unibertsitatea) aholkularien zereginak: Proiektuaren koordinazio nagusia; Ikastetxeetako irakasleekin eta familiekin formakuntza egitea eta feedbacka jasotzea; Prozesuan beharrezkoak diren tresna guztiak erraztea; Prozesuaren ebaluazioan laguntzea.

Ebaluazio gisa, prozesuetan erabiltzen ari den tresnetako bat AMIA analisisa da, garatzen ari den proiektuaren ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak identifikatu ahal izateko.

Emaitzei dagokienez, eskolak proposaturikotako dinamiketan hobekuntza egon da familia ez euskaldunen parte-hartzean eta komunikazioan.

Beharrezko materiala	BALIABIDE MATERIALAK: aktak, hizkuntza ezberdinetan dokumentuak, itzultzaileak, Telegram/Whatsapp, etab. BALIABIDE BEREZIAK: Udalerria; ikastetxeak. GIZA BALIABIDEAK: Hezkuntza komunitatearen inplikazioa. Inplikaturikotako eragileek borondatez parte hartu behar dute; ikastetxeek irakasleen, zuzendaritzaren eta familia-elkartearen oniritziarekin parte hartu behar dute urtebetez inplikatzeko; ikastetxe eta herri bakoitzaren beharretara egokituko den talde-eragile bat sortuko da; proiektuak izaera elkarriketatzailerik du eta giro adeitsua bultzatu nahi du.
Hezitzaileentzat oharak eta iradokizunak	Hedatzen ari den proiektua da eta beharrezkoa izango da lortzen diren emaitzen jarraipena egitea. Zergatik deitu praktika ona? • Familia etorkinen parte-hartzea eta komunikazioa sustatzen duen proiektu komunitarioa. • Euskara inklusioaren elementu giltzarri gisa. • Kultura ezberdinekiko errespetua, etorkinen hizkuntzak errespetatuz. Informazio gehiago: https://www.uema.eus/eu-ES/Albisteak/Orriak/20240313_Zaldibia-topaketa-UEMA.aspx (berriak) https://uztarria.eus/azpeitia/1709826138383-etorkinen-seme-alabak-eta-euskara-elkarrekin-pentsa-dezagun-saioa-egingo-dute-asteazkenean (berriak) https://www.youtube.com/watch?v=utyPb4-huD8 (Youtube) https://azpeitia.eus/berriak/item/8952-euskara-eta-kulturartekotasuna-uztartzeko-egitasmoa-jarri-da-abian (berriak)



Kide ez den herrialde europar bateko praktikak

Izenburua	“KOALA” proiektua: Polonia, Zipre, Grezia, Belgika eta Ipar Mazedoniako Errepublika
Egilea/Iturria	Embrace Project. 2023. <i>Fostering a Culture of Inclusion - Handbook</i> .
Aipua / URL	HANDBOOK: <i>Inklusio kultura sustatzea - Gidaliburua</i>. https://project-embrace.eu/wp-content/uploads/2023/11/EMBRACE_PR3_HANDBOOK_EN.pdf
Data	2022- 2023

Sarrera Laburra

Oinarritzko kalitatezko zerbitzuek, bizitzako lehen urteetatik, eragin positiboa eta iraunkorra dute haurren garapen sozial, emozional eta fisikoan, eta, geroago, haren eskolako emaitzetan. Orokorrean, egoera babesgabean dauden eremuetako familiek gutxiago jotzen dute haurtzaindegiz-zerbitzuetara. Auzo batzuetan, jaiotzen direnetik aukera gutxiago dituzten lau haurtxo eta haur txikietatik bati eragiten dio gabezia-arriskuak, eta horrek arrastoa uzten du haien bizitzetan. Koala proiektua arazo honi aurrea hartu eta eragozten ahalegintzen da haurren arreta emateko eta familiei laguntzeko oinarritzko zerbitzuen auzo-elkarte baten bidez.

Koala egoera zaurgarrian dauden familietan ardazten da, zeinak egoera babesgabean eta auzo jakin batzuetan bizi diren eta 9 hilabetetik 3 urtera bitarteko haurrak dituzten. Proiektuaren gidalerroak (Kind & Gezin-ek sortuak) egoera zaurgarrian dagoen familiatzat deskribatzen dute jarraian zenbakituta dauden gabezia-irizpideetako hirutan (edo gehiagotan) puntuazio desegokia lortzen duenean:

- Familiaren hileroko diru-sarrerak.
- Familien heziketa maila.
- Haurren garapena.
- Familien lan-egoera.
- Etxebizitzaren egoera.
- Familiako kideen osasun mental eta fisikoa.

Familiak jardueretara heltzen dira zentro komunitarioa ezagutzen dutelako edo gizarte-eragileek bertara bidaltzen dituztelako, hala nola Kind & Gezineko erizainek-medikuek, tokiko eskolak, zentro komunitarioko langileek, osasun-zentro komunitarioek, nazioarteko Caritasek eta haurtzaindegiekin.

Familiak Koalara haurdunalditik beren haurrak 3 urte bete arte batu daitezke.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Koala proiektuek "familia-laguntzaren eskaintza integratua" eskaintzen dute, familientzako harremanetarako gune irisgarri bat antolatuz, baita haurrentzat asteroko jarduerak ere (ikasteko ingurune aberats eta ahaltsua). **Koala jardueretan** parte hartzean, konfiantza harreman bat hazi daiteke, eta, bertatik, bizitzako beste esparruetara zubi bat eraiki daiteke: prebentziozko osasun-arreta, eskolaurreko hezkuntza, lan komunitarioa eta haurrentzako jarduerak, kultura, nederlandera praktikatzeko aukerak, enplegua, hezkuntza-aukerak, etab. Familiak sutsuki bidera daitezke instalazio horietara, **arreta berezia eskainiz haurren zaintzari eta lan komunitarioari**.

Koala proiektuak jarduera gehigarriak ere eskaintzen ditu (ez asterokoak). Horiek izan daitezke, besteak beste, tokiko liburutegia bisitatzea, inguruko haur-parkeak esploratzea, familien eta haurren arteko kirol-jardunaldietan parte hartzea, tokiko komunitateko osasun-zentroa bisitatzea, terapia sententoralean parte hartzea edo eskaintzea (hileroko jarduera). **Jarduera bakoitza kontu handiz eraikitzen da MeMoQ esparru pedagogikoaren esperientzia-arloak barne hartzeko: ni eta bestea, gorputza eta mugimendua, komunikazioa eta adierazpena, eta munduaren esplorazioa.**

Jarduerak hezkuntza-filosofian eta Reggio Emiliaren ikuspuntuaren pedagogian oinarritzen dira, zeinak autozuzendutako ikaskuntza esperimentalak erabiltzen duen harremanetan oinarritutako inguruetan. Koala bisitatzen duten familia askok hainbat hizkuntza hitz egiten dituzte etxean, eta familia gehienek oso gutxi dakite nederlanderaz, edo batere ez, eta, beraz, estimulazio linguistikoaren elementuak gehitzen dira beti, gurasoen hizkuntzen garrantzia alde batera utzi gabe.

Emaitzak eta ebaluazioa KOALAn helburua honako eragin hauek lortzea da:

- Haur txikien garapen aukerak maximizatzea inguru aberats baten eta inklusioaren bidez (MEMOQ).
- Zaurgarritasun egoeran dauden familien sarea zabaltzea haien inguruko laguntza iturriak eta laguntzarako antolakundeak jakinaren gainean erabili ditzaten.
- Familien erresilientzia handitzea bizitzako hainbat eremutan arrakasta senti dezaten eta haientzat eta haien haurrentzat garapen aukerak lortu eta baliatu ditzaten.

Azken helburu gisa, Koalak garapen aukera guztiak eskaintzen dizkie haurrei (eta ondorioz, helduei eta familia osoari) heldu erresilienteak bihurtzeko. Langileek familia osoa ahalduzko lan egiten dute, baita bertan babes daitezkeen sare zabal eta sendoa sortzen laguntzeko ere.

Beharrezko materiala

BALIABIDE MATERIALAK: besteak beste, jostailuak, ipuinak, kartulinak, margoak, txotxongiloak, koltxonetak, egokitutako altzariak.

BALIABIDE BEREZIAK: ikastetxea bera, tokiko liburutegia, parkeak eta inguruko berdeguneak, etab.

GIZA BALIABIDEAK: proiektua lankidetzan dabiltzan hainbat eragileren inplikazioari eta parte-hartzeari esker garatu daiteke: zentro komunitarioko profesionalak, inguruko osasun-profesionalak, haur-eskolako hezitzaileak, familiak eta beste gizarte-eragile batzuk.

Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak

Zergatik deitu praktika ona?

- Haurren eskubideen alde lan egiten du familiak laguntzen.
- Komunitatean lan egiten du.
- Zerbitzu integratuak, holistikoak eta beharretan oinarritutakoak eskaintzen ditu.
- Urtero, Koala proiektua familia gehiagorengana iristen da, laguntza indibiduala eskaintzeko nahiz taldeko jarduerak gauzatzeko.
- Familien jarraipenak beste laguntzek segi dezaketen unera arte edo familiak benetan harengana jo dezakeen sare informal bat sortu arte irauten du.

Informazio gehiago:

<https://vbjk.be/nl/projecten/koala-kind-en-ouderactiviteiten-voor-lokale-armoedebestrijding>

<https://vimeo.com/775708788>

Enfoque Reggio Emilia:

<https://www.reggiochildren.it/en/reggio-emilia-approach/valori-en>

Izenburua	Proiektua: Nire eskola ideala; nahiko nukeen eskola - Italia
Egilea/Iturria	Antonini, et al. 2024. <i>My Ideal School - Children as Policy Makers - Pilot Action Activity Handbook</i> . Bologna: Bolonia: Boloniako Unibertsitatea - Itzulpengintza eta Interpretazioa Saila.
Aipua / URL	GIDALIBURUA: My Ideal School - Children as Policy Makers - Pilot Action Activity Handbook. Bologna: Bolonia: Boloniako Unibertsitatea– Itzulpengintza eta Interpretazioa Saila. https://newabc.eu/wp-content/uploads/2023/09/Handbook-MyIdealSchool_compressed.pdf
Data	2021-2024

Sarrera Laburra

Gaur egun, Europan, jatorri etorkina edo errefuxiatua duten haur eta gazteek desberdinkeria eta eskolako gatazken aurka borrokan jarraitzen dute. Arazo horri aurre egiteko, garrantzitsua da haur etorkin eta errefuxiatuak trebatzea horri aurre egiteko eta irauteko moduak aurkitzeko. Gainera, inklusio-integrazioa bermatzeko estrategia eraginkorrak behar dira. EBak finantzatutako NEW ABC proiektuak aldaketa estrategikoa erraztu dezakeen ikuspuntu eraldatzaile eta parte-hartzailea proposatzen du. Proiektuak interesa duten parteen ahotsak eta gazteek zuzendutako jarduera berritzaileen garapena nahasten ditu kosorkuntza inguru batean. Proiektuak barne hartzen ditu EBeko kide diren bederatzi Estatutan berrikuntzako bederatzi ekintza pilotu: Helburu nagusia epe luzera ekintzen emaitzetan moldagarritasuna, eskalagarritasuna eta jasangarritasuna bermatzea da. Proiektu-esparru honen barnean hainbat proiektu pilotu garatu ziren, partekatzen dugun esperientzia topatzeko espazio bat: **“Nire eskola ideala; nahiko nukeen eskola”**, proiektu honetan 3 urtetik 14 bitarteko ikasleek parte hartzen dute.

Ekintza pilotu honen helburua haurrei, familiei eta komunitateei beren ahotsa aurkitzen laguntzea da eta hezkuntzaren arloan dituzten benetako beharrak beste parte interesdun batzuei helaraztea, hala nola tokiko, eskualdeko eta nazioko arduradun politikoei. Haurrek, familiek,

- Lehenik eta behin, haurren, familien eta irakasleen ahotsak eragina izan behar du gelako jardueren "mikro" mailan. Haien ikuspuntua adierazteko eta ikastetxeetako eguneroko jardueren garapenean dagoen aldea seinatzeko aukera izan behar dute.
- Bigarrenik, parte interesdunen ikuspuntua ezagutzera eman behar da, eta sinergiak eta loturak sortu tokiko, eskualdeko eta nazioko arduradun politikoei. Kasu honetan, helburua haurren eta familien ideiak lehen planoan jartzea da, eta, era horretan, arduradun politikoak behartzea haien ikuspuntuak kontuan hartzea.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Jarduerak, oro har, fase hauek izan zituzten: 1) Ideia-zaparrada, 2) Ideien mapa kontzeptuala, 3) Jarduera elkarrekin sortzea, 4) Jarduera burutzea, 5) Hausnarketa eta ebaluazioa, eta 6) Klase/eskolaren amaierako ekitaldi batean familiei aurkeztea.

- Proiektu pilotu horrek ondorengo azpiproiektuak garatu zituen:
- IRAKURLE TALDEAK.
 - INKLUSIOARI BURUZKO KAMISHIBAI.

irakasleek eta komunitateek, batez ere, jatorri etorkina dutenek hezkuntzaren oztopoak gainditzeko beren ahotsa erabiltzeko aukera izateak haien ekintza gaitasuna handitzen du, eta bide ematen die hezkuntzaren kontuetan eta erabakiak hartzean beren benetako beharrak arduradun politikoei ikusarazteko. Helburuak bi mailatan espero dira:

- GELA BAT ERABERRITU.
- LIBURU DIGITAL BAT SORTU.
 - TXOTXONGILOEN ANTZERKIA.
 - POESIA.
 - JATEKO ESKOLA BAT.

Metodologiari dagokionez, esan dezakegu jokaera-esparru orokorra KOSORKUNTZA dela; proiektu pilotu honen jarduerak elkarrekin sortzen dira, partaidetzazko, goranzko eta haurraren beraren/eskolaren ikerketa-ekintza teorietan oinarritutako ikuspegi anizkoitza hartuta. Ikuspegi horrek ikaskuntzaren garrantzia integratzen lagunduko du maila kultural, sozial eta emozionalean, eta horrela, inklusioa sustatzen eta hobetzen lagunduko du.

Eskolan garatutako proiektuak, ikusi dugun bezala, hainbat formatu hartzen ditu (azpiproiektu ezberdinak), besteak beste, ikasleen adinaren arabera; esaterako, 3 urteko ikasleek *“Jateko eskola bat”* metaforaren bidez lan egin zuten.

Adierazle batzuk erabilgarriak izaten daitezke zure jarduera ebaluatzeko. Haietako batzuk (edo denak) erabiliz ebaluatzeko tresna bat garatu dezakezu.

- » Haurren parte-hartzea.
- » Sare-lana eskolan.
- » Familien parte-hartzea.
- » Arduradun politikoen parte-hartzea.
- » Garapen profesionala.
- » Mundu-mailako eragina

Beharrezko materiala	(Azpiproiektu bakoitzaren arabera, <i>“Jateko eskola bat”</i> -i aipamena:) BALIABIDE MATERIALAK: Elikagaiak (galletak, txokolatea...) eta askotariko materialak BALIABIDE BEREZIAK: - GIZA BALIABIDEAK: irakasleak, ikasleak, familiak eta udalerriko kideak.
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	(<i>“Jateko eskola bat”</i> azpiproiektuari dagokionez:) Elkarrekin uki daitekeen zerbait eraikitzea eta elkarrekin jatea dakarten jarduerak oso eraginkorrak izaten dira eskolaurreko zentroetan; haurrak aniztasunaren balioez eta eskolan dituzten harremanen balioez (irakasleekin eta kideekin) sozializatzeko tresna moduan erabil daitezke. Jarduera mota horien bidez, haurrek hainbat gaitasun kognitibo eta sensoriomotor ere garatzen dituzte. Zergatik deitu praktika ona? Sare-lana bultzatzen du irakasleen, gizarte-eragileen, familien eta abarren artean. Jarduera honek haurren parte-hartzea bultzatzen du, eta, ondorioz, haurtzarotik ekintza sozialean duten formakuntza ere, eta, hala, beren eskola ideala amesten/diseinatzen dute. Jarduera hauek erraz erreproduzitu daitezke. Informazio gehiago: https://newabc.eu/project/ https://newabc.eu/pilot-school-contest-my-school-children-as-policy-makers/

Izenburua	“A GOOD START” (Eslovakia, Hungaria, Mazedonia, Errumania, Espainia)
Egilea/Iturria	UNESCO and the Council of Europe (2014). <i>Haur ijitoentzat lehen haurtzaroko arreta eta hezkuntza inklusiboari buruzko gidalerroak</i> . Strasbourg: United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization (UNESCO).
Aipua / URL	<i>Haur ijitoentzat lehen haurtzaroko arreta eta hezkuntza inklusiboari buruzko gidalerroak</i>. Estrasburgo: Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea (UNESCO). https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000227503/PDF/227503eng.pdf.multi
Data	“A Good start” 2010an jarri zen martxan.

Sarrera Laburra

Proiektua egoera babesgabeen dauden haur ijitoei zein ijito ez direnei zuzenduta dago, jaiotzetik 6 edo 7 urtera arte, baita haien senide edo zaintzaileei ere. Lau herrialdetako 16 herritan egiten da (Mazedoniako Jugoslaviar Errepublikak Ohia, Hungaria, Errumania eta Eslovakia), eta eskolaurreko, komunitateko eta etxeko zerbitzuak eskaintzen ditu. Helburuak eskolarako prestakuntza eta haur parte-hartzaileen bizitzako ondorengo aukerak hobetzea, eta haur ijitoen lehen haurtzaroko arreta- eta hezkuntza-kalitatezko zerbitzuetarako sarbidea zabaltzea dira. Proiektuaren jarduerak REFek eta bere bazkideek egindako erreferentziatzko inkestak aztertu ondoren diseinatu ziren, LHHaren zerbitzuen estalduraren eta kalitatearen eta helburuzko herri bakoitzeko eskolatzearen ikuspegi orokorra lortzeko.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Jaiotzetik 3 urteak bitarte, arreta garapenean ardatzen da. Landu beharreko gaiak ondorengo hauek dira: osasuna, nutrizioa eta elikadura zaintzeko jaiotzen erregistroa, komunikazioa eta aholkularitza, bularreko haurren eta zaintzaileen arteko elkarrekintza nabarmenduz; jolasaren arreta, garapen soziala eta haur txikien hizkuntzaren garapena, ikaskuntza ingurune harkorra, aberatsa eta estimulatzaileria eskainiz.

Laburbilduz, **jarduera nagusiak hurrengoak dira**: haurrak laguntzea haurtzaindegi formaletara joan daitezen; irakasleak eta laguntzaileak trebatzea; haurrentzat eskola informaleak ematea; familientzat eskolak ematea eta matrikulazioarekin laguntzea (adibidez, nortasun-agiriak, txertaketak).

Oro har, **metodologia** parte-hartzaileekin lan egin da, zeinak ikasleen eta beren familien beharretan ardatzen diren, hezkuntza multikulturalaren ikuspegitik, kultura-aberastasun horri balioa emanez. Azpimarratzekoa da garatutako proiektu batzuetan proposamenak Waldorf esparru pedagogikoan barneratu direla.

A Good Startentzat (AGS) jarraipen eta ebaluazio sistema integral bat diseinatu zen onuradunengan hasierako egoera jasotzeko eta proiektuaren osteko ondorioa zehazteko.

Erabilitako tresna nagusiak hauek izan ziren:

- ebaluazio komunitario bat, herri bakoitzerako informazio-oinarri bat ezarriko duena, familiei eta eskura dauden lehen haurtzaroko hezkuntza- eta arreta-zerbitzuei buruzkoa;
- etxeko inkesta bat, familien jarreretan eta portaeretan oinarritua, hezkuntzaren eta zaintzaren kontuetan, oinarritzko datu sozioekonomikoekin; eta
- datu-base bat, besteak beste, etxeko inkesta, familiek proiektuko jardueretan duten parte-hartzeari buruzko informazioa eta hurrek eskolaurrean duten asistentziari buruzko informazioa biltzen ditu.

Orain arte, **proiektuak hezkuntzarako eta osasunerako sarbide-oztopoak eraistea lortu du, eta, horrenbestez, haur gehiago sartzen dira eskolaurreko hezkuntza orokorrean edo informalean eta osasun-zerbitzuetan**. Familiek ezagutza gehiago dituzte hezkuntzaren eta arreta goiztiarraren inguruan eta harreman hobeak daude haurtzaindegien eta familia ijitoen artean. Emaizak hauek dira: egoera babesgabeen dauden haur erromanientzat kalitatezko eskolaurreko hezkuntzarako sarbidea hobetzea; haurrak hazteko praktikak hobetzea; haur erromani txikiarentzat osasun- eta arreta goiztiarreko zerbitzuetarako sarbidea eta erabilera hobetzea; eta kalitatezko lehen hezkuntza orokorrerako trantsizioa eta sarbidea hobetzea.

Dagoeneko ingurune babesgabeetako 4.350 ijito eta haur dira programaren onuradun zuzenak.

Beharrezko materiala

BALIABIDE MATERIALAK: Gidalerroek haur ijitoen zaintzarekin, garapenarekin eta hezkuntza goiztiarrarekin lotutako funtsezko lau gairi buruzko orientazioa ematen dute. Hautatutako gaiak ondorengoak dira: (1) haur ijitoentzako LHHa programa nazional bat; (2) curriculum eta pedagogia; (3) hasierako formakuntza, garapen profesionala eta lehen haurtzaroko profesionalentzako laguntza; eta (4) etxetik edo lehen haurtzaroko programetatik lehen hezkuntzarako trantsizioa. Gidaliburuak praktika onen adibide ugari ematen ditu, baita irakurketa iradokizunak eta aipaturiko gaien inguruko baliabideak ere.

BALIABIDE BEREZIAK: eskola bera, udal-espazioak (laguntza-, osasun-, enplegu-zentroak...).

GIZA BALIABIDEAK: proiektua lankidetzan dabilzan hainbat eragileren inplikazioari eta parte-hartzeari esker garatu daiteke (familiak, eskolako profesionalak, etab.)

Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak

Proiektu holistiko bat da, eta ondorioz, ezinbestekoa da erakunde eta eragile gehiagoren inplikazioa. Hori posible ez balitz, haur-eskolek egin ditzaketen jardueretan zentratu daiteke.

Zergatik deitu praktika ona?

- Ebaluazio parte-hartzaile eta sakonean oinarritzen da.
- Izaera komunitario handia du.
- Emaizak onak lortzen ari da ikasleak haurtzaindegietan eskolaratzeari dagokionez, baita beren komunitateetan modu integrarean garatzeari dagokionez ere.
- Hainbat herrialdetako leku ugarian erreproduzitzen ari da.

Informazio gehiago:

<https://www.romaeducationfund.org/activities/>



Europaz kanpoko praktikak

Izenburua	Buenos Aires probintziako Mercedes hiriko Estatuko kudeaketa publikoko hartzaindegiak
Egilea/Iturria	Burgos, N., del Carmen Silva, M., Grinóvero, N., Villamonte, P., Bregagnolo, N., Gusbert, J. V. & Lodi, A. (2019). <i>Investigaciones sobre buenas prácticas en educación inicial en Argentina</i> . Scientia Interfluvius. 10(2), 17-42.
Aipua / URL	<i>Investigaciones sobre buenas prácticas en educación inicial en Argentina</i>. Scientia Interfluvius https://revista.uader.edu.ar/index.php/aasif/article/view/134
Data	2017-2018
Sarrera Laburra	

Haur Hezkuntzako praktika onak nazioarteko, kultura anitzeko eta diziplina anitzeko ikuspegitik identifikatzeko ildo estrategiko baten parte da.

Artikulu honek Buenos Aires probintziako Mercedes hiriko Estatuko kudeaketa publikoko hartzaindegiak burututako praktika onak aztertzen ditu. Praktika onak hiru oinarritzko elementutan oinarrituta aztertu ziren: eragileen ikuspegi pertsonala, praktikak berak eta aurreko elementuen arteko harremana. Irakasleei egindako hainbat elkarrizketen bidez, azpimarratzen zituzten arazoak ezagutu ziren. Zehazki, komunikatzeko modu ezberdinek (internet, telefono mugikorrak...) nolabaiteko arrakala ireki zuten komunitatea informatzeko orduan eta haurrei eskaintzen zaien hasierako formakuntzan. Espazio honetan, beren errealitatearekin kritikoak diren haurrak hezi nahi dira, jakintza berriekin parte-hartzaileak eta irekiak, entzute arretatsua bultzatuz ikuspuntu guztiz inklusibo batetik.

Arazoa antzeman ondoren, "Entzuten dugu, badakigu, adierazten dugu, komunikazioa eskubide gisa, komunikazioa hitzeko eta ez-hitzezk hizkeren bidez" proiektua burutu zen. Proiektu honen helburua da komunitatearen komunikazioan gertatzen diren aldaketetara —hainbat komunikabideren erabilerari dagokionez— egokitutako estrategiak ikusaraztea eta ezartzea, hala nola telefono mugikorrek eta komunikazio modu berriek erakundean eta Hartzaindegiko harremanetan duten eraginari dagokienez.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Planteatutako helburua kontuan izanda, jarduera nagusiak izan ziren espazioak sortzea, non keinua, soinua, kolorea, hitza, hitzeko eta ez-hitzezk hizkera ezberdinak erabili ziren esperientzia integratu moduan adierazkortasuna hobetzeko, eta komunikazio gogoetatsu bat proposatzeko eta, hala, balio demokratikoei eta giza-eskubideei lehentasuna emateko.

Espazioak era honetan banatu ziren klaseen arabera:

- Ez-hitzezkotik hitzekora (Haurren maila)
- Imajinaziorantz (lehen gradua)
- Argazkilaritza (bigarren A gradua)
- Argazkilaritza erakusketa bat aurkezten dugu (bigarren B gradua)
- Hizkuntzak eta komunikazioa (bigarren C gradua)
- Sortzaileok, sortu! (hirugarren A gradua)
- Nik esaten dizut, zuk esaten didazu, guk geure buruari esaten diogu (hirugarren B gradua)

Adibidez, argazkigintzako bi geletan argazkian ikusten zen errealitatearen analisi kritikoa landu zuten. Ikusten zen guztia testuinguru zehatz baten parte zela eta argazkian agertzen ziren pertsona guztiak, benetan, agertzen ziren bezalakoak ez zirela ulertu zuten. Bestalde, irakasleek "Memoria sozialaren alde, CDetan abestiak grabatzea" izeneko proiektua burutu zuten. Disko hau irakasleen, haurren eta familien parte-hartzearekin grabatu zen. Gela bakoitzeko taldeek hitzak sortu zituzten eta musika irakasleak musika jarri zuten.

Metodologiari dagokionez, informazioa biltzeko tresnak erabili ziren, hala nola zuzendaritzarekin eta irakasleekin elkarrizketak; praktikaren behaketa; eta dokumentu instituzional eta profesionalen azterketa.

Aldizkako ebaluazioak egin ziren irakasleen, ikasleen eta familien artean, hainbat adierazle erabiliz. Ebaluazioan egin ziren galderetako batzuk ondorengoak dira: Hartzaindegia barruan eta kanpoan komunikatzeko moduak handitu egin ziren? Zeinen artean? Zein ziren modu horiek? Ohartu ginen komunikatzeko moduen ezaugarriez eta gure eguneroko ekintzetan duten eraginaz? Gure komunikatzeko moduak problematizatu ahal izan genituen? Nola? Irakasleek handiagotu genituen komunikatzeko moduak, hitzekoak nahiz ez-hitzezkak?

Zer komunikazio motatan sentitzen dugu lor dezakegula ulermen handiagoa? Ezarri al ziren irizpide komunak irakasle pareen artean komunikatzeko moduei dagokienez? Zein izan ziren irizpide horiek?

Emaiza gisa, prozesu honek aldaketak ekarri zituen parte-hartze pedagogikoetan, baita harreman horizontalen sustapenean ere. Hobekuntzak lortu ziren irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesuetan, gelako jolas- eta lan-harremanetan, erabaki partekatuetan, hartzaindegiko jardueretan familia-taldean parte-hartze handiagoan, eta abarretan. CD hau komunitate osoarentzat produktu izan dadin, hiriko irrat-instalazioa bisitatu zuten CDa beren programetan erabili ahal izateko.

Beharrezko materiala	GIZA BALIABIDEAK: entitate komunitarioa, esaterako irrat-instalazio komunitarioa. BALIABIDE MATERIALAK: argazkiak, CD, etab. BALIABIDE BEREZIAK: gelak, bilera espazioak, irrat komunitarioako espazioa.
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	Zergatik deitu praktika ona: • Landa-eremu bateko proiektu komunitarioa da, non komunitateko hainbat kolektiboren inplikazioarekin balioak lantzen diren, ikasleak benetako protagonistatzat hartuta. • Ikaslearen autonomiaren garapena. • Haurrarekiko errespetua.

Izenburua	Te Whāriki He whāriki mātauranga mō ngā mokopuna o Aotearoa - Lehen haurtzaroko curriculum - Zeelanda Berria
Egilea/Iturria	Hezkuntza Ministerioa, Zeelanda Berria (2017). Te Whāriki He whāriki mātauranga mō ngā mokopuna o Aotearoa. Early childhood curriculum.
Aipua / URL	Te Whāriki He whāriki mātauranga mō ngā mokopuna o Aotearoa. Lehen haurtzaroko curriculum. https://www.education.govt.nz/assets/Documents/Early-Childhood/ELS-Te-Whariki-Early-Childhood-Curriculum-ENG-Web.pdf
Data	2017
Sarrera Laburra	

Te Whāriki-k Zeelanda Berriko lehen haurtzaroko (ECE) ikastetxeetan erabili behar den curriculum a ezartzen du, eta hura aplikatzeko orientabideak eskaintzen ditu.

Te Whāriki bakarra da bere esparru bikulturalen eta gure ikuspegia adierazten du: Zeelanda Berrian haur guztiak ikasle trebe eta beren buruarekin seguru gisa haztea, baita beren nortasunean, hizkuntzan eta kulturen indartsu ere. Gure oinarri bikulturala, gure orainaldi multikulturala eta sortzen ari garen etorkizun partekatua azpimarratzen ditu. Haur guztiak animatzen ditu beren erara ikastera, ondo ezagutzen dituzten eta beren interesak kontuan hartzen dituzten helduen laguntzarekin.

Te Whāriki curriculum inklusibo bat da, haur guztientzako curriculum bat. Inklusioak generoa eta etnia barne hartzen ditu, gaitasun aniztasuna eta ikasketa beharrak, familia egitura eta balioak, egoera sozioekonomikoa eta erlijioa. Tokiko curriculum honen izaera bereizgarrian lagundu dezaketen faktoreen artean daude, besteak beste:

- ikuspegi kulturalak, adibidez, zerbitzu elebidunak edo murgiltze linguistikoa.
- haur bakoitzaren ikaskuntza-behar espezifikoak.
- egiturazko ezberdintasunak, hala nola zerbitzua lanaldi partzialekoa, eskolakoa edo lanaldi osokoa den.
- ikastetxeko haurren adina.
- ingurumenaren aukerak eta mugak.
- komunitatearen osaketa etnikoa eta kulturala.
- antolaketa- eta filosofia-enfasiak, hala nola Montessori edo Steiner.
- hirigune eta landa-eremuan erabilgarri dauden baliabide ezberdinak.
- Familien, whānau-en eta komunitateen parte-hartzea.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Programak hurrek beren indarguneak, interesak eta trebetasunak garatzeko **jarduerak** eskaintzen ditu, besteak beste, musika, mugimendua, hizkuntza, eraikuntza, artea, sailkapena eta antolaketa, baita gainerakoekin gauzak egiteko jarduerak ere. Hurrek motrizitate larri eta xehea garatzen dituzten jarduerak probatzen dituzte, eta jarduera horiek erronka fisiko eta zentzuzko arrisku maila ezberdinak eskaintzen dituzte. Jarduera horien artean daude eskalatzea, oreka mantentzea, mailukatzea, jauzi egitea, biratzea, isurtzea eta oztopo-lasterketak eta eraikuntza-proiektuak hastea.

Metodikoki, curriculum a lau printzipiotan oinarritzen da: indartzea *[whakamana]*, garapen holistikoa *[kotahitanga]*, familia eta komunitatea *[whānau tangata]*, eta harremanak *[ngā hononga]*. Printzipio horiek curriculum-erabakiak hartzeko oinarriak eta pedagogiaren eta praktikaren alderdi bakoitzerako gida bat.

Ipuin, arte eta kondaira tradizionalak, baita umorea, atsotitzak eta hizkera metaforikoa ere erabiltzeak, komunitate batzuetako haurrak lagundu ditzake testuinguru ohiko eta ez hain ohikoetan nabigatzen.

Programak hainbat ikuspegi kultural hartzen ditu barne, eta familien eta haurren kulturen ezinbesteko garrantzia onartzen eta baieztatzen da era horretan. Talde txikietan eta indibidualetan, esperientzia komunitarioen arteko orekak elkarrenerginerako, lankidetzarako eta intimitaterako aukerak ematen ditu.

Ebaluazioan aztertzen da zerbitzuak zein eraginkortasunez erantzuten dien haur guztien indarguneei, interesei eta beharrei eta nola doan aurrera haien ikaskuntza. Irakaskuntza- eta ikaskuntza-programan, zerbitzua ikasteko lehentasunetan edo ikaskuntzan eta irakaskuntzan eragin zuzena duten ECE zerbitzuko beste elementu batzuetan ardazu daiteke.

Irismen handiko barne-ebaluazio batek azter litzake, adibidez, lidergoa, ikaskuntza ingurua eta familiekin eta whānau-ekin harremanak. Galdetuko diozu zure buruari: Zerk funtzionatzen du ondo? eta zeinentzat? Zer aldatu behar da eta nola? Definizio zorrotzagoa duen barne-ebaluazio bat gertaera edo curriculumeko esku-hartze espezifiko baten ondoren etor daiteke, berrikusteko helburuarekin. Proiektuak proposatzen du ebaluatzeko narratiba-moduek, esaterako, ikaskuntza-kontaktak, ebaluazio hezigarriko segida bat erabil dezaketela: balioetsitako ikaskuntzaz ohartzea, hura onartzea, erantzutea, erregistratzea eta berrikustea. Hurrek beren karpetetako elementuak berrikusteko aukerak ikaskuntzaren inguruko elkarriketak izatera bultzatzen ditu eta autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa bermatzen dute.

Beharrezko materiala	BALIABIDE MATERIALAK: Musika-tresnak, jostailuak, papera, arkatzak, irudimen-jolaserako osagarriak, pintzelak, arrabolak, zigiluetarako tanpoiak, guraizeak, gailu digitalak, musika-tresnak, naturatik hartutako materialak, etab. BALIABIDE BEREZIAK: barruko eta kanpoko jolastokiak, aire zabaleko esperientziek hainbat jolasgune barne hartzen dituzte, hala nola zoru leunak, moketa, belarra eta hareak. GIZA BALIABIDEAK: sare-lanak irakasleen, gizarte-eragileen, familien eta abarren parte-hartzea dakar.
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	Zergatik deitu praktika ona? Proposamena praktika ontzat dugu, besteak beste: - aniztasun kulturalarekin guztiz errespetuzkoa delako, barne hartuz, adibidez, balio eta printzipio maoriak. - hizkuntzari, erduei, eta abarri arreta berezia jartzen dielako. - Sare-lana bultzatzen duelako irakasleen, gizarte-eragileen, familien eta abarren artean. - aztertzen dituelako zailtasun posibleak, inklusiorako oztopoak zentzu zabalean, izan daitezkeenak: fisikoak (adibidez, ingurune fisikoaren diseinua), sozialak (adibidez, parte-hartzea mugatzen duten praktikak) edo kontzeptualak (haur jakin batzuentzat egokitutak jotzen dena mugatzen duten usteak). Informazio gehiago: Ikaskuntza-komunitateak Kāhui Ako https://www.education.govt.nz/early-childhood/teaching-and-learning/communities-of-learning-kahui-ako/

Izenburua	Lehen haurtzaroko esku-hartzeen funtsezko alderdiak. Jasangarritasuneko prozesuak. Lehen Haurtzaroaren Arreta-Programa REEA (Peru)
Egilea/Iturria	Novoa Seminario M. (2020). Lehen haurtzaroko esku-hartzeen funtsezko alderdiak. Jasangarritasuneko prozesuak REEA. Zk. 6, Vol II. Agosto 2020. Or. 54-71. Epistemologia Pedagogikoko Ikasketa Zentro Latinoamerikarra.
Aipua / URL	Lehen haurtzaroko esku-hartzeen funtsezko alderdiak. Jasangarritasuneko prozesuak. Epistemologia Pedagogikoko Ikasketa Zentro Latinoamerikarra. http://www.eumed.net/rev/reea
Data	2008 - 2020 (Ofizialki praktika amaitu izanaz informatu ez bada ere, berreskuratu diren azken eguneraketak 2020ko data duten dokumentuak dira.)

Sarrera Laburra

Lehen haurtzaroaren arreta-programa (LHHA) lehen haurtzaroko haurrei eta haien familiei zuzendutako jarduera egituratu, planifikatu eta ordenatuen multzoa da, lehen haurtzaroko haurren trebetasun motorrak, kognitiboak, sozialak eta linguistikoak garatzeko eta/edo sendotzeko, baita familiek beren arreta hobetzeko dituzten gaitasunak indartzeko ere.

LHHAK badaki bizitzako lehen hiru urteen garrantzia zein den gizakion garapen egoki baterako eta herrien aurrerapen eragile gisa. Ildo horretan, programaren lanak honako hauek ditu ardatz:

- Gaitasunen garapena bultzatzea ondorengo alorretan: Autoezagutzan, ingurune naturalarekiko harremanean eta 3 urtetik beherako haurren komunikazio kognitibo eta sozialean.
- Distrituko familien guraso-kultura indartzean 3 urtetik beherako haurren garapen integrala bermatzeko.
- Irakasleen eta haur hezkuntzako bideratzaileen gaitasunak hobetzean lehen haurtzaroko arreta sustatzeko.
- Sektore arteko erakundeak inplikatzeko, programaren jasangarritasuna bermatzeko.

Praktikako jarduera eta/edo metodo nagusien deskribapena

Lehen haurtzaroari arreta emateko kideak hiru **gaitan** oinarritutako jarraibideak proposatzen ditu:

- Familia gaitzea, familia laguntzeko eta sostengatzeko prozesu batean oinarritzen da, familia bere rolean ahalduzko eta haurren eskubideak bermatzeko.
- Haur hezkuntzako irakasleen eta bideratzaileen gaitasunak garatzea, baita komunitateko boluntarioen ere, familietan eta komunitatean lehen haurtzaroaren arreta sustatzeko.
- Hezkuntza-gune egokiak ezartzea, haurren estimulazio egokia bideratzeko, familien parte-hartze zuzenarekin.

Proposatutako ekintzen bidez esku hartzeko moduak, hala nola:

- 1.1 Ekintza:
Lehen haurtzaroari arreta emateko programa diseinatzea, osasunaren eta hezkuntzaren artean eratua.
 - 1.1.1 Ekintza: Lehen haurtzaroari arreta emateko gaitze programa baten partaidetza-berrikuspenaren tailerra, osasunaren eta hezkuntzaren artean eratua, genero ikuspegien eta ingurumenaren kontserbazioaren ikuspuntutik, honako hauei zuzenduta: Hasierako Hezkuntzako irakasleei eta animatzaileei, familiei eta komunitateko boluntarioei.
 - 1.1.2 Ekintza: Lehen haurtzaroaren arretari dagokionez, familian eta komunitatean aldaketaren adierazle espezifikoak modu parte-hartzailean eraikitze eta zabaltzeko tailerra.

- 1.2 Ekintza: Familiei zuzendutako gaitzea, 3 urtetik beherako haurrak behar bezala zaintzeko, genero-ikuspegian eta ingurumenaren kontserbazioan, tokiko diziplina anitzeko talde batek.
 - 1.2.1 Ekintza: Gaitze-tailerra diziplina anitzeko taldekideentzat, familia-sustatzaileentzat eta lehen haurtzaroko batzorde komunitarioko kideentzat.
 - 1.2.2 Ekintza: Gaitze-tailerra Morropón barrutiko komunitateetako familientzat.
 - 1.2.3 Ekintza: Irrati-programa baten garapena lehen haurtzaroaren arreta sustatu eta zabaltzeko.
 - 1.2.4 Ekintza: Lehen haurtzaroaren arretaren inguruan informazio-eskuorriak banatzea familiei.
 - 1.2.5 Ekintza: 3 urtetik beherako arreta prozesuetan familiak etxeetan eta ikastetxeetan laguntzea.
- 1.3 Ekintza: Hezkuntza goiztiarreko irakasleak eta sustatzaileak trebatzea, baita komunitateko boluntarioak ere, familietan eta komunitateetan lehen haurtzaroko arreta sustatzeko.
 - 1.3.1 Ekintza: Gaitze-tailerra hasierako hezkuntzako irakasle eta sustatzaileentzat, herriko hasierako mailako laguntzaile pedagogikoen kontura.
 - 1.3.2 Ekintza: Boluntarioen formakuntza-tailerra herriko hasierako mailako laguntzaile pedagogikoen eta ludotekako laguntzaileen kontura.
 - 1.3.3 Ekintza: Laguntza lehen haurtzaroko arreta sustatzeko eta zabaltzeko prozesuetan.

Lehen haurtzaroko arretaren inguruko **programaren ikuspuntua**:

- » Garapenaren ikuspuntua lehen haurtzaroko arretan: Bizitzako lehen hiru urteetan, garunaren garapena haurren hazkunde orokorraren ardatz nagusia da, eta, beraz, helduek gertakari garrantzitsuenak aro honetan gertatu behar dira.
- » Programaren sektorearteko ikuspuntua: Oro har, familiak, agintariak eta komunitatea inplikatzeko ekintzen jasangarritasuna bermatzen du haurtzaroaren alde, sektore sozial ezberdinek modu koordinatuan helburu komunak bila lan egitea lortzen baitu.

Lehen haurtzaroko haurrei zuzendutako arreta emateko, bi esku-hartze **estrategia** erabiliko dira:

- Saioak ludotekako espazioetan: Ludotekako koordinatzaileak —jarduerak burutzearen ardura— eta komunitateko boluntarioek —ludotekako ardura— formatuko eta aholkatuko ditu— parte hartuko dute.
- Bizilekuetara bisitak: Ludotekatik kanpoko komunitateetan kokatutako etxeetan bizi diren hiru urtetik beherako haurrei beren etxeetan emango diete arreta familietako laguntzaileekin.

Maila **metodologikoan**, inplikaturako familiekiko etengabeko eta errespetuzko elkarriketa nabarmentzen da, eta familietan aldaketa adierazle ebaluazio fitxa aplikatuko da. Ondoren, informazioa sistematizatu eta txosten bat idazten da.

Ebaluazio moduan honako tresna hauek erabiltzen dira: gelan irakaslearen portaera behatzeko gida; familietan aldaketa adierazle ebaluazio fitxa; hiru urtetik beherako haurren errendimendu-mailak neurtzeko tresnak.

Emaitza batzuei dagokionez, programa honetan artatutako biztanleria 186 familia eta 3 urtetik beherako 190 haurretakoa dela nabarmentzen da. Pertsona horiek aldaketa onuragarriak adierazten dituzte ez soilik familia-dinamiketan edo bizimoduan, baita gizartearen jarrera pertsonaletan eta sozialetan ere, haien jardueretan haurrak seguruago eta sozialki estimulatuagoak sentiarazten.

Beharrezko materiala	BALIABIDE MATERIALAK: haurrak, familiak, irakasleak, komunitatea, osasungintzako ordezkariak, tokiko gobernuko ordezkariak, polizia, familia-elkarteak, eliza katolikoa, erakunde pribatuak, etab. BALIABIDE BEREZIAK: 0 eta 3 urte bitarteko hurrekin jarduerak garatzeko materiala. GIZA BALIABIDEAK: jolasguneak, bileretarako espazioak.
Hezitzaileentzat oharrak eta iradokizunak	Zergatik deitu praktika ona: • Lehen haurtzaroaren garapenaren ikuspuntua eta sektorearteko ikuspuntu programatikoa. • Diziiplina anitzeko ekintzak. • Beren udalerrien garapenarekin konprometitutako agintarien presentzia.



2. Kapitulu

LHHaren legegintza- testuingurua eta curriculum- egiturak 0-3 urteko haurrentzat eta gomendio politikoak

Sarrera

SUSIEE gidaren atal honetan gure partzuergoko ikerlariak kide ez diren herrialdeetan LHHA sistemaren beste irudi bat kokatzeaz arduratu ziren.


LHHA sistema kualitatiboaren osagai giltzarrien arabera, EBeko **Kalitate Markoa**-n definitzen diren bezala (Sarbidea, Langileak, Curriculum, Ebaluazioa eta Jarraipena), legegintzako eta curriculumeko dokumentu garrantzitsuak, estatistikak eta LHHAk bere herrialdeetan parametro horiei dagokionez duen egoerarekin lotutako artikulak aztertu ditugu.

Espektro zabalagoa sortzeko asmoz, gure ikerketak LHHAren Kalitate Markoari dagokionez, egungo egoera kulturarteko ikuspuntu eta ikuspuntu jasangarri batekin bat datorren edo ez aztertu du (**GreenComp**).

Gida honen lehen atalarekin lotuta, konparaziozko azterketa horren bidez, posible izan zen zehaztea haur hezkuntzako ikastetxeak kulturartekotasun eta jasangarritasun handiagokoak izateko ahaleginek eta ekimenek legeri nazionalen babesa duten. Gainera, lortutako emaitzak oinarri hartuta, EBko Kalitate Esparruarekin bat etorritik kide diren herrialdeetan LHHA jasangarri eta kulturartekoa aplikatzeko gomendio politikoak adierazi dira, batez ere, sarbideari, langileei eta curriculumari dagokionez.

Beharrezkoa izan denean, batez ere, Espainiaren kasuan, testuinguruari buruzko azalpenak gehitu dira herrialde bat osatu dezaketen legegintza- eta gobernu-maila ezberdinak azaltzeko xedez.

Italia



Legegintza-testuinguruaren analisia

Sarbidea

LHHari buruzko hezkuntza eta formakuntza erabilgarri dago eta eskuragarria da guztientzat? Parte-hartzea sustatzen du eta inklusioa indartzen du aniztasuna babestuz?

Egungo egoera

Italian, hartzaindegia, haurren arreta zentroa izenez ere ezaguna, interes publikoko hezkuntza- eta gizarte-zerbitzua da, 3 eta 36 hilabete arteko haur guztientzat irekia. Familiarekin elkarlanean egiten du lan lehen hartzaroko politiken esparruan haurren hazkundera eta garapena laguntzeko eta hezkuntza-eskubidea bermatzeko, une oro identitate indibidualak, kulturalak eta erlijiozkoak errespetatzen. Gainera, hartzaindegia zerbitzu erabakigarria betetzen du familiei beren laneko bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egiten laguntzen, eta familiako antolakuntza hobe baterako babesa ere eskaintzen du. Haurren arteko desparekotasuna murrizteko faktore erabakigarriak dira hartzaindegietara joatea eta familiarekin kalitatezko denbora igarotzea. Trebetasunak eta gaitasunak eskuratzeko desberdintasunak bizitzaren lehen urteetatik hasten dira eratzen. Hala ere, Italian, 10 haurretatik 1 soilik joan daiteke hartzaindegi publiko batera, eta Calabrian eta Campanian erregistratu dira gailur bereziki negatiboak. Eskualde horietan ia ez dago estaldurarik eta hurrenez hurren haurren % 2,6 eta % 3,6 bakarrik doaz hartzaindegi publiko batera. Egoera horrek ondorio bereziki kaltegarriak ditu egoera ekonomiko behartsuan dauden familietako haurrengan, hartzaindegi-zerbitzu pribatueta eta itunpekoak ez direneta sartzeko zailtasun handiagoak baitituzte.

Eszenatoki hori "Hasierarik onena. Desparekotasunak eta aukerak bizitzako lehen urteetan" txostenean zirraborratzen da, zeina Italiako ikasturtearen hasieraren harira argitaratu zen. Txostenak 2019ko martxotik ekainera Italiako 10 hiri eta probintzian egindako inkesta pilotu baten emaitzak aurkezten ditu: Brindisi, Macerata, Milan, Napoli, Palermo, Prato, Reggio nell'Emilia, Erroma, Salerno eta Trieste. Inkesta hori Centro per la Salute del Bambino-rekin elkarlanean egin zen, eta hark ikuskarpen zientifikoa eman zuen Istituto degli Innocenti eta Maceratako Unibertsitatearekin batera.

Inkesta pilotuak agerian uzten du hezkuntza-desparekotasunak, haurrengan ondorio iraunkorrak izan ditzaketenak, derrigorrezko eskolatzeko aldiari sartu baino askoz lehenago agertzen direla. Ondorioz, hezkuntza-pobrezia bizitzako lehen urteetan landu behar da lehen hartzarokari eta haurren hazkuntzari laguntzeko politika irmoen bidez, eta politika horiek urriak dira gaur egun Italian. Erabakigarria da egoera babesgabeenean dauden familien haurrak ez baztertuta geratzea hezkuntza-aukeretatik, hala nola hartzaindegietatik.

Ikerketaren emaitzen arabera, hartzaindegietara joandako haurrek behar bezala erantzun zieten egindako galderen % 47ri, eta, aldiz, % 41,6a izan zen zerbitzu osagarrietara joan zirenen, eskolaurreko hezkuntza goiz hasi zutenen edo inolako zerbitzurik jaso gabe etxean geratu zirenen artean.

Egiaztatu da hartzaindegira zenbat denbora joaten den faktore erabakigarria dela hezkuntza-pobrezia prebentzioan. Egoera sozioekonomiko babesgabeen dauden eta hiru urtez hartzaindegietara joan ziren familietako haurrek behar bezala erantzun zieten galderen % 50i. 12 eta 24 hilabete bitartean joan zirenen % 42,5en eta urtebete edo gutxiagoz joan zirenen % 38ren aldean, hartzaindegietan egon ez zirenek antzeko ehunekoa dute.

Kulturarteko eta jasangarritasuneko ikuspegia

Italiako sisteman, oso gutxitan aipatzen dira haur hezkuntzako ikastetxeak jatorri etorkineko haurrentzat irisgarriagoak nola egin azaltzen duten protokoloak eta iradokizunak, baina gidalerro batzuk existitzen dira. 2022an, Hezkuntza Ministerioak ondorengo dokumentua argitaratu zuen webgunean "Kulturarteko gidalerroak: Jatorri etorkineko ikasleak integratzeko ideiak eta proposamenak". Dokumentu hori Ikasle Atzeritarren "Integraziorako" eta Kulturarteko Hezkuntzarako Behatoki Nazionalak egin zuen.

Testuak eguneratu eta modernizatu egiten ditu 2014ko ikasle atzeritarrak hartzeko eta "integratzeko" gidalerroak. Helburua antolaketa-metodoak eta gidalerro eraginkorrak eskaintzea da ikasle guztien integrazioa sustatzeko eta eskola bakoitzean kulturarteko dimentsioa bultzatzeko. Gidak onartzen du, urteetan zehar, eskolak garapen esanguratsuak burutu dituztela inklusio-ahaleginei dagokienez. Alabaina, desberdintasunek eta erronkek existitzen jarraitzen dute, baita Italian jaio eta hazi den jatorri etorkineko ikasleentzat ere. Gainera, arrisku nabarmena dago pandemiak arazo horiek areagotu izana eta arakalak eta desberdintasunak handitu, 2021eko "Invalsi" txostenean nabarmentzen den bezala.

Maila legegilean bermatzen da haur guztiek dutela eskolaratze maila guztietara sartzeko eskubidea. Gobernuak gehien deskribatu duen egoera egoitza-baimenik ez duten adingabe atzeritarrak haur-eskoleta sartzeko aukerari buruzkoa da.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da kontuan hartzea haur-eskolek, nahiz eta ez diren hertsiki hezkuntza eta formakuntza formaleko sistemaren parte ezta nahitaezko eskolaratzearen barne, eskolaurreko sistema irudikatzen dutela, ez soilik familiei laguntzera bideratua, baita haurren sozializazio eta hezkuntzara ere. Helburu horiek, Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziaren arabera, ikastetxeentzat aitortutakoen antzekoak dira, eta, beraz, adingabe guztiek aukera berberak izan beharko lituzkete sistema honetan.

Indarrean dagoen legeriak honela definitzen ditu haur-eskolak: "hiru hilabete eta hiru urte bitarteko haurren hezkuntza eta sozializazioa bermatzeko eta familiei laguntzeko egiturak" (448/2001 Legea, 70. art.). Definizio horretatik abiatuta, Auzitegi Konstituzionalak honako hau argitu du: "haur-eskolak ematen duen zerbitzua ez da soilik familiei haurren zaintzan laguntzeko funtzio bat edo familiei lanerako sarbidea errazteko laguntza bat, baizik eta hezkuntza-helburuak ere barne hartzen ditu, haurren potentzial kognitiboa, emozionala eta erlazionala sustatzera bideratuta baitago.

Auzitegiak, gainera, honakoa adierazten du: "legeria arruntak berdindu egiten ditu haur-eskolek lortu nahi dituzten hezkuntza- eta sozializazio-helburuak ikastetxei aitortutakoekin – horrek ez du esan nahi egitura horiek eskolaren sisteman sartu behar direnik–", eta honakoa baieztatzen du: "haur-eskolei aitortutako hezkuntza-helburuei dagokienez, haien erregulazioa hezkuntzaren eremuan kokatu behar da (eskolaurreko fasean bada ere)".

Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziak baieztatu du behin eta berriro haur-eskolak "interes publikoko zerbitzu sozial bereziak" direla. 448/2001 Legeak ezarritako eta Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziak berretsitako printzipioak haur-eskolei buruzko eskualde-lege batzuetan ere erantsi dira.

Haur-eskolei aitortutako "hezkuntza- eta formakuntza-helburuak" kontuan hartuta, erabat aplikagarritzat hartu behar da Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 28. artikuluan jasotako printzipioa, 2. artikuluekin batera, zeinak haur guztien "hezkuntzarako eskubidea" aitortzen duen, egoitza-baimenari dagokionez duten egoera edozein dela ere. Konbentzioaren 2. artikuluan aurreikusitako "diskriminaziorik ez" printzipio orokorrak gain, 3. artikuluko printzipioa nabarmendu behar da; izan ere, horren arabera, haurrei buruzko erabaki guztietan, haurren interes nagusia aintzat hartzea ezinbestekoa da.

Hori kontuan hartuta, ikus dezagun nola aplikatzen den 286/98 Immigrazio Legearen Testu Berrituaren 6. artikuluko 2. paragrafoa. Aurreko kontsiderazioetatik argi ondorioztatzen da haur bat hartzaindegi batean matrikulatzeak atzerriko eskatzailearen (gurasoaren) intereserako ez ezik, haurren eta interes publikoaren intereserako ere badirela (hezkuntzarako eta haurren babeserako eskubideari dagokionez, Konstituzioak babestuta).

Horrenbestez, hartzaindegiarekin eta zerbitzuekin loturik, hala nola otorduak eta garraioa, aipatutako argudio bera aplikatzen da hemen: 286/98 Immigrazio Legearen testu berrituaren 6. artikuluen 2. paragrafoa inskripzioei eta "atzeritarrarentzat interesekoak diren" beste xedapen batzuei buruzkoa da soilik, eta ez haurrarentzat ez interes publikoarentzat interesgarriak direnei buruzkoa; hortaz, haur-eskolan sartzeko ez da baldintzat jarri behar egoitza-baimena aurkeztea. Interpretazio hori jaiotza-erregistroari dagokionez onartu du Barne Ministerioak, eta, beraz, analogia dela eta, haur-eskolarako sarbidera zabal daiteke.

Azkenik, azpimarratu behar da 286/98 Immigrazio Legearen Testu Berrituaren 38. artikulua (94/09 Legeak ez zuen aldatu) ezartzen duela lurraldean dauden adingabe atzeritarrak, egoitza-baimenaren egoera edozein dela ere, "hezkuntza-zerbitzuetara sartzeari buruz indarrean dauden xedapen guztien" mende daudela, eta horien artean sartzen dira, zalantzarik gabe, haur-eskolak arautzen dituztenak. Ikusi den gisan, hainbat eskualdeko legeek, xedapen honekin bat etorritik, agintzen dute eskualdeko lurraldean dauden adingabe atzeritarrei "baldintza-berdintasuna bermatzen zaiela lehen hartzaroaren arreta-zerbitzuetara, eskola-zerbitzuetara eta hezkuntzarako eskubidearen inguruan aurreikusitako esku-hartzeetara sartzeko".

Aztertutako dokumentuak eta iturriak

- Haur eta Nerabeentzako Analisi eta Txostenen Zentro Nazionala. (2022, martxoak 25). *Orientamenti Interculturali per l'integrazione degli alunni stranieri (Ikasle atzeritarrak integratzeko kulturarteko orientazioa)* <https://www.minori.gov.it/it/node/8018>
- Hezkuntza Ministerioa (2022), *Orientamenti Interculturali – Idee e proposte per l'integrazione di alunni e alunne provenienti da contesti migratori* (Kulturarteko orientazioa - Ikasle etorkinak integratzeko ideiak eta proposamenak). <https://www.miur.gov.it/documents/20182/0/Orientamenti+Interculturali.pdf/be99b531-74d3-8035-21af-39aaf1c285f5?version=1.0&t=1647608565245>
- Rozzi, E. (2009). *Il diritto dei minori stranieri privi di permesso di soggiorno all'istruzione, alla formazione e all'Accesoo ai servizi socio-educativi dopo l'entrata in vigore della legge n. 94/091* [Bizileku-baimenik ez duten adingabe atzeritarrek hezkuntza, formakuntza eta gizarte-zerbitzuak eskuratzeko dituzten eskubideak, 94/091 lege-dekretua indarrean sartu ondoren]. https://file.asgi.it/scuola_minori_nota_rozzi_dicembre_2009.pdf
- 2001eko abenduaren 28ko Legea, 448 zk., "Normattiva – Il portale della legge vigente", (<https://www.normattiva.it/uri-res/N2Ls?urn:nir:stato:legge:2001;448-art70-com3>)
- Art. 53 of the Reg. R. n. 4/2007. (2007). https://www.minori.gov.it/sites/default/files/a2_4.pdf
- 286/1998 Legegintzako Dekretua. 1998. Immigrazioari buruzko testu berritua eta atzeritarren egoera juridikoari buruzko xedapenak. <https://www.refworld.org/legal/legislation/natlegbod/1998/it/103116>

Langileak

Zein dira LHHako langileen lan-baldintzak? Nola lantzen du herrialde honetako zuzendaritzak hezkuntza mota hau?

Egungo egoera

Hautzaindegi publikoetako hezitzaileen zerbitzu-baldintzak hitzarmen kolektibo nazionalen arabera arautzen dira, eta sindikatuekin egindako akordioen bidez osatu daitezke maila lokalean. Indarrean dauden kontratu moten ondorioz, kapitulu honetan ez dira zerbitzu-baldintza zehatzak deskribatuko.

Legeria zentralak eta hitzarmen kolektibo nazionalak eskolaurreko, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoetako irakasleen zerbitzu-baldintzak arautzen dituzte. Irakasleek autonomia pedagogikoa dute printzipio konstituzionalen arabera. Hezkuntza eta Merezimendu Ministerioa (MIM) arduratzen da urtero eskolaurreko, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako irakasleak hasierako formakuntza-programetan onartzeko plangintza egiteaz. Plaza libreen guztizko kopurua langileez hornitzeko eskualde-planen eta eskola publikoetako irakasleen behararen arabera zehazten da, eskola bakoitzeko hiru urteko hezkuntza-planean (IUP) jasotzen den bezala. Eskolak eskualde-mailan antolatutako sailkapenen arabera kontratatzen dituzte irakasleak. Sailkapen horiek bi urtean behin egiten diren oposaketa ohiko eta ezohikoen emaitzetan oinarritzen dira. Sailkapenak behin betiko onarpenetik bi urtez dira baliozkoak edo sailkapen berriak argitaratu arte. Hautzaindegi italiarretan haur bakoitzeko langile proportzioa matrikulatutako haur totalaren arabera kalkulatu behar da. Ikastetxeak koordinatzaile pedagogiko bat izan behar du eta hark indarrean dagoen araudiak ezarritako beharrezko hezkuntza-kualifikazioak eta lanbide-baldintzak. Hautzaindegiko jarduerak antolatzeko behar diren langileak dira:

Hezitzaileak: 3-12 hilabeteko bost haur bakoitzeko gutxienez hezitzaile bat egon behar da, 13-24 hilabeteko zortzi haur bakoitzeko hezitzaile bat, eta 25-36 hilabeteko hamar haur bakoitzeko hezitzaile bat, adin-talde hori soilik artatzen duten zentroetan.

Zerbitzu orokorretako langileak: Zerbitzuak barrukoek egiten badituzte eta ez badira azpikontratatu, haur bakoitzeko langile proportzioa matrikulatutako 20 haur bakoitzeko zerbitzu orokorretako langile bat da.

Sukaldeko langileak: Otorduak bertan prestatzen baldin badira sukaldean lan egiteko langileak behar dira.

Desgaitasunak dituzten haurrak daudenean, haur bakoitzeko langileen proportzioa hezitzaile batena izan behar da haur bakoitzeko. Arazo psikosozialak dituzten adingabeak ere baldin badaude ikastetxean, taldeak hezitzaile gehiago izan behar ditu

520/1998 zb. MD-aren arabera, baita zerbitzu soziosanitarioekin lotutako beste profesional egoki batzuk ere. Beharrezko osasun-zerbitzuak Eskualdeko Osasun Zerbitzuak eskaintzen ditu, indarrean dagoen eredu antolatzailearen arabera.

Gainera, egiturak bermatu behar du hezkuntzako eta laguntzarako langile guztiak ondo formatuta daudela eta lehen haurtzaroaren arretako praktika onenen inguruan etengabe eguneratuta. Horrek etengabeko garapen profesionaleko aukerak barne hartzen ditu askotariko beharren kudeaketan gaitasunak hobetzeko, baita hezkuntza berezia eta laguntza psikosoziala ere. Helburua ingurune inklusibo eta aberasgarri bat sortzea da haur guztien garapen holistikoari erantzuteko, edozein dela haien jatorria edo behar espezifikoak.

Oro har, haur bakoitzeko langile proportzio orekatua eta ondo gaitua izatea funtsezkoa da hautzaindegien funtzionamendu eraginkorrerako. Horrek bermatzen du haur bakoitzak behar dituen arreta eta zainketa jasotzen dituela, eta, era horretan, haren ongizatea eta garapen goiztiarra bultzatzen dela. Arau horiek betetzean, Italia lehen haurtzaroari kalitate handiko hezkuntza eta zaintza eskaintzen ahalegintzen da, eta oinarri sendoa ezartzen du herriar gazteenen etorkizuneko hazkunderako eta arrakastarako.

Kulturarteko eta jasangarritasuneko ikuspegia

Italian eskolako langileen barneko kulturarteko kudeaketa ez du zuzenean gobernuak arautzen, esparruek baizik, hala nola “Irakasleentzako kulturarteko formakuntza: Profesionalitatea, Baliabideak eta Erronka Orokorrak” esparruak (2021ean argitaratua), eta gobernuaren ikuskapen eta finantzaketapeko beste ekimen batzuek, hala nola FAMI programak. FAMI programak ekintza espezifikoak barne hartzen ditu eskolako langileen formakuntzarako jatorri etorkina duten ikasleen inklusioaren inguruan. FAMI programak (“Asilo, Migrazio eta Gizarteratze Funtza”), Barne Ministerioak ikuskatua eta Europar Batasunak aldi berean finantzatua, etorkinen inklusio-politikak babesten ditu. Hezkuntza Ministerioak FAMIREN 2021-2027 programazioan parte hartzea estrategia global baten parte da, eta 2014-2020 programazio aldiko esperientzietan oinarrituta dago; etorkin jatorriko adin guztietako ikasleak, bereziki hirugarren herrialdeetakoak, gizarteratzeko politikak indartzera bideratuta dago.

Aurreikusitako esku-hartzeak bi ekintza nagusitan banatzen dira. Lehen ekintzak ikastetxeen parte-hartzea dakar Ministerioaren Hezkuntzaren Eskualdeko Bulegoekin eta administrazio nagusiarekin lankidetzan. Bigarren ekintza beste eragile instituzionalekin burututako ekimen nazional eta europarrak dira.

Bakarrik dagoen etorkin adingabeentzat (MENA) deskribatutako esku-hartzeek gain, programak zuzendariak, irakasleak eta administrazio-langileak hezteko gaikuntza-ekintzak ere baditu. Eskola-sareak sortzea ere badakar, familia eta ikasleentzat “informazio erakusmahaiak” irekitzea, eta Italbase eta Italstudio-n prestakuntza linguistikoaren hobekuntza.

Ekintza nagusiak honako hauek dira:

a) Esku-hartzeak eskoletan hezkuntza-sistema hobetzeko testuinguru multikulturaletan eta periferikoetan.

- b) Hezkuntza zibikoko curriculum berriaren gai nagusietan oinarritutako prestakuntza linguistikoaren programak eta herritar aktiboaren ikastaroak.
- c) Harrera proiektuak.
- d) Etengabeko formakuntza.
- e) Nazioarteko babesaren lerroburuei buruzko sentsibilizazio-proiektuak eta diskriminazioari aurrea hartu eta aurre egiteko ekimenak.

Ahalegin hauen helburua hezkuntza-ingurune inklusibo bat sustatzea da, zeinak integrazioa eta askotariko jatorri kulturaletako ikasleen arrakasta bultzatuko dituen.

Italiako eskolen errealitate multikulturala kontuan hartuz, batez ere pandemiaren argitan, hezkuntza-sistema italiarra aldaketa esanguratsu bat egiten ari da multikulturalismotik —ikasleen osaera deskribatzen duen egiturazko alderdia— kulturartekotasunera, eta irakaskuntza eta ikaskuntza praktikak birplanteatzera behartzen gaitu bide eroso eta inklusiboak sortzeko.

Hausnarketa horien erdian dago irakaslea, bere praktika profesionalean estrategia berriei ekiteko eta haiek garatzeko figura giltzarria. Horrek dakar ondorioz, gaitasun berriak lortzeko formakuntzaren beharra erabat azpimarratzea. Orientazioek argi eta garbi jartzen dute agerian presazko beharra dagoela kulturartekotasunaren kontuari berriro ekiteko, bai zentzurik ezaren arriskua gainditzeko —eskolek jatorri etorkineko ikasleen kopurua azkar handitzen ikusi zuten garai luze baten ostean—, bai erresistentzia posibleak gainditzeko, askotan axolagabekeriak edo gela heterogeneoetan jarduteko gutxieneko ezagutza nahikoak eskuratu izanaren usteak ezkatuta.

Hezkuntzan, jatorri etorkineko ikasleen kide nagusiak beren familiak eta hezkuntza-eragileak dira. Familia atzerriarrentzat beren haurrak harrera-herrialdearen hezkuntza-sistemetan matrikulatzea mugari garrantzitsu bat da. Harrera-herrialdeko zerbitzu eta profesionalekin (hezitzaileak) duten lehen etengabeko eta eguneroko interakzioa da. “Directrices interculturales”-en (Miur, 2022) azpimarratzen den moduan, bertan “familia etorkinek beren rola esperimendatzen dute beste familiekin batera eta eztabaidak izan ditzakete gai erabakigarrien inguruan, hala nola haurtzaroaren ikuskera, zaintzaren ideiak eta hezkuntza-estiloak.”

Ikuspegi global horrek bermatu nahi du kulturarteko hezkuntza ez mugatzea aniztasuna aitortzera, baizik eta eskola-komunitateko kide guztien artean interakzio esanguratsuak eta elkar ulertzea sustatzea. Irakaslearen egitekoa erabakigarria da prozesu honetan eta etengabeko garapen profesionala behar du, baita bere ikasleen askotariko jatorri linguistiko eta kulturalak barne hartzen dituzten metodologia berriak erabiltzera irekita egotea ere. Azken helburua hezkuntza-ingurune inklusibo bat sortzea da, ikasle guztiek aurrera egin ahal izateko eta kulturarteko gaitasuna irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren funtsezko alderdi bihurtzeko.

Aztertutako dokumentuak eta iturriak

- Art. 53 of the Reg. R. n. 4/2007. (2007). https://www.minori.gov.it/sites/default/files/a2_4.pdf
- Raccagni, D. (2022). Kulturarteko praktikak haurtzaindegietan: Zer trebetasunek bultzatzen dute familien arteko elkarriketa? . *Educazione Interculturale – Teorie, Ricerche, Pratiche*, 20(2).
- Fondazione ISMU. 2021. *Guida ISMU - La formazione interculturale dei docenti: professionalità, risorse e sfide globali* (Irakasleen kulturarteko formakuntza: profesionalitatea, baliabideak eta mundu-mailako erronkak). Milan: Fondazione ISMU. https://www.ismu.org/wp-content/uploads/2021/12/La-formazione-interculturale-dei-docenti_-Miur-Rossellini_Colussi.pdf
- 1998ko urriaren 8ko Dekretua, 520. zk. (1999). <https://www.gazzettaufficiale.it/eli/id/1999/04/28/099G0190/sg>

Gobernantza eta finantzaketa

Aitortzen zaio LHHari duen balio eta garrantzia? Existitzen dira arauak eta espektatibak LHHaren egituren kalitatearen inguruan? Behar adina inbertitzen da LHHAn?

Egungo egoera

Giuseppe Valditara Hezkuntza eta Merezimendu Ministroak dekretu bat sinatu du Haur- eskolen Plan berri baterako, 734,9 milioi euroz hornitutakoa. Plan horrek bat egiten du Errekuperazio eta Erresilientzia Plan Nazionalaren (PNRR) helburuekin, eta hartzaindegiko plaza kopurua handitzea du helburu, lehen hartzarotik hezkuntza-eskaintza hobetzeko eta familiei benetako laguntza emateko.

Ahalegin garrantzitsu honek lanpostu berriak sortzea eragin eta PNRRak finkatutako helburu europarrera heldu nahi du.

Dekretuak ez ditu soilik baliabide erabilgarriak esleitzen eta mobilizatzen, udalerrien artean banatzeko irizpideak ere definitzen ditu. Irizpide horiek kontuan hartzen dituzte ISTATen datuak, 0-2 urte bitarteko adin-taldearentzako zerbitzuen egun dagoen estaldurari, bertako biztanleriari eta adin-tarte horretako haur kopuruari buruzkoak.

14 hiri metropolitarrak adierazi diete, eremu horien lurralde-hedaduragatik, hartzaindegiz- zerbitzuak aktibatzeke eta hobetzeko baliabideen zati bat jasoko dutela, 0-2 urte bitarteko adin-taldearentzako zerbitzuen egungo estaldura-maila edozein dela ere.

Inbertsioaren asmoa da hartzarotik hezkuntza-eskaintza hobetzea eta familiei laguntza zehatza ematea, eta, era berean, sustatzea emakumeak lan-merkatuan parte hartzea eta familia-bizitza eta bizitza-profesionala bateragarri bihurtzea. Hartzaindegiko 150.480 plaza berri eskainiko dira guztira.

Kulturarteko eta jasagarritasuneko ikuspegia

Inbertsio-plan berriak ez dira bereziki kulturarteko hezkuntzari buruzkoak. Hala ere, kulturartekotasunari dagokionez Italiako gobernuaren egungo ikuspuntua testuinguru multikulturaletan hezkuntza-sistema hobetzeko tresnak eskaintzean ardazten da, lankidetzak sistemiko eta instituzioarteko baten bidez. Helburua hezkuntza-sisteman jatorri etorkineko ikasleen inklusioa bultzatzen duten baliabide partekatuak eskaintzea da. Esparru horretan, proiektuak gobernantzari eta eskolen eta tokiko komunitateen arteko sareei laguntzeko tresnak sendotu eta aplikatu nahi ditu.

Baliabide horien artean, ISMU Fundazioak argitaratzen ditu urteko txostenak (bereziki arreta jartzen dute gure hezkuntza-sisteman herritartasun italiarra ez duten ikasleen presentzia, ezaugarrietan, beharretan eta ibilbideetan) eta irakasleei, zuzendariei eta ikastetxeetako langileei zuzendutako bost gida. Gida horiek gaika sakontzen dira eta hausnarketak, esperientziak, praktika pedagogikoak, iradokizunak, gidalerro operatiboak, tresna-bildumak eta irakurtzeko gomendioak eskaintzen dituzte. Gaurkotasuneko bost gai jorratzen dituzte, eta kalitate handiko kulturarteko eskola-ingurunea eraikitzeke duten garrantziagatik aukeratuak dira:

Eskola-familia harremanaren kudeaketa, bitartekaritza linguistiko-kulturalaren egitekoa eta hezkuntza-aukera berdintasuna bermatzeko eskola-orientazioa.

Bakarrik dauden etorkin adingabe atzerritarrek hezkuntza- eta formakuntza-sisteman hartzea, eskolak eta tokiko hezkuntza- eta formakuntza-organismo integratuak inplikatuak dituen sareko ikuspegiaren bidez.

Gorrotaren bultzada eta sareko arrazismoa lantzea herritarrek hezteko ikuspuntutik, hezkuntza mediatikoa eta kulturarteko pedagogia txertatuz.

Hizkuntzen irakaskuntzaren esparruan ikuspegi eleaniztuna bultzatzea, eskoletan dauden ama-hizkuntza ugariak balioesteko eta haiei ahotsa emateko, bigarren hizkuntzarekin, hizkuntza akademikoarekin eta atzerrikoekin eta gutxituekin batera.

Irakasleak eta eskolako lidergoak kulturarteko ikuspuntuaz trebatzea, eta testuinguru multikulturaletan lan egiten duten eskolako langileen formakuntza-behar nagusiak identifikatzea, hezkuntza-inguruen bilakaerari gero eta gehiago doituko diren formakuntza-programa berri eta eraginkorrak garatzeko.

Estrategia global horrek bermatu nahi du kulturarteko hezkuntza ez aniztasuna aitortzea mugatzea, baizik eta sustatzea eskola-komunitateko kide guztien artean interakzio esanguratsuak eta elkar ulertzea. Irakaslearen egitekoa funtsezkoa da prozesu honetan eta etengabeko garapen profesionala behar du, baita bere ikasleen askotariko jatorri linguistiko eta kulturalak barne hartzen dituzten metodologia berriei irekita egotea ere. Azken helburua hezkuntza-ingurune inklusibo bat sortzea da, ikasle guztiek aurrera egin ahal izateko eta kulturarteko gaitasuna irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren funtsezko alderdi bihurtzeko.

Jasangarritasunari dagokionez, eskolaurreko instalazioetara bideratutako funts berriekin, ahaleginak jartzen dira batez ere eraikinen eta ingurune seguruaren eraikuntza orokorrean. Inbertsio-plan berriaren helburua da lehen hartzarorako instalazioen eskuragarritasuna handitzea, eta, horretarako, hartzaindegia eta haurtegiak eraikitzen, berritzen eta segurtatzen dira. Horrek hezkuntza kuantitatibo zein kualitatiboki hobetuko du.

Neurria "Do No Significant Harm" (2021/C58/01) Gida Teknikoarekin bat datorrela bermatzeko, proiektuen etorkizuneko deialdiarako erreferentziatzko baldintzetan hautagarritasun-irizpideek kanpoan uzten dituzte honako jarduerak hauek:

- Erregai fosilekin loturiko jarduerak, baita ondorengo haien erabilera ere.
- Emisio Eskubideen Merkataritzako Erkidegoko Araubidearen (ETS) esparruko jarduerak, zeinak lortzen duten berotegi-efektuko gasen aurreikusitako emisioak erreferentziatzko balio egokiak baino txikiagoak ez izatea.
- Zabortegiekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko biologikorako plantekin loturiko jarduerak.
- Hondakinak epe luzera ezabatzeak ingurumena kaltetu dezakeen jarduerak. Erreferentzia-terminoek ere eskatzen dute jardueren aukeraketak dagokion ingurumen-legeria nazionala eta EBkoa betetzea.

Aztertutako dokumentuak eta iturriak

- Italia Domani. Piano Nazionale di Ripresa e Resilienza, Piano asili nido - Nuovi posti negli asili ed edifici ristrutturati. (datarik gabe). (Errekuperazio eta Erresilientzia Plan Nazionala, Hartzaindegien Plana - Plaza berriak hartzaindegietan eta eraikin berrituetan) <https://www.italiadomani.gov.it/it/Interventi/investimenti/piano-asili-nido.html>
- Fondazione ISMU. 2021. Guida ISMU - La formazione interculturale dei docenti: professionalità, risorse e sfide globali (Irakasleen kulturarteko formakuntza: profesionalitatea, baliabideak eta mundu-mailako erronkak). Milan: Fondazione ISMU. https://www.ismu.org/wp-content/uploads/2021/12/La-formazione-interculturale-dei-docenti_-Miur-Rossellini_Colussi.pdf

Bigarren atala: Curriculum-egituren eta programen analisia

Curriculumak

Curriculumak toki-maila edo eskualde- eta sistema-mailan zehazten dira? Curriculumak holistikoak eta malguak dira? Aldizka gainbegiratzen dira? Curriculumak tokiko ingurunearen aniztasuna eta baliabideak, baita haurren eta beren familien aurrekari soziokulturalak ere kontuan hartuz landu dira?

Egungo egoera

Eskolaurreko hezkuntzak haurren hezkuntzan eta garapenean laguntzen dute alderdi emozional, psikomotor, kognitibo, moral, erlijiozko eta sozialean. Harremanetarako, autonomiarako, sormenerako eta ikaskuntzarako ahalmena sustatzen du, hezkuntza-aukeren berdintasuna bermatuz. Familien hezkuntza-rola errespetatuz, eskolaurreko haurren formakuntza integratzen laguntzen du, eta haren autonomia eta ikuspegi pedagogiko bateratuaren bidez, hezkuntzan jarraitzea bermatzen du hartzaindegitik lehen hezkuntzara arte.

Gidalerro Nazionalak haurren gaitasunak garatzeko mugarrak ezartzen dituzte eskolaurreko hezkuntza-jardueren oinarria diren bost "esperientzia-eremutan":

- Norbera eta gainerakoak
- Gorputza eta mugimendua
- Irudiak, soinuak, koloreak
- Mintzamina eta hitzak
- Munduaren jakintza

Esperientzia-eremu bakoitzak gure kulturaren sistema sinbolikoekin lotutako objektuak, egoerak, irudiak eta hizkuntzak eskaintzen ditu, eta, modu horretan, haurren ikaskuntza bizkortu eta lagundu eta haien konfiantza areagotzen du.

2012. urteko Gidalerro Nazionalak 2018an eguneratu ziren, herritartasunerako hezkuntza eta jasangarritasuna azpimarratzen dituzten "agertoki berriak" sartzeko, Europako Parlamentuaren eta Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendioekin bat etorritik, baita NBEK Garapen Jasangarriko 2030 Agendan ezarritako helburuekin ere.

Irakaskuntza metodoak eta eguneroko antolaketa

Eskolaurreko hezkuntzak ongizatea eta ikasketa lasaia bultzatzen ditu, eta hezkuntza-inguruak arretaz prestatu eta eskola-egun osoa kudeatzen ditu. Eskolaurreko curriculumak zaintza momentuen, harremanak egitearen eta ikasketaren bateratze orekatua da.

Ikasketa ekintzaren, esplorazioaren, objektuak ukitzearen, naturaren, artearen eta komunitatearen bidez lortzen da, harremanak edukitzeko eta ezagutzak eskuratzeko ohiko moduan balio duen jolas-testuinguru baten barnean. Irakaskuntza metodologiaren ardatza esperientzia zehatzak, esplorazioa, aurkikuntza, jolasa, saiakera eta akatsa, eta berdinen eta helduen arteko elkarriketa eta elkarrekin dira.

Errutinak bizitzaren funtsezko zatiak dira, etengabe errepikatzen dira eta harrerari, ongizateari, higienari eta pertsonen arteko harremanei lotuta daude. Errutina horiek eguneroko erritmoa erregulatzen dute eta esperientzia eta estimulu berrietarako oinarri segurua eskaintzen dute. Haurrei denboran orientatzen laguntzen diete eta beren gaitasun pertsonal, kognitibo, emozional eta komunikatiboak hobetzen dituzte. Adibide batzuk zerrenda irakurtzea, zereginak esleitzea, zaintza pertsonala, ordena, elkarrekin bazkaltzea eta atsedendak dira.

Bereziki nabarmentzen da jolasa, bertan, haurrek beren esperientzia pertsonal eta sozialak modu sortzailean adierazten, kontatzen eta berregiten baitituzte.

Irakasleek modu ezberdinetan behatzea erabakigarria da haurren alor guztietako garapena ulertzeko eta laguntzeko. Dokumentazioak helduen zein haurren banakako eta taldeko ikaskuntzaren aurrerapena jarraitu, gogoratu eta hari buruz hausnartzen laguntzen du. Ebaluazioak haur bakoitzaren hezkuntza prozesua aitortzen, laguntzen, deskribatzen eta dokumentatzen du heziketa-helburuekin.

Kulturarteko eta jasangarritasuneko ikuspegia

Italiako Hezkuntza Ministerioaren adierazpen ofizialen arabera, eskolak leku ezin hobeak dira ingurumenari, jasangarritasunari, kultura-ondareari eta mundu-mailako herritarrei buruzko hezkuntza-proiektuak hasteko. Tokiko komunitatearekin lotura, ikasleekin eguneroko elkarrekin, hezkuntzaren diziplinarteko izaera eta ikaskuntza ibilbide espezifikoak sortzeko gaitasuna elementu erabakigarriak dira. Faktore horiek ahalbidetzen diote eskolari abangoardian egotea gazteen laguntzari dagokionez, Agenda 2030ean zehaztutako 17 Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) lortzeko. Bidaia horrek esplorazio emozional eta kulturala dakar, baita jasangarritasunaren inguruko sentsibilizazioa, giza-ongizate integrala bultzatzea, ingurumena babestea eta gu guztion etxea zaintzea ere.

Gizarte inklusibo, justu eta baketsuetarantz

Ingurumenari, jasangarritasunari, kultura-ondareari eta herritartasun globalari buruzko gaietan oinarritutako hezkuntzaren bidez, eskolek komunitate-zentzua irakats dezakete, tokikoa zein globala, bereziki belaunaldi gaztearekin dagokionez. Ongizate pertsonal eta kolektiboarekiko sentsibilitate egokia garatzea, bizimodu osasungarriak hartzea eta klima-aldaketaren kontrako borroka behar-beharrezkoak dira hemendik 2030era bitartean gizarte inklusibo, justu eta baketsuak eraikitzeko. Gai horiek zientifikoki oinarrituta dagoen eta nazioartean partekatzen den ikuspuntu global batetik lantzean, eskolek jasangarritasun ekologikoan, sozialean eta ekonomikoan jarri behar dute arreta. Horrek hausnarketa etengabea eta kolektiboa eskatzen du, diziplinarteko ikuspegiak, kulturarteko dialogoa eta elkartasunean, bakean eta legaltasunean burutzen den hezkuntza.

Hezkuntza Ministerioaren (MIUR) zeregina

Eginahal desafiatsu eta estimulatu horrek erantzunak exijitzen dizkio hezkuntza-sistema osoari. MIURek gazte eta ikasleentzat elkarrekin nagusi gisa funtzionatzen du. Irakasleen bitartez, MIURak familiak inplikatu ditzake informazio- eta hezkuntza-programekin, kontzientziazioa eta ezagutza areagotzeko, eta berritasunei dagokionez egunean daudela ziurtatzeko.

Eskolak kultura eta sinergien sustatzaile gisa

Azken urteetan, eskolek beren hezkuntza-erantzukizunak handitu dituzte eta alor transbertsal berriak gehitu. Eskolako autonomiak oinarriak finkatu ditu tokiko komunitatearekin eta huraosatzen duten entitate profesional eta instituzionalekin elkarreragiteko modu ezberdinetarako. Kultura eta harremanen sustatzaile moduan, eskolek ikasleei, familiei eta komunitateari behar dituzten tresnak eskaini diezazkiekete gizateria anaiartekoago baterantz eramango duen prozesu bertutetsua sustatzeko. Tokiko alderdi interesdunekin harremanak eta sinergiak ezartzea erabakigarria da esku-hartze aproposak burutzeko. Instituzioak, tokiko agintariak eta entitate sozial guztiak nahasten dituzten elkarlan handiak ezinbestekoak dira hazkunde partekaturako.

MIURak akordioen protokolo ugari sinatu ditu beste ministerio, instituzio, antolakunde nazional eta internazional, entitate eta sektore-elkarte batzuekin zenbait gairen inguruan, hala nola ingurumen-hezkuntza, jasangarritasuna, ondare-kulturala eta herritartasun globala. Ikasleen, Integrazioaren eta Parte-hartzearen Zuzendaritza Nagusiak urtero koordinatzen ditu akordio horietan jasotako hezkuntza-programak eta formakuntza-jarduerak. Ekimen horiek gazteen interesa, ezagutza eta kontzientzia piztu nahi dute, komunitatean eskaintzen diren hezkuntza-jarduerak ere txertatuz.

Italia immigrazio-herrialde bihurtzen hasi zenetik ia berrogeita hamar urte geroago (emigrazio-fluxu handia izan arren, batez ere hezkuntza-maila ertain-altua duten gazte italiarren artean), funtsezkoa da beste ikuspegi bat hartzea. Etorkinak ez ditugu beharren eramaile soiltzat hartu behar, baizik eta eskubideen eta erantzukizunen jabetzat. Helburu hauek dituzten ekimenen bidez lor daiteke hori:

Ondare linguistiko eta kulturala baloratzea. Jatorri etorkina duten ikasleen ondare linguistiko eta kulturala onartu eta azpimarratzea, eta eleaniztasuna eta erlijio-aniztasuna sustatzea. Horretarako, beharrezkoa da kultura eta identitateak entitate estatiko edo folklorikotzat edukitzeari uztea. Maizegi, gaizki ulertutako kulturarteko hezkuntza bati ikuspegi folkloriko, esentzialista eta erlatibista batek eragiten dio, eta horrek ezberdintasun kulturalak areagotzen ditu. Horren ordez, aniztasunaren ikuspegi konstruktibista hartu beharko genuke eta ezberdintasun kulturalak ulertu sozialki eraikitako eta jariakorrak diren identitate gisa, zeinak elkarreragin sozialaren bidez moldatzen diren, sortzetiko ezaugarri aldaezinak baino gehiago.

Laguntza-sareak: Sareak sustatu eskoletan, helduen hezkuntza-zentroetan, ikastetxeetan eta elkarteetan. Sare horiek harreman-gune gisa balio behar dute, egungo hezkuntza-praktikei buruzko hausnarketa kritikoa sustatzeko eta biztanleria guztiari zuzendutako jarduerak garatzeko eta ezartzeko. Horrek eskola eta hezkuntza kulturarteko bitartekaritzarako funtsezko espazio gisa ulertzea dakar.

Elkarreragina eta elkar ulertzea bultzatzea: Elkartzeko, elkarriketarako eta elkar ulertzeko aukerak sustatzea, egoera multikulturaletik —non kultura ezberdinak sinpleki batera existitzen diren— benetako elkarreragin, onarpen eta trukeko egoerara iragatea errazteko. Kulturarteko ikuspuntuak aniztasuna errespetatzen eta baloratzen du eta, aldi berean, bizikidetzaren harmoniatu bat ahalbidetzen duten balio komunak bilatzen ditu.

Kultura ezberdinetako pertsonen arteko harremanen ikuspegi berri horrek eskola-antolakuntzaren egitura bera eta irakaskuntza metodoak eraldatu beharko lituzke, baita ebaluazio metodoak eta irakasle, ikasle eta familien arteko harremanak ere, izan eskola barruan zein kanpoan. Ikuspegi horiek geureganatuz, hezkuntza-ingurua birmoldatu dezakegu inklusioa eta ikasle guztien aberastea hobeto bermatzeko, edozein dela ere haien jatorri kulturala.

Aztertutako dokumentuak eta iturriak

- Hezkuntza eta Merezimendu Ministerioa, Scuola dell'Infanzia (Hautzaindegia) [webgunea] <https://www.miur.gov.it/scuola-dell-infanzia>
- Hezkuntza eta Merezimendu Ministerioa, Educazione ambientale e alla sostenibilità, (<https://www.miur.gov.it/educazione-ambientale-e-alla-sostenibilit%C3%A0>)

Ebaluazioa eta jarraipena

Ebaluazioak aldizkakoak eta gardenak dira? Haurraren onerako egiten dira? Politikak lantzeko modu eraginkorrean egiten da gainbegiratzea?

Egungo egoera

Gobernuak kalitate-arauak finkatu ditu haurtzaindegientzat eta protokoloak ezarri zentro horietan irakaskuntza hobeezina bermatzeko:

Haurtzaindegi baten gutxieneko eta gehieneko edukiera 20 eta 60 haur artekoa izango da, hurrenez hurren. Gehieneko edukiera %15eraino igo daiteke, eguneko bertaratze-aldaketak kontuan hartzeko, betiere nahikoa leku badago. Haurtzaindegi txikientzat, gutxieneko eta gehieneko edukiera 6 eta 20 haur artean finkatzen da. Nola haurtzaindegiek hala haurtzaindegi txikiek lanaldi osoan funtziona dezakete, egunean zortzi ordu edo gehiago irekita, edo lanaldi partzialean, egunean zortzi ordu baino gutxiagorekin.

Haurrentzat funtsezko espazioak eta zerbitzu orokorrak honakoak lirateke:

- Mikroklimetatik babesteko behar adinako arintze-espazioa duen sarrera-eremua, ataletara beste ataletatik igaro gabe sartzeko aukera ematen duena. Hezkuntza-zerbitzuetara itsatsitako instalazioen kasuan, sarrera bakarrarekin nahikoa izan daiteke.
- Haur talde bakoitzarentzako unitate funtzionalak (atalak), atsedena eta otorduak espazio berdinetan edo funtzionalki konektatutako espazioetan hartzeko diseinatuak eta erabili aurretik higieena eta erabilgarritasuna bermatuko dutenak.
- Haurrentzat higieen-instalazioak, hainbat atalei balioko dietenak, baina elkarren ondoan egongo direnak: aldagelak, konketak eta, batzuetan, komun bat hamar umeko.
- Jolas-jardueretarako espazio komunak, atalek txandaka erabiltzeko edo banakako eta taldeko jarduerak egiteko.
- Zerbitzu orokorrak eta helduentzako eremuak (aldagelak, komunak langileentzat, garbiketa ekipamendu eta materialentzat biltegi bereizia, janariak prestatzeko materialentzat eta familia-kontsultentzat espazioa).
- Sukaldea edo sukalde-terminala, edo kanpotik hornitutako janariak zerbitzatzeko prestatutako beste espazio bat.
- Aire zabaleko eremuak edo egitura finko eta espezifikoak dituzten jolas-eremuak.

Instalazioak solairu bat baino gehiago baldin baditu, haurren segurtasuna bermatzeko neurriak hartu beharko dira une oro, eta atal bakoitza eta horiei lotutako espazioak solairu bakarrean kokatu beharko dira. e) eta f) hizkietan zenbakitutako espazioak salbu, haur-jardueretarako eremuak ezin dira sotoetan edo lurpeko mailetan kokatuta egon. Unitate funtzionalak edo atalak adinaren arabera taldeetan antolatuta daude eta haurren garapen beharrak eta jardueren bereiztea islatzen dituzte.

Langileak eta zerbitzuak

Eskaintzen diren zerbitzuek hurrengo helburuak bete behar dituzte:

- Haurren zaintzan eta hezkuntzari buruzko erabakietan familiei laguntzea, batez ere gurasobakarrak badira.

- Profesionalek eguneroko eta etengabeko arreta (egunean 5 ordu baino gehiago) ematea familiakoa ez den kanpoko testuinguru batean.
- Haurren garapenaren eta sozializazioaren estimulazioa, haien ongizate fisiko eta mentala bermatuz eta botere kognitibo, emozional, erlazional eta soziala bultzatuz.

Haurra bertan dagoenean, zentroak honako zerbitzu hauek eman behar ditu: higieena, otorduak, etengabeko arreta eta ikuskarpena, behar bezala hornitutako espazioetan atsedea hartzeko denbora, hezkuntza-jarduerak, taldeko jolas-jarduerak, tailerrak eta alfabetatze goiztiarreko programak. Hezkuntza-plan bat egin behar da unitate funtzional edo atal bakoitzerako, eta haurren askotariko beharren arabera egin beharreko egokitzapenak izango ditu.

Kulturarteko eta jasangarritasuneko ikuspegia

Oraingoz, ez da hauteman haurtzaindegi italiarretan jasangarritasuna eta kulturarteko hezkuntza erregulatzen duen tresna ofizialik ezta gobernuaren tresnarik, aurreko ataletan aurkeztutako programa eta gidalerroez gain.

Aztertutako dokumentuak eta iturriak

- Art. 53 of the Reg. R. n. 4/2007. 2007:
https://www.minori.gov.it/sites/default/files/a2_4.pdf

Hirugarren atala:

Gomendio politikoak

Jasangarritasunean ardaztutako ikuspegia hezkuntzan

Gaur egun, hezkuntzako jasagarritasuna hein handi batean irakasleen ahalegin indibidualen esku dago. Ikuspegi zentralizatuago eta sistematikoago baten premia larria dago. Zentralizazio horrek bermatuko luke jasagarritasuna hezkuntza-esparruan finkatuta dagoela, hezitzaile bakoitzaren konpromiso eta esperientzia maila ezberdinen esku egon beharrean. Zentralizatutako estrategiak hezkuntza-maila guztietan praktika eta printzipio jasagarriak integratuko dituzten curriculum espezifikoaren garapena barne hartu beharko luke. Horrela, beharrezkoa litzateke:

- Hezkuntza-maila guztietan jasagarritasunari buruzko normalizatutako curriculum bat lantzea eta aplikatzea.
- Gidalerroak eta baliabide nazionalak zehaztea irakasleei beren irakaskuntzan praktika jasagarriak txertatzen laguntzeko.
- Jasagarritasunaren arloko hezkuntzaren eraginkortasuna gainbegiratzea eta ebaluatzea, etengabeko hobekuntza eta munduko arauetako egokitasuna bermatzeko.

Haur hezkuntzaren garrantzia

Ikerketak azpimarratzen du zein funtsezko zeregina duten lehen haurtzarorako kalitate handiko gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuek, haurtzaindegiek barne, bizitzako lehen etapetatik hezkuntza-despreekotasunak arintzeko. Italian, helburu hori lortzeko, beharrezkoa litzateke:


- Haurtzaindegiko plazen eskuragarritasuna handitzea eta 3 urte bitarteko haurren lurralde-estaldura zabaltzea.
- Familien finantza-karga murriztea zerbitzu horiek iragarriagoak izan daitezen.
- Sarbide inklusiboko irizpideak aplikatzea, bereziki egoera babesgabeen dauden inguruneetako haurrek hezkuntza-aukera goiztiar horiek baliatuko dituztela bermatzeko. Haurtzaindegia eta hezkuntza-zerbitzuak handitzeko finantzaketa eta baliabideak handitzea lehen hezkuntzarako, batez ere arreta jartzen ez den eremuetan.

Eleaniztasuna eta kultura aniztasuna eskolan

Arestiko ikerketek agerian utzi dute hizkuntza eta kultura ugari daudela eskola italiarretan. Hala ere, aniztasun hori ez doa beti ikasgeletako hizkuntza-aniztasunaren balioaren aitortzen orokorrekin batera. Askotan elebitasuna positiboki baloratzen den arren, prestigio soziala duten hizkuntzetara soilik mugatu ohi da, eta, era horretan, alde batera uzten ditu familia etorkinen ama-hizkuntzak. Eleaniztasuna benetan babestuko duen hezkuntza-ikuspuntua ezinbestekoa da:

- Haur guztiek beren inguruetan hitz egiten dituzten hizkuntzak onartzea eta txertatzea.
- Ikasleen biografia linguistikoa jasotzea eta baloratzea.
- Hizkuntza bakoitzaren balioa eta komunitateko aniztasun linguistikoa bultzatzea.
- Hizkuntzen arteko konparazio- eta truke-prozesu metalinguistikoa sustatzea, ikasleen kontzientzia eta hizkuntza-gaitasunak hobetzeko.

Hungaria



Sarbidea

LHHari buruzko hezkuntza eta formakuntza erabilgarri dago eta eskuragarria da guztientzat? Parte-hartzea sustatzen du eta inklusioa indartzen du aniztasuna babestuz?

Egungo egoera

Hungarian bizi diren haur guztiek eskubidea dute haurren ongizaterako oinarritzko zerbitzuak erabiltzeko, baita haurrentzako eguneko arreta ere (arrazoibide juridikoa: oinarritzen da Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean, zeina New Yorken hartu zen 1989ko azaroaren 20an, 1997ko Haurrak Babesteko Legean eta haren 15/1998 aplikazio-araudia (IV.30.) NM araudia).

Haurren eguneko arretak eta haurren ongizaterako oinarritzko zerbitzuak barne hartzen dituzte ikuskapena, arreta, hezkuntza, jarduerak eta adinerako egokiak diren eguneko otorduak. Arreta horren moduak haurtzaindegia, haurren egunean zeharreko ikuskapena eta egunean zeharreko arreta alternatiboa dira. Sektore publikoan, Gizarte-Segurantzako baliozko txartela (TAJ) duten haurrak joan daitezke haurtzaindegira.

2017tik, derrigorrezkoa da Hungariako herri guztietako udalek haurtzaindegietan edo haurtzaindegi txikietan plazak eskaintzea hiru urtetik beherako 40 haur baino gehiago bizi diren lekuetan, edo gutxienez bost hurreko eskaera bat baldin badago.

Herrialde osoan lau motatako haurtzaindegia daude:

- Haurtzaindegia
- Haurtzaindegi txikia
- Familia-haurtzaindegia
- Lantokiko haurtzaindegia
- Familia-haurtzaindegia eta lantokiko haurtzaindegia aukera alternatiboa dira.

Hungariako haurtzaindegia haur guztientzat irekita daude arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, jatorri nazional edo soziala, ondarea, jaiotza edo beste edozein kondizio dela eta (esaterako, hezkuntza-premia bereziak) diskriminaziorik egin gabe. Haurrak haurtzaindegietan izena ematerakoan, lehentasuna ematen zaie, lehendabizi, langile-familietako hurrei, eta, jarraian, gizarte-egoera zaurgarrian daudenei.

Haurtzaindegi-taldeetan (talde espezializatueta edo integratueta) hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren zaintza, hezkuntza eta garapena haur "osasuntsuak" zaintzeko beharrezkoak diren baliabideekin kudeatu daiteke. Haurtzaindegi barruan talde espezializatu bat ezarri behar da unitate gisa. Talde horrek haien garapenean atzerapen garrantzitsuren bat duten 6 urtetik beherako hurrez arduratzen da eta haiek garatzen ditu, onarpenaren unean ezin baitira haurtzaindegi arrunt bateko taldera batu.

Finantziarioari dagokionez, Estatuak zereginetan oinarritutako ekarpenekin babesten du laguntza-sistema, eta horren zenbatekoa langile kopuruaren, artatutako haur kopuruaren eta funtzionamendu-kostuen arabera da. Faktore horiek batera hartzen dira kontuan urteko estatuko laguntzaren zenbatekoa zehazteko. Haur baten zaintzaren batz besteko eguneko kostua gutxi gorabehera honakoa da:

- Zaintza: ~25.000 HUF (63 EUR) egunean
- Otorduak: ~7.000 HUF (18 EUR) egunean

Kostu horien % 40 inguru Estatuak hartzen ditu bere gain, % 4 familiek (mantentzailearen hautuz) eta % 56 mantentzaileak. Salbuespen bat familia-haurtzaindegia eta lantokikoak dira; bertan, familiek eta mantentzaileak funtzionamenduaren kostuen % 80 inguru hartzen dute beren gain.

Legediak zaintzagarri eta otorduengatik ordaintzea derrigortzen du. Haurtzaindegia lau otordu eskaintzen dizkie hurrei egunero (eta horiek, haien behar energetikoen % 75 asetzen dute), eta legediak gizarte-egoeraren arabera deskontuak onartzen ditu.

Kulturarteko eta jasangarritasuneko ikuspegia

Urteetan zehar, haien bizitokian inongo eguneko arreta motarik ez zuten 3 urtetik beherako haurren kopurua jaisten joan da pixkanaka. 2021ean, herrialdeko 2.320 udalerritan, 56.000 haur inguruk (kaltetutako haurren % 20,1ek) ez zuen haurtzaindegirik zuzenean beren bizitokian; hau da, ehuneko 5,5 puntuko hobekuntza izan da 2017ko datuekin alderatuta. 2021ean, ez zegoen haurtzaindegi erabilgarri gabeko barrutirik.

Legeriak xedatzen du bost haur txiki baino gehiago dituzten familiek eska dezaketela beren udalerrian haurtzaindegi-zerbitzuak martxan jartzea, baina, maiz, familiek ez dute datu horren berri, ez eta eskaera hori egiteko prozeduraren berri ere.

Haurtzaindegira joatea derrigorrezkoa da 3 urtetik aurrera, eta horrek ezartzen du haurren hezkuntza instituzionalaren hasiera. Arrisku egoeran dauden haurren kasuan, agintariak galdegin diezaiekete familiei haurrak hezkuntza instituzionalean matrikulatzeko (adibidez, haurren babeserako esku-hartzeen kasuan), haurtzaindegia zerbitzu bat baita eta ez baita derrigorrezkoa.

Legalki, zerbitzua denentzat eskuragarri dago, baina zaurgarritasun egoerako taldeak sartzea ez da behar bezala sustatzen (informazioa eta laguntza ez dira nahikoak). Horrenbestez, eremu babesgabeetan, kokaleku txikietan eta ijito biztanleria altuko eskualdeetan, ezin da baieztatu hezkuntza inklusiboa erabat betetzen ari denik.

Hungarian, haur txikien eguneko arreta beste oinarritzko laguntza-zerbitzuekin osatzen da (familia-laguntza, mediku bisitariak, haurren ongizatea, gizarte-laguntza, hezkuntza-instituzioak, pedagogia-zerbitzuak, familiako medikuak, klinika espezializatuak), eta haietara heltzea aldarora da eskualde eta udalerriz ezberdinetan profesionalen eskasia handiagatik eta sektorearen azpifinantzaketagatik.

Hungariako legediak zentroetako pedagogia-lana inklusio espiritu egiteko aukera ematen du. Hala ere, Hungariako hezkuntza-sistemak ez ditu ezagutza orokorrak eta beharrezko esperientzia aniztasuna behar bezala kudeatzeko. Hungariera hitz egiten ez duten familiekin hizkuntza amankomunik ez edukitzeagatik sortzen diren komunikazio zailtasunek ere inklusioa mamitzea oztopatzen dute, eta hezitzaileek sarri ez dituzte beharrezko ezagutzak eta tresnak kulturarteko egoerak arrakastaz kudeatzeko.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren inklusio egokia edo partziala nabarmen oztopatzen du lehen haurtzaroko hezitzaileen ezagutza profesionalen eta pentsamolde inklusiboaren faltak.

Aztertutako dokumentuak eta iturriak

- A gyermek jogairól szóló New Yorkban, 1989. November 20-án kelt Egyezmény (Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, New Yorken hartua 1989ko azaroaren 20an 1991. évi LXIV. törvény a Gyermek jogairól szóló, New Yorkban, 1989. november 20-án kelt Egyezmény kihirdetéséről - *Hatályos Jogszabályok Gyűjteménye (jogtar.hu)*)
- A gyermekek védelméről és a gyámügyi igazgatásról szóló 1997. évi XXXI. törvény (1997ko XXXI. Legea, haurrak babesteari eta tutoretza administratzeari buruzkoa) Gyvt. - 1997. évi XXXI. törvény a gyermekek védelméről és a gyámügyi igazgatásról - *Hatályos Jogszabályok Gyűjteménye (jogtar.hu)*
- A személyes gondoskodást nyújtó gyermekjóléti, gyermekvédelmi intézmények, valamint személyek szakmai feladatairól és működésük feltételeiről szóló 15/1998. (IV.30.) Ag. rendelet (15/1998 Dekretua (IV.30.) Haurren eta zaintza pertsonalak ematen dituzten pertsonen ongizate- eta babes-erakundeen betebehar profesionalei eta funtzionamendubaldintzei buruzko Ag.) <https://net.jogtar.hu/jogszabaly?docid=99800015.nm>
- A Bölcsődei Nevelés-Gondozás Országos Alapprogramja (The National Core Programme for Early Childhood Education and Care) *Alapprogram - Magyar Bölcsődék Egyesülete (magyarbolcsodek.hu)*
- Központi Statisztikai Hivatal (2022). A gyermekek napközbeni ellátása, 2021. (Haurrentzako haurtzaindegia) *Statisztikai Tükör. A kisgyermek napközbeni ellátása, 2021 (ksh.hu)*
- Központi Statisztikai Hivatal (2019). A gyermekek napközbeni ellátása, 2018. (Haurrentzako haurtzaindegia) *Statisztikai Tükör, 2019. április 12. kisgyermnapkozbeni18.pdf (ksh.hu)*

Langileak

Zein dira LHHako langileen lan-baldintzak? Nola lantzen du herrialde honetako zuzendaritzak hezkuntza mota hau?

Egungo egoera

Hungarian, haurtzaindegi-zerbitzuen funtzionamendurako beharrezkoak diren profesional kopurua eta kualifikazioa legediak agintzen ditu.

Gutxieneko langileen arauak: Haurtzaindegi arrunt baterako (beste haurtzaindegi motetarako ez dira beharrezkoak):

- Haurtzaindegiaren zuzendaria: Pertsona 1
- Haurtzaindegiko talde bakoitzaren derrigorrezko irakasle kopurua: 2 (taldeko gehieneko tamaina 2 urtetik beherako 12 haurretakoa da; haur guztiak 2 urtetik gorakoak badira, taldearen tamaina 14ra arte handitu daiteke), eta laguntzaile 0,5-1.
- Talde espezializatueta, zaintzaile-haur proportzioa 1:3koa da, hau da, zaintzaile bat dago desgaitasuna duten hiru hurreko, eta taldeak gehieneko 6koak izango dira.

Kualifikazio betebeharrak:

- Lehen haurtzaroko hezkuntzako gradua (BA) edo lehen haurtzaroko zaintzaile/hezitzailearen bigarren mailako kualifikazioa
- Laguntzailea: haurtzaindegiko laguntzaile prestakuntza espezializatua

Hungarian, lehen haurtzaroko hezitzaileek 46 eguneko ordaindutako baimen eskubidea dute urtean. Haien soldata oinarritzko soldata eta osagarri batean datza; izan ere, gobernuak osagarri berezi bat ematen die haurtzaindegietako langileei, 0 eta 3 urte bitarteko hurrekin lan egiten duten hezitzaileek duten garrantzia aitortzeko.

Oinarritzko soldata:

- Lizentzia (BA): 538.000 HUF (1.400 EUR) hilabetean
- Bigarren mailako kualifikazioa: 326.000 HUF (847 EUR) hilabetean

Haurtzaindegiko dirulaguntza:

- Lizentzia (BA): 123.200 HUF (320 EUR) hilabetean
- Bigarren mailako kualifikazioa: 106.000 HUF (275 EUR) hilabetean

Guztira:

- Lizentzia (BA): 661.200 HUF (1.720 EUR) hilabetean
- Bigarren mailako kualifikazioa: 432.000 HUF (1.122 EUR) hilabetean

Zenbateko hauek gordinak dira, zergak eta kotizazioak kendu behar zaizkie.

Prestazio gehigarriak izan daitezke:

- Laneko arropa
- Onurak kafetegian
- Mantenuaren soldata-osagarriak

Lehen haurtzaroko hezitzaileen lanorduak 7 ordu egunean dira, eta 6 ordu talde espezializatueta.

Urtero, apirilaren 21ean Haurtzaindegiaren Eguna ospatzen da, eta haurren zaintzaren zereginik gabeko lanegun bat da. Egun horretako egitaraua erakundeak berak hautatzen du (beren aurrekontuekin finantzaturako ekitaldiak antolatu ditzakete, hizlariak gonbidatu, eta abar).

Kulturarteko eta jasangarritasuneko ikuspegia

Hungariako beste hezkuntza-sistemen mailekin alderatuz, haurtzaindegien sektoreari ez dio hainbeste eragiten profesional gabeziak, nahiz eta lehen haurtzaroko hezitzaile kopuru esanguratsu bat dagoen oraindik titulu baxuagoekin. Orokorrean, profesional erromani gutxi dagoen arren tituludunen artean, datu estatistikoek adierazten dute kultura-aniztasuna ohikoagoa dela irakaskuntzaren lanbidean eta emakumeak aritzen direla batez ere.

Hungarian, irakasleen pertzepzio orokorra, baita lehen haurtzaroko hezitzaileena ere, ez da bereziki positiboa. Haien lanak ez du errekonozimendu handirik eta estimu soziala baxua da.

Aztertutako dokumentuak eta iturriak

- A személyes gondoskodást nyújtó gyermekjóléti, gyermekvédelmi intézmények, valamint személyek szakmai feladatairól és működésük feltételeiről szóló 15/1998. (IV.30.) Ag. rendelet (15/1998 Dekretua (IV.30.) Haurren eta zaintza pertsonalak ematen dituzten pertsonen ongizate- eta babes-erakundearen betebeharrak profesionalen eta funtzionamendubaldintzei buruzko Ag) 15/1998. (IV. 30.) NM rendelet a személyes gondoskodást nyújtó gyermekjóléti, gyermekvédelmi intézmények, valamint személyek szakmai feladatairól és működésük feltételeiről - Hatályos Jogszabályok Gyűjteménye (jogtar.hu) <https://net.jogtar.hu/jogszabaly?docid=99800015.nm>
- A közalkalmazottak jogállásáról szóló 1992. évi XXXIII. Törvény (1992ko XXXIII. Legea, funtzionario publikoen estatutu juridikoari buruzkoa) Kjt. - 1992. évi XXXIII. törvény a közalkalmazottak jogállásáról - Hatályos Jogszabályok Gyűjteménye (jogtar.hu) (<https://net.jogtar.hu/jogszabaly?docid=99200033.tv>)
- A közalkalmazottak jogállásáról szóló 1992. évi XXXIII. törvénynek a szociális, valamint a gyermekjóléti és gyermekvédelmi ágazatban történő végrehajtásáról szóló 257/2000. (XII.26.) Korm. rendelet (Gobernuaren 257/2000 zb. Dekretua (XII.26), 1992ko XXXIII. Legea aplikatzeari buruzkoa, zeina funtzionario publikoen estatutu juridikoari buruzkoa den, gizartearen, haurren ongizatearen eta haurren babesaren sektoreetan) 257/2000. (XII. 26.) Korm. rendelet a közalkalmazottak jogállásáról szóló 1992. évi XXXIII. törvénynek a szociális, valamint a gyermekjóléti és gyermekvédelmi ágazatban történő végrehajtásáról - Hatályos Jogszabályok Gyűjteménye (jogtar.hu) <https://net.jogtar.hu/jogszabaly?docid=a0000257.kor>
- A pedagógusok új életpályájáról szóló 2023. évi LII. törvény (2023ko LII. Legea, irakasleen jarduera profesionalari buruzkoa) <https://net.jogtar.hu/jogszabaly?docid=a2300052.tv>
- Szűcs Viktória (2024): Mit hoz 2024 a bölcsődei bérek és a finanszírozás tükrében? (Zer ekarriko du 2024ak soldaten eta haurtzaindegien finantziaketari dagokionez?) Bölcsődei Dolgozók Demokratikus Szakszervezete, 2024.01.02. Mit hoz 2024, a bölcsődei bérek és a finanszírozás tükrében? | BDDSZ (<https://bddsz.hu/jogszabalyok/bolcsode-ber-2024>)

Gobernantza eta finantzaketa

Aitortzen zaio LHHari duen balio eta garrantzia? Existitzen dira arauak eta espektatibak LHHaren egituren kalitatearen inguruan? Behar adina inbertitzen da LHHAn?

Egungo egoera

Familiei babesak emateak berebiziko garrantzia du Hungarian gobernu-mailan, eta horren zati batek haurtzaindegien plazen hedapen esanguratsu eta etengabea hartzen du barne. Helburu hori lortzeko, Hungariak Europar Batasunaren dirulaguntza multzo bat onartu du bere lurralde guztian haurtzaindegia garatzeko. Funtz horiek erabiliz, haurtzaindegien plaza kopurua nabarmen handitu da azken urteetan, 32.000tik 2010ean 65.000ra igaroz 2024ean, Estatistika Bulego Nagusiaren datuen arabera.

Haurtzaindegia udalek, elkarteak, erlijio-antolakundeak eta sozietate zibileko antolakundeak kudeatu ditzakete. Gobernu-bulego eskudunek emandako funtzionamendu-baimenak izan behar dituzte. Haurtzaindegi bakoitzak mota horretako baimenarekin funtzionatzen du eta egunero erregistro-sistema nazional batean informatzeko betebeharra du.

Agintaritza arautzaileak eta erakunde metodologiko batek (Hungariako Haurtzaindegien Elkartek) haurtzaindegien instalazioen eta egoera operatiboan nahitaezko ikuskapenak egiten dituzte, bi urtean behin. Gainera, mantentzaileak urtean behin egiten ditu haurtzaindegien lanen ikuskapenak.

Haurtzaindegien sistema legediak babesten du eta hark arautzen ditu ere haurtzaindegien funtzionamendua zein finantzaketa eta betebeharrak profesionalak. Haur hezkuntzaren arautze profesionala Haurren Hezkuntzarako eta Arretarako Oinarrizko Programa Nazionalak agintzen du. Programa nazional horrek pedagogia-lana babesten eta kokatzen du, eta, aldi berean, eguneroko hezkuntza-prozesuetan askatasun handia uzten du. Haurtzaindegi bakoitzak bere programa profesionala garatzen du (programa pedagogikoa), eta bertan, tokiko ezaugarriak eta lehen haurtzaroko hezitzaileen ezagutza profesional espezializatuak islatzen dira. Legediak haurtzaindegi-zerbitzuak ezartzeko oinarrizko baldintzak ere zehazten ditu. Haurtzaindegiko unitateak bi talde-gela, bi bainugela eta bi aldagela dituzte.

Haurtzaindegiko talde bakoitzean 12 haur txiki zaindu daitezke gehienez. Haur bakoitzeko gutxienez 3 metro karratuko azalera dago.

Haurren elikadurari dagokionez, espezializatutako agintariak ausazko eta etengabea ikuskapenak egiten dituzte sukaldeko instalazioetan osasun publikoko arauak eta AAKPK arautegia betetzen dutela bermatzeko.

Kulturarteko eta jasangarritasuneko ikuspegia

Langileen mailan, kulturarteko hezkuntzaren eta jasangarritasunaren kontuak ez dira hain argiak edo ulergarriak.

Aztertutako dokumentuak eta iturriak

- Központi Statisztikai Hivatal adatai (Estatistika Bulego Nagusiaren datuak) A gyermekek napközbeni ellátása, 2018 (ksh.hu) (<https://www.ksh.hu/docs/hun/xftp/stattukor/kisgyermnapkozbeni/kisgyermnapkozbeni18.pdf>)
- Pénzügyminisztérium “Bölcsődei Fejlesztési Program” (“Haurtzaindegien garapen programa” Ogasun Ministerioa) 3a193f33ccdbd03a5d556b72e0a2884eef3626a7.pdf (kormany.hu)
- A személyes gondoskodást nyújtó gyermekjóléti, gyermekvédelmi intézmények, valamint személyek szakmai feladatairól és működésük feltételeiről szóló 15/1998. (IV.30.) 15/1998 Ag. rendelet (15/1998 zb. Dekretua (IV.30.) Haurren eta zaintza pertsonalak ematen dituzten pertsonen ongizate- eta babes-erakundeak betebehar profesionalak eta funtzionamendu-baldintzei buruzko Ag) 15/1998. (IV. 30.) NM rendelet a személyes gondoskodást nyújtó gyermekjóléti, gyermekvédelmi intézmények, valamint személyek szakmai feladatairól és működésük feltételeiről - Hatályos Jogszabályok Gyűjteménye (jogtar.hu) <https://net.jogtar.hu/jogszabaly?docid=99800015.nm>
- A Bölcsődei Nevelés-Gondozás Országos Alapprogramja (The National Core Programme for Early Childhood Education and Care) Alapprogram - Magyar Bölcsődék Egyesülete (magyarbolcsodek.hu) <https://magyarbolcsodek.hu/>
- Heckman, J. J. (2006): Haur txiki behartsuengan inbertitzea politika ekonomikoki eraginkorra da. Forum on Building the Economic Case for Investments in Preschool, Committee for Economic Development/The Pew Charitable Trusts/PNC Financial Services Group) (https://jenni.uchicago.edu/investing/invest-disadv_2005-12-22_247pm_awb.pdf)
- A szociális, gyermekjóléti és gyermekvédelmi igénybevevői nyilvántartásról és az országos jelentési rendszerről szóló 415/2015. (XII. 23.) Korm. rendelet (415/2015 zb. Gobernu-dekretua (XII. 23.) gizarte-eskatzaileen, haurren ongizatearen eta haurrak babestearen erregistroari eta jakinarazpen-sistema nazionalari buruzkoa) 415/2015. (XII. 23.) Korm. rendelet a szociális, gyermekjóléti és gyermekvédelmi igénybevevői nyilvántartásról és az országos jelentési rendszerről - Hatályos Jogszabályok Gyűjteménye (jogtar.hu) (<https://net.jogtar.hu/jogszabaly?docid=a1500415.kor>)
- A közétkeztetésre vonatkozó táplálkozás-egészségügyi előírásokról szóló 37/2014. (IV. 30.) EMMI rendelet (37/2014 zb. Dekretua (IV. 30.) berrezarpen publikorako nutrizio- eta osasun-betekizunei buruzkoa) 37/2014. (IV. 30.) EMMI rendelet a közétkeztetésre vonatkozó táplálkozás-egészségügyi előírásokról - Hatályos Jogszabályok Gyűjteménye (jogtar.hu) (<https://net.jogtar.hu/jogszabaly?docid=a1400037.emm>)
- Nemzeti Jó Higiéniai Útmutató (GHP) 40/2018 (Higiene praktika nazional egokietarako jarraibideak (GHP) 40/2018) VENDÉGLÁTÁS ÉS ÉTKEZTETÉS JÓ HIGIÉNIÁI ÚTMUTATÓJA TELJES 2018 03 12.pdf (kormany.hu) VENDÉGLÁTÁS ÉS ÉTKEZTETÉS JÓ HIGIÉNIÁI ÚTMUTATÓJA TELJES 2018 03 12.pdf (kormany.hu)

Bigarren atala:

Curriculum-egituren eta programen analisia

Curriculum

Curriculumak toki-maila edo eskualde- eta sistema-mailan zehazten dira? Curriculumak holistikoak eta malguak dira? Aldizka gainbegiratzen dira? Curriculumak tokiko ingurunearen aniztasuna eta baliabideak, baita haurren eta beren familien aurrekari soziokulturalak ere kontuan hartuz landu dira?

Egungo egoera

Oinarrizko Ikasketen Plan Nazionalak ezarritako esparruan, hartzaindegiko bakoitzak bere programa profesionala (programa pedagogikoa) garatzen du. Haur hezkuntza haur txikiengan ardatzen da eta, zeharka, baita haiek hezten dituzten familiengan ere. Hartzaindegiek sistema konplexu gisa ikusten dituzte familiak, eta haien helburua ez da soilik haur txikiak hezea eta zaintzea, baita familia osoa laguntzea ere.

Haur hezkuntzaren printzipioak honakoak dira:

- Familien ikuspegi sistemikoa.
- Lehen hartzaroan esku-hartzea.
- Familia-heziketaren errespetuaren lehentasuna.
- Haur txikiaren nortasuna errespetatzea.
- Hartzaindegiko hezitzaileen nortasunaren rol garrantzitsua.
- Segurtasuna eta egonkortasuna ipintzea.
- Pixkanakako aurreratzea ezartzea.
- Ikuspuntu indibidualizatuak aplikatzea.
- Zaintza-egoeren garrantzia azpimarratzea.
- Haurren gaitasunen garapena babestea.

Haur hezkuntzako zereginak:

1. Familiak laguntzea eta gurasoen gaitasunak garatzea beren indarguneetan oinarrituz: Familiako indarguneak ulertu eta babestu alderdi positiboak azpimarratuz.
2. Osasunaren babesa eta bizimodu osasuntsua ezartzea: Haur txikiaren garapena ikuskatzea, dokumentatzea eta babestea; inguru osasuntsu eta seguru bat sortzea haren garapen fisiko eta mental harmoniatsurako.
3. Gaitasun emozional eta sozialak garatzea: Arreta berezia jartzea garapen eta arreta goiztiarrean, hezkuntza-premia bereziak edo inguru babesgabetik datozen haurren gaitasun sozial eta emozionalak bultzatzea; familiak laguntzea eta, beharrezkoa denean, beste laguntza-profesionalak inplikatzeko.
4. Garapen kognitiboaren prozesuak babestea: Haur-zaintzaren egoeretan ezagutzak gehituz eta esperientzien eta ikaskuntzen esplorazioa eta prozesatzea erraztuz.

Haur hezkuntzako egoera giltzarrien artean, besteak beste, jolasa, poesia, ipuin-kontaketa, ikaskuntza, zaintza, mugimendua, haur-kantak, abestiak eta beste sormen-jarduera batzuk daude.

Oinarrizko Curriculum Nazionalak "pertsona giltzarrien" sistema gomendatzen du Hungariako hartzaindegietan. Sistema horren arabera, hartzaindegiko hezitzaile bakoitza 6-7 haurren arduradun zuzena da. Haurra hartzaindegiko bizitzara egokitzen laguntzen du eta hartzaindegiko egonaldi osoan bere hezitzailea izaten jarraitzen du (progresio-sistemari jarraituz). Hezitzaileak haurraren garapena gertutik jarraitu eta dokumentatzen du. Sistema honek haur bakoitzari arreta handiagoa jartzeko aukera ematen du, baita beharren, arazoaren eta ohitura indibidualen jarraipen bat egiteko ere.

Kulturarteko eta jasangarritasuneko ikuspegia

Oinarrizko curriculumean, haurraren nortasunarekiko eta familia-heziketarekiko funtsezko errespetua azpimarratzen da, honako printzipio hauen laguntzarekin:

"Haur hezkuntzaren helburua haurraren nortasuna erabat zabaltzea da, haren gaitasun pertsonal, sozial eta kognitiboen garapena laguntzea eta, aldi berean, haurraren oinarrizko eskubideak errespetatzea. Arreta berezia jartzen du ezberdintasun etniko, kultural, erlijiozko, linguistiko, genero-desberdintasun eta fisiko eta mentalekiko tolerantzia sustatzean, aniztasunaren onarpena sustatuz eta aurreiritzirik gabeko giro inklusiboa sortuz."

"Hartzaindegiko-zerbitzuak eskaintzen dituen instituzioak familia-heziketaren balioak, tradizioak eta ohiturak errespetatzen eta indartzen ditu, haurrekiko heziketa-funtzioari dagokionez".

"Funtsezkoa da bermatzea haur txikiak ezagutzak, esperientziak eta trebetasunak eskuratzeko aukerak dituztela jolasaren, zaintza-egoeren eta beste jardueren bidez, eta bat-bateko ikaskuntzaren poztasuna esperientziatzen dutela. Haien jakin-nahia piztuz eta berrelikadura positiboa emanez, ahaleginek haien ekimen independenteak babestu behar dituzte, eta, horrela, oinarri sendoa finkatu bizitza osoan zeharreko behar eta ikasketa prozesuetarako."

Aztertutako dokumentuak eta iturriak

- A Bölcsődei Nevelés-Gondozás Országos Alapprogramja /The National Core Programme for Early Childhood Education and Care/ Alapprogram - Magyar Bölcsődék Egyesülete (magyarbolcsodek.hu) <https://magyarbolcsodek.hu/hu/>
- A szociális, gyermekjóléti és gyermekvédelmi igénybevevői nyilvántartásról és az országos jelentési rendszerről szóló 415/2015. (XII. 23.) Korm. rendelet /415/2015 zb. Gubernu-dekretua (XII. 23.) gizarte-eskatzailen, adingabeen ongizatearen eta haurrak babestearen erregistroari eta jakinarazpen-sistema nazionalari buruzkoa) 415/2015. (XII. 23.) Korm. rendelet a szociális, gyermekjóléti és gyermekvédelmi igénybevevői nyilvántartásról és az országos jelentési rendszerről - Hatályos Jogszabályok Gyűjteménye (jogtar.hu)

Ebaluazioa eta jarraipena

Ebaluazioak aldizkakoak eta gardenak dira? Haurren onerako egiten dira? Politikak lantzeko modu eraginkorrean egiten da gainbegiratzea?

Egungo egoera

Mantentzailearen eta Gobernu Bulegoaren erantzukizunen artean erakundeetan aldizkako ikuskapen profesional eta operatiboak egitea dago, arautegi-legala betetzen dela bermatzeko. Gobernu Bulegoak ikuskapenak hasten ditu, eta erakunde metodologikoa inplikatzeko du, hots, Haur Eskolen Hungariako Elkarteak.

Erakundearen zuzendariak langileen jardura profesionalak ikuskatzen ditu, jarraitutasunez, erakunde hezkuntza-aholkulariaren laguntzarekin.

Hautzaindegietako hezitzaileen etengabeko garapen profesionala derrigorrezkoa da legeari dagokionez gizarte-sektorean. Legeak etengabeko formakuntzaren bidez lortu beharreko kreditu-puntuak kopurua zehazten du, baita beharrezko kredituak eskuratzeko epea ere.

Kulturarteko eta jasangarritasuneko ikuspegia

Eguneroko jardunean, ez dira beti egiten mantentzaileak eskatutako gainbegiratze-ikuskapenak, eta horrek legedian hitzartutako onarpen-espektatibak ez betetzea ekar dezake.

Hautzaindegietako hezitzaileen garapen profesionalari dagokionez, malgutasun apur bat dago. Hautzaindegietako hezitzaileek formakuntza aukeren zerrenda batetik hautatu dezakete, eta haien hautua instituzioko zuzendariak onetsi behar du.

Aztertutako dokumentuak eta iturriak


- A szociális, gyermekjóléti és gyermekvédelmi igénybevevői nyilvántartásról és az országos jelentési rendszerről szóló 415/2015. (XII. 23.) Korm. rendelet (415/2015 zb. Gubernu-dekretua (XII. 23.) gizarte-eskatzaileen, haurren ongizatearen eta haurrak babestearen erregistroari eta jakinarazpen-sistema nazionalari buruzkoa) 415/2015. (XII. 23.) Korm. rendelet a szociális, gyermekjóléti és gyermekvédelmi igénybevevői nyilvántartásról és az országos jelentési rendszerről - Hatályos Jogszabályok Gyűjteménye (jogtar.hu) (<https://net.jogtar.hu/jogszabaly?docid=a1500415.kor>)
- 18/2024. (IV.4.) BM rendelet a pedagógusok teljesítményértékeléséről (18/2024 (IV.4.) BM Irakasleen errendimenduaren ebaluazioari buruzko dekretua) 18/2024. (IV. 4.) BM rendelet - Nemzeti Jogszabálytár (njt.hu) (<https://njt.hu/jogszabaly/2024-18-20-0A>)

Hirugarren atala:

Gomendio politikoak

- Egungo legegintza-egoeran, gizarte-segurantzako baliozko txartel bat ez duten haurrek ez dute Estatuak eskaintako haurtzaindegi-zerbitzuak erabiltzerik. Gomendagarria litzateke onuradun onargarrien taldea zabaltzea eta sarbidea ez lotzea gizarte-segurantzako estaldurari; izan ere, onura gehien izan lezaketen haurren zati handi bat zerbitzu horietatik kanpo dago gaur egun.
- Haurren arretaren eguneroko jardunean benetako inklusioa erdietsiko balitz, izugarri onuragarria litzateke kulturarteko hezkuntza, inklusioa eta pedagogia kulturalki sentikorra nabarmenduko balira, bai irakasleen hasierako formakuntzan, bai etengabeko formakuntzan. Formakuntza-saioetan oinarri teorikoak, zein gai horien alderdi praktikoak sakon lantzea erabakigarria litzateke.
- Gaur egun, familiek beren eskubideak eta prestazioak ez ezagutzeak zerbitzuetara iristea zailtzen du. Funtsezkoa da haurdun dauden emakumeek eta haur txikiak dituzten familiek aldizkako informazio osoa jasotzea legeak eskaintzen dizkien aukeren eta haien eskubideak baliatzeko metodoen inguruan. Beharrezkoa litzateke lege-errekurtsoen prozesu osoa babestea eta haur txikientzako zerbitzu eta prestazioei buruzko informazio eguneratua bermatzea.
- Haurtzaindegiko zaintzen kalitate profesionala, hein handi batean, finkatutako espektatiben eta mantentzaileak eta instituzioko zuzendariak espektatiba horiek gainbegiratzen dituzten moduaren esku dago. Gomendagarria litzateke lan-profesionalarekin batera babes eta laguntzako barneko eta kanpoko kontu-ikuskaritzak egitea, eta, era horretan, etengabeko jarraipenaren bidez, kalitate profesional handiari eusten zaiola bermatzea.

Espainia



Legegintza-testuinguruaren analisia

Espainiako Estatu hainbat Autonomia-Erkidegok osatzen dute, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Kataluniak. Alde batetik, lurralde osoari eragiten dion arautegi nazionala dago; eta bestetik. Autonomia-erkidego bakoitzak bere arautegi propioa du. Kontuan izan behar da Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan (EAE) eta Kataluniako Erkidegoaren kasuan (KE) administrazio-eskumenen transferentzia bat dagoela. Horrenbestez, beharrezkoa da gaiaren egoera zehaztea, bai Espainian oro har, bai proiektu honetan parte hartzen duten Autonomia-Erkidegoetan.

Sarbidea

LHHAri buruzko hezkuntza eta formakuntza erabilgarri dago eta eskuragarria da guztientzat? Parte-hartzea sustatzen du eta inklusioa indartzen du aniztasuna babestuz?

Egungo egoera

Estatu-mailan, Lehen Haurtzaroaren Hezkuntza eta Arreta (LHHA) borondatezkoa da. Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duenak ezartzen du Gobernua lankidetzan arituko dela hainbat hezkuntza-administrazioekin, eta 0-3 urteko garaiaren LHHA progresiboki ezartzen joango dela eskaintza publiko nahikoaren eta haren doakotasuna luzatzearen bidez; horrela, pobrezia egoeran eta giza-bazterketan dauden ikasleen sarbidea eta eskolaratze tasa baxuaren egoera lehenetsiko ditu.

Illo horretan, ekitate- eta inklusio-printzipioak bermatze aldera, LHHAren plangintzak, kudeaketak eta garapena arduratuko da kultura-, gizarte- eta ekonomia-jatorriko desberdintasunek bularreko haurren eta haur txikien ikaskuntzan eta garapenean dituzten ondorioak konpentsatzeaz, baita hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak goiz detektatzeaz eta artatzeaz ere.

Euskadiren testuinguruan, duela gutxi onartu da Euskal Hezkuntzaren Lege berria, zeinak hezkuntza orokorrerako eta, bereziki, 0-3 urteen etaparako irisgarritasun-baldintzak jasotzen dituen.

Etap hori Haurreskolak partzuergoaren bidez garatzen da eta zerbitzu publiko unibertsal, kalitatezko eta doako gisa definitzen da. Etap horretako ikaskuntza erabat doakoa izatea berritutako Lege honen berritasunetako bat da; izan ere, familia-errentaren arabera ordaintzen zen oraindaino. Beraz, Legeak eta araudiak jasotzen duten bezala, Haurreskolak partzuergoaren zerbitzua doakoa izango da 2024-2025 ikasturterako.

Haurreskolak partzuergoko onarpen-irizpideak honakoak dira:

1. 2023 eta 2024an jaiotako haurren familiek eta legezko tutoreek Haurreskolak partzuergoko edozein zentrotan eskatu dezakete plaza.
2. Haurreskola bat irekitzeko gutxienez hiru haur beharko dira.

3. Eskaera guztietarako plaza librerik ez balego, ondorengo irizpideak izango dira kontuan: Haurreskola batean matrikulatutako anai-arreben aldiberekotasuna; bizilekuaren hurbiltasuna; familiaren lan-egoera; familia-errenta; adingabearen eta/edo senide-tutore arduradunen desgaitasuna; genero-indarkeriaren biktima; terrorismoaren biktima; familia ugaria edo gurasobakarra; eta familia-harrerako adingabea izatea.

4. Onartzen ez diren eskaerak itxarote-zerrendan idatziko dira.

Sarbide-irizpideei dagokienez, ez da inolako aipamenik egiten Haurreskolak partzuergoarekin loturiko agirietan. Aitzitik, Euskal Hezkuntzaren Legearen 28. artikulua zehazten ditu hezkuntzarako sarbide orokor horren ezaugarriak, etapa guztietan. Zehazki, eskolaratze inklusiboaren bermeak ezartzen ditu. Besteak beste, azpimarratzen du:

1- Sartzeko eta onartzeko prozesuak printzipio hauek izango dituela oinarri: ekitatea, hezkuntza-inklusiua, gizarte-kohesioa sustatzea eta ikastetxea aukeratzeko eskubidea errespetatzea, eskura dagoen hezkuntza-eskaintzaren barruan.

2- Ikasleak sartzeko eta onartzeko berme-mekanismoak garatzea, eskolatze inklusibo eta orekatu baterako, eta, hala, bizikidetzatza eta gizarte-kohesio handiagoa bultzatuko dela. 3- Eskolako plazen eskaintza eskolaratzearen egiazko premietara egokituko dela eta eskaintza urria edo gehiegizkoa saihestuko dela.

Testuinguru katalanean, hezkuntza-sistemaren esparruan, LHHA berariazko nortasuna duen borondatezko hezkuntza-etapa da, eta sei urtera arteko haurrak artatzen ditu. Etap hori bi garaitan antolatzen da: lehena, zero urtetik hirura, eta, bigarrena, hiru urtetik seira.

Kulturarteko eta jasangarritasuneko ikuspegia

Oro har, kontsultatutako arautegian ez dugu zehazki Kulturartekotasunari edo Jasangarritasunari buruzko informaziorik aurkitu.

EAEren kasuan, azpimarratu nahiko genuke Haurreskolen kasuan eta sarbide-printzipioei begiratu, nabarmentzen dela bai eskaintzaren planifikazioak bai onarpena erregulatzen duten mekanismoek aniztasunaren eta zaurgarritasunaren banaketa orekatu bati lagundu beharko diotela funts publikoekin mantentzen diren ikastetxe guztien artean, arrazoi sozioekonomikoengatik edo beste motatakoengatik ikasleak bereiztea saihesteko asmoz.

Aztertutako dokumentuak eta iturriak

- (SP.) Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. <https://www.boe.es/buscar/pdf/2020/BOE-A-2020-17264-consolidado.pdf>
- (EAE) 17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzkoa.
- (EAE) Haurrak haur-eskoletan onartzeko arauak eta irizpideak. 04/03/2024 Erabakia, martxoaren 6koa, Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearena, 2024-25 ikasturterako plazen eskaintza, funtzionamendua eta haurrak onartzeko arauak eta irizpideak onartzen dituen.
- (CAT) 21/2023 Dekretua, otsailaren 7koa, Haur Hezkuntzaren irakaskuntzen antolaketari buruzkoa.

Langileak

Zein dira LHHako langileen lan-baldintzak? Nola lantzen du herrialde honetako zuzendaritzak hezkuntza mota hau?

Egungo egoera

Espainiako testuinguruan, ekainaren 29ko EFP/608/2022 Aginduak ezartzen du haur hezkuntzako etapako proposamen pedagogikoa Haur Hezkuntzako Irakasle titulua edo titulu baliokidea duen profesional baten ardura izango dela. EURYDICEk adierazten du lehen zikloan (0-3 urte) lanbide horretan aritzeko gutxieneko titulua Haur Hezkuntzako Goi Mailako Heziketa Zikloa izango dela.

Erregimen orokorreko ikastetxe pribatuaren kasuan edo inolako mailan itunpekoak edo diruz lagundutakoak ez diren irakaskuntza arautuko ikastetxeen kasuan, XI. Hitzarmen Kolektiboak (99001925011986 zk.ko hitzarmen-kodea) ezartzen du irakasleentzat asteko irakasjarduna 27 ordukoa izango dela. Haur hezitzaileen oinarritzko soldata 1.138,78 eurokoa izango da.

Funts publikoekin erabat edo partzialki lagundutako ikastetxeen kasuan, irakaskuntza pribatuko enpresen VII. Hitzarmen Kolektiboak (99008725011994 zk.ko hitzarmen-kodea) ezartzen du irakasleentzat asteko gehieneko irakasjarduna 32 ordukoa izango dela eta haur hezitzaileentzat 38 ordukoa. Haur hezitzaileen oinarritzko soldata 1.696,01 €-koa izango da irakasle-profilaren kasuan, eta 1.294,95 €-koa profil teknikoarenean.

EAEren esparruan, azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuak 0 eta 3 urte bitarteko Haur-eskolen gutxieneko baldintzak ezartzen ditu, eta aurreko dekretuaren (2002-2003 eta 2003-2004) artikulua jakin batzuen indarraldiari eusten dio. 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako Haur-eskolek adin horietarako haurrei hezkuntza- eta laguntza-arreta egokia emateko profesional kualifikatuak eduki beharko dituzte, eta titulu hauetakoren bat eskatuko da: a) Irakasle titulua Haur Hezkuntzako edo edozein baliokideko espezializazioarekin, edo b) Haur Hezkuntzako Goi-mailako Tekniko titulua edo baliokideren bat.

0-3 urteko hezkuntza- eta laguntza-tarteaz arduratzen diren eskolek langile kualifikatuak izan behar dituzte, gutxienez funtzionamenduan dauden unitateen kopuru berean. Unitate horiek hezkuntza- eta laguntza-izaerako Haur-eskolek unitate bakoitzeko bete behar dituzten gehieneko haur-ratioak bete beharko dituzte (praktikan, bi hezitzaile esleitzen dira gela oso edo ia oso bakoitzeko).

Lan-hitzarmena jasotzen duen 2008ko uztailaren 17ko Ebazpenak ezartzen du 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza-langileen zereginen artean honako hauek daudela: antolakuntza, jardueren planifikazioa eta prozesuen ebaluazioa, baita Haur-eskola bakoitzaren eguneroko kudeaketa ere; haurtxoen eta haur txikien garapen integraleko prozesuen egoerei arreta eskaintzea; familiei haurtxoen eta haur txikien hezkuntza-prozesuari buruzko arreta eta informazioa ematea; Partzuergoak antolatutako formakuntza-jardueretan parte hartzea.

Langileen urteko lanaldi arrunta 1.570 ordukoa da. Haur-eskola bakoitzean bertako koordinatzaile izendaturiko pertsonak diseinatuko du orduen banaketa. Lanaldi osoko kontratua duten hezkuntza-langileen eguneko lanaldia 7 ordukoa izango da; horietatik 6 ordu eta 15 minutu haurrei zuzeneko arreta emateko izango dira, eta 45 minutu prestatzeko.

Partzuergoarentzat langileen etengabeko formakuntza da, alde batetik, Haurreskolakek eskaini nahi duen zerbitzuaren bermea, eta bestetik, enpleagarritasuna hobetzeko ekarpena. Langileak, bestalde, derrigortuta daude zuzendaritzatik ezarritako formakuntza-ekimen guztiak aprobetxatzera.

Hileko oinarritzko soldata (2024an eguneratutako datuak) 2.478,32 eurokoa da. Hirurtekoen hobia 46,35 eurokoa da, eta koordinazioarena, 63,89 eurokoa.

Kataluniari dagokionez, azpimarragarria da etapa honetako hezitzaileek haur hezkuntzako espezializaziodun irakasle titulua edo gradu baliokide bateko titulua, edo haur hezkuntzako goi-mailako tekniko titulua, edo, akademikoki eta profesionalki, aurreko edozeinen baliokidetzat jotako beste edozein titulu.

Gelako langileak honakoak dira:

